



MAKROPROIEKTU EOLIKOAK GELDIARAZTEKO LANEAN

Eskualdean egin nahi dituzten proiektu eolikoek kezka eta ezinegona sortu dute, eta herritarrek taldeetan biltzea erabaki dute. Hala sortu dituzte Arantza Bizirik, Azkua Bizirik, Igantzi Bizirik eta Malerreka Bizirik. Halako proiektuek eragiten ahal dituzten kalteez eta ondorioez ohartarazi dute. / 8

Espekulazioaren aurka Senpereren

Etxebizitzen eta lurren espekulazioaren kontra ari den Senpereko Kolektiboko Dabid Gramontek egoera zein den kontatu du. / 67

SINADURAK



ZOKKETA / 80



Ion Dufurrena
Erratzuko
kaikugilearekin
kontu kontari / 58



Burdinaren Eguna
eginen dute
abuztuaren 5ean
Urdazubín / 67

Laxoa Txapelketako
final handia
abuztuaren 5ean
Oizen / 71

Nafarroako hainbat
txapel jantzi dituzte
eskualdeko herri
kirolariek / 70



deceuninck



Erosotasunaz gu arduratuko gara ...



Elegant **ThermoFibra** Infinity
Uf (W/m²k) **0,85. Passive House**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA

... eta zu zoriontsu izan.

*%45era bitarteko dirulaguntzak
gestioekin lagunduko dizugu*

NIRE TXANDA



IZASKUN IGOA JAIMERENA

Agurrak eta kantuak

Duela aste batzuk, pertsona bati egindako agurrean egon nintzen. Heriotzak hartzen duen tokiari dantza. Uzten duen hutsuneari hitz, kantu eta malko.

Heriotzak eta erabakiek galera ekartzen dizkigute: galtzen ditugu familiakoak, lagunak, bikotekideak, hurbilekoen hurbilekoak eta ez hain hurbilekoak. Eta agurrak ere galtzen ditugu, ez delako hain sinplea aio erratea. Agurra egitea.

Eta hor dator musika, gu erreskatatzera. Haizea, hostoak, xuxurlak, isiltasuna eta kantuak. Beldur diogunari begiratzen eta zailak diren tokietan egoten laguntzen digute ahots, nota eta melodiek. Erritmo bat ematen diote gure min eta maitasunari. Eta galdera bat etorri zait gogora: egin daiteke agurrik kanturik gabe?»

Agurrak, akaso, paktu bat dira: erabakitzeko ze kantuk iraunen duen elkarren bizitza eta heriotzaren artean. Ze kanturen ondoan eman behar ditudan pausoak zu ez zaudenean.

EZPALA



AITOR AROTZENA ALBIZU

Iragana eta etorkizuna

Niretzat etorkizuna den une batean irakurtzen ariko zarete zuentzako iraganean idatzitako hau. Uztailaren 23ko hauteskundeak ere etortzeko dira hau eskribitzerakoan eta pasatuak izanen dira zuek leitutakoan. Emaitzek ere aldarrea aldatu izanen digute seguruenik. Iragan ilunera bueltatu gara edo esperantzaz begiratzen diogu etorkizunari?

NABARMENTZEKOAK

GOIURI
ZABALETA
PILOTARIAUXURI
PORTU
TXIRRINDULARIA

Goiuri Zabaleta Leitzako pilotari gazteak sanferminetako pilota torneo irabazi du berriki Enara Gaminderekin bikotea osatuta. Zorionak Goiuri!

Denboraldi bikaina osatzen ari da Uxuri Portu lesakarra. Munduko gazte mailako trial txapelketa irabazi du taldeka eta banaka munduko laugarren sailkatu da. Zorionak Uxuri!

GIBELERA BEGIRA



2013-07-25 · TTIPI-TTAPA · 595 zk.

Joseba Igarabidekin Xaloa mintzagai

Lurreko Telebista Digitala sartu zenetik, 16 urtez lizentziarik gabe, modu alegalean emititzen ari zen Xaloa Telebista. Duela 10 urte ordea, Nafarroako Gobernuak Iruñerrian eta Nafarroa osoan emititzeko lizentzia esleitu zion. Lizentzia eman aitzinetik, «egoera nahiko larrian» zeudela azaldu zuen Joseba Igarabide Xaloa Telebistako zuzendariak. «Azken urteotan hedabideendako ematen diren dirulaguntzak ez ditugu jasotzen eta horrek estutu egin digu ekonomia. Bestetik, publizitatea da egun egun diru iturri nagusia eta publizitaterako ez dira garairik onenak». Bi lizentziak jaso izanaren «balorazio positiboa» egin zuen Igarabidek: «Lizentzia izatearekin batera, guttienez dirulaguntzak jaso ahal izanen ditugu».

erran.
eus

Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerrekako	45€
Leitza	36€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	100€
Amerika eta Australia	152€



KOLABORAZIOAK

AINTZANE ARIZTEGI BARRENETXE

Eskaintza! Bidaiatu Kubara 130 eurotan

Argi dago gure aitaxi-amatxien bizimodutik gurera alimaleko arrakala dagoela, segur aski historia osoan bi belaunaldiren artean ez da inoiz halako desberdintasunik izan. Belaunaldi bakoitza dituen baldintzen arabera bizi da, eta horren arabera definitzen ditu bere espektatibak. Gure zaharren aspirazioak arras xumeak ziren, ez zegoelako gehiagorekin amesteko modurik. Gure aspirazioak, aldiz, zeintzuk dira?

Luxuaz ari naiz, kapritxoaz, noizean behineko «gehiagieria-dosi» horiez; anitzetan gure zioriontasun maila definitzen dutenak. Gaur egungo gazteon eskaner bat eginez gero, ikusiko dugu espektatibak izan daitezkeela bidaiatzea (ahalik eta urrunen), kanpoan ahalik eta otordu gehien egitea edo kotxe ahalik eta onena erostea, bertze anitzen artean. Joera argi bat dago, dena «ahalik eta ____-en» izan behar da, ez gara txikieriekin konformatzen.

Desira horiekin batera, gure biziak gurutzatzen dituen krisi bat dugu; zeina lanak geroz eta gehiago prekarizatzen, gure eskubideak etengabe urratzen eta ingurua xehatzen ari den. Horrek, egungo gazteon bizitza geroz eta gehiago okertzen du, eta etorkizunera begira ez digu inongo bermerik ematen.

Etorkizunik gabeko belaunaldi bat, oraina ahalik eta gehien zukutzen. Etorkizun hori borrokatu beharrean, apokalipsi baten moduan «salbatu dadila ahal duena» lemaren bandera harturik, eta ematen diguten «luxuzko bizipen» horien distirarekin itsututa.

«EREDU EDERRAK DAUZKAGU AITZINEKO BELAUNALDIETAN»

«Dena egina eman dizuete» aditu dugu behin eta berriz. Egungo panoramak esaldia hitzez hitz gezurtatzen duen arren, zenbaitzuk ederki baliatu dute gure desirak manipulatzeko. Guk pentsatzeko etxebizitza eta lan duin bati baino garrantzia gehiago eman behar zaiola zenbat aldiz bidaiatu duzun urtean atzerrira edo zenbat arropa berri erosi duzun urtaro bakoitzean.

Gizarte bezala, parean ditugun erronkei erantzuteko, kontsumismoan geroz eta gutiago oinarritzen diren bizi-ereduak behar ditugu, edo are gehiago, gauza materialetan gutiago oinarritzen direnak. Ilusio faltsu hauetatik bista kentzea izanen da lehen pausoa; konturatzeko zeinen distira guti darion gure errealitateari. Aldaketa beharrezkoa da, eta ez gehiegi konplikatu, eredu ederrak dauzkagu aitzineko belaunaldietan, eta egon seguru luxu berri horiek oraingoek baino zioriontsuago ginen gaitzuztela.



AITZIBER ALMANDOZ LARRALDE

Erraten duena bera

Ispiluaren legearen arabera ingurutik hartzen duguna gure baitan dagoenaren isla da. Hortaz, ispiluaren efektu horri eskerrak gure barne mundua ezagutzeko aukera paregabea sor liteke. Kanpoan bezala barrenean bada, ikusten dugun errealitatea eta errealitate honetatik interpretatzen duguna gure sineskerien arabera izanen da. Begiratu nahi den begien arabera baita gure mundua.

Azken aldi honetan behin eta berriz neure burua ingurukoa ongi edo gaizki dagoen epaitzen nabaritu dut, nire ongi egitea bertzeen ongi egitetik gailenduz eta gehienbat 'ongi' horretan inguruak nolakoa izan behar lukeen boterearen nagusi sentituz. Horrela, hotz-hotzean erranda, nire lehengusuak dioen bezala «ze txatarra».

Egia aitzinetik, gauzak diren bezala onartu eta diren bezala perfektuak direla interpretatzeko zailtasuna nire ezaugarrietako bat denez, alderdi honekin baketu ezean eta nire inperfekzioetan perfektzioa interpretatzen ez dudan bitartean, bizitza bat edo gehiago pasa nezake munduari zein koloretakoa izan behar duen eskatzen. Eta horrek Katamaloren kantuaren letretara narama, «benetan al datorkit poza erraietatik hala ez ote nabil bere atzetik».

Oroitzen dut haur ginela, *Son Goku* hasi arte herri guzitik kukuka lasterka ibiltzen ginela eta lagunen batek amorrarazten ninduenean «erratten duna bera» erantzuten niola. Nire ezinetik, ondokoak azaleratzen zidan minarekin zer egin ez jakin eta bueltan emateko estrategia hutsa zela jakinik.

Egun, haurretik pasatu banaiz ere, nire barrenerako tarteka hitz hauek ibili ohi ditut eta era batean barrena lasaitzen zaidala sumatzen dut. Segundo batzuek gelditu eta gorputzetik sentituz amorrarazi nauen hura nire baitan nonbait goxatu ez dudan nire alderdira begiratzeko aukeratzat har nezake.

Sentitzen dugun oro gure barne munduaren isla izanik, kanpoan bezala barnean dela oroituz, epaitzen dudan hori, nire burua ez epaitzen ikasteko aukera ezin hobea eskaintzen ari zaidala konturatu naiz. Beraz, maitea, eskerrik asko hainbertzetan nire onetik ateratzen nauzulako, nire barrenaz arduratzeko oroitarazten didazulako! *Erratten duna bera*, erran duenak bere egin dezala!

«SENTITZEN DUGUN ORO GURE BARNE MUNDUAREN ISLA DA»

11 GALDERA LABUR

JOANA ESTANGA URROZ BEINTZA-LABAIENGO TRIKITILARIA

«Aitak transmititu zigun trikitixarako zaletasuna»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Beintza-Labaiengo neska jatorra eta lasaia.

Zein dira zure zaletasunak?

Gauza aunitz gustatzen zaizkit: irakurtzea, bidaiatzea, janariak prestatzea, trikitixa jotzea, igeri egitea...

Noiz hasi zinen trikitixa jotzen?

Zortzi urterekin hasi nintzen, herrian bertan hartzen genituen klaseak. Aitak transmititu zigun zaletasuna, oroitzen naiz egun batean atautxi zenaren trikitixa ekarri zidala eta ikasteko grina sortu zitzaidan.

Zein da gehien gustatzen zaizun trikitilaria?

Gaur egunekoan artean, Julen Alonso oriotarra asko gustatzen zait.

Herriko bestak izanen dituzue laster. Gogotsu?

Bai, bestazalea naiz eta herriko bestak beti bereziak izaten dira. Asko disfrutatzen ditut.

Bestetan trikitixa jotzen duzu herrian?

Bai, normalean beti karrika erronda egin izan dugu. Nahiz eta azkeneko hiru edo lau urteetan ez garen aritu, aurtan berriz taldetxo bat osatu dugu eta besta bezperan aterako gara.

Zein da ttikitatik duzun lehen oroitapena bestetan?

Goiz-goizetik hasten ginen txistularien atzetik karrika erronda egiten, eta gero gehien disfrutatzen nuena haurren jokoak izaten ziren: puzgarriak, kart-ak...



Eta gaur egun zein da gehien gustuko duzun eguna edo jarduera?

Gaur egun gehien disfrutatzen dudana eguna astelehena izaten da, herri bazkaria, sekulako giroa izaten baita. Ostirala ere, lehenbiziko eguna izanik, gogoarekin hartzen dut beti.

Zein berezitasun dute Beintza-Labaiengo bestek?

Herri berezia gara; bi auzotan banaturik gaudenez, egunak txandaturuz joaten gara. Egun

batean Beintzan izaten da besta eta hurrengo egunean Labaienen.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Lana dela eta, egonkortze lehiaketa zein oposizio prozesuarekin gabilta aurtan, beraz, horixe gainditzea dut helburu.

Eta zein dira zure asmoak epe luzera?

Ez dut horretan sobera pentsatzen, denborak erranen du!



Beherapenak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Osasuntsu jan, festaz goza

GOTZONE SESTORAIN

EH Zuzenean jaialdian izan berri naiz. Arlo askotako auzolan erraldoiari esker ondutako ekimena. Eta bereziki bihotza poztu dit ikusteak nola zaintzen duten lehen sektoreko jendea. Otordu guztietako jan-edanak inguruko ekoizleei erosiak –euren izen-abizenekin protagonista– eta auzolanean kozinatua. Itzuleran, bide bazterrean jarritako afitxei esker, zikiri jate eta kontzertuak iragarri, herrietako festen berri izan dut. Baztanera sartzean gauza bera, jaia eta tokiko kultura gastronomikoa uztartzen dituen kartelak nonnahi. Nekazaritza mundua bizirik ikusi dut han.

Baina Leitzaldera iristean bihotza goibeldu zait, Leitza eta Aresoko jaietan hainbat herri ekimenetan urtetan bertako edo inguruko ekoizleen elikagaiekin auzolanean atondutako bazkariak eta otorduak nola zapuztu diren ikustean. Arrazoiak ugariak izan daitezke: erosotasuna, ezin ulertuak, talka ideologikoak... Dena ulergarria izan daiteke, baina onargarriak ote dira

non eta tokiko elikadura sistema propio baten alde hainbeste lan egin den herri hauetan? Zentzu honetan oroitarazi nahi dut elikadura burujabetzaren eraikuntzak diferenteen arteko elkarlana eta auzolana eskatzen duela, diferentzia ideologiko eta erosotasunaren gainetik, onura kolektiboa lehenetsiz.

Alta, hodei ilunen artean, bada argi izpitxo bat aurten: Habelarte, mendialdeko baserritarren elkarteak bere gain hartu du Leitzako jaietan Atekabeltzeko sukaldea martxan jartzeko ardura. Elikadura burujabetza eta zaintza (ingurumena zein pertsonena) helburutzat dituen elkarte honetako beste ekoizle batzuen elikagai sanoekin jatekoa eskainiko du abuztuaren 10etik 15era. Janari industrial eta artifiziala gailentzen ari den garai hauetan kontrapisu lana egin nahi du, gure nekazaritza mundua eta herri txikiak indartu nahi badira herritar guztien konpromisoa ezinbestekoa dela aldarrikatuz. Jaietan ere, batu zaitez tokiko elikaduraren aldeko herrigintzara. Osasuntsu jan, festaz goza!

BOTA BERTSOA

ZIORTZA GOIA MITXELENA

BERAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER
LEHIAKETAN C MAILAN 1. SARIA

Kotxeko karneta

Doinua: Bizkarreko txerriarena



Etxeko taxistak du agenda betea eskolatik etxera egiteko buelta garajeaz uzteko behingoz bizikleta ta kutsatzeko guztiz gure «A» planeta oraintxe behar zaitut kotxeko karneta.

Denbora anitz pasa B1-en fobian autoeskolara jo dut gaur euforian testak erantzuteko gogo erorian auniztan egondu naiz uzteko zorian teorikoa hasi dut, bai teoriar.

Teorikoa pasa juxtu, ze pasada lau hilabete luze ta praktiketara kotxea kalatu zait okilan gisara semaforo laranja azkar pasa gara rotondan eskuinetik joan behar al da ba?

Zazpigarren aukeran gaintitu airoso bidera atetzeko beldurtuta oso taxia pagatzea ez zen hain eroso amatxin kotxe zahar peugeot tresmil ocho oraindik badaukat nik non egon goxo-goxo.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

'Gonbita luzatu' edo 'Gonbita egin'?

Euskaltzaindiak dioen bezala, adiera ugariko aditza da luzatu, baina gonbita luzatu, eskerrak luzatu eta gisakoak ez dira egokiak. Adiera horretako adibiderik ez da ageri Euskaltzaindiaren Hiztegian.

- ***?gonbita luzatu** > gonbita egin.
- ***?norbaiti eskerrak luzatu** > eskerrak eman.

Du aditz bati dagokion moduan, aditz-komuntadura —singularra ala plurala— osagarri zuzenaren arabera egiten du:

- Epea luzatu du.
- Amak galtzak luzatu dizkio.

Baina ZENBAT galderari erantzutean, singularrean egiten du:

- Bortz metro luzatu du (***ditu**) katea.

Bertze aldetik, *iraun* eta *luzatu* ez dira gauza bera:

- Bilerak bi ordu iraun zuen. Hau da, hasi eta bukatu arte bi ordu pasatu ziren.
- Bilera bi orduz luzatu zen. Hau da, aitzinetik ezarritako denbora baino bi ordu luzeago izan zen bilera.

Zein da zuzena

'Hola' edo 'Horrela'?

Anitzek kontrakoa usteko duten arren, bi adberbioak dira zuzenak eta hola nahiz horrela onartuak daude Euskaltzaindiaren Hiztegian. Eta halaxe oroitarazi du Maite Lakarrek *Malerreka* aldeko mintzoak liburuan. Hona hemen adibide batzuk:


- **Hola erran du.**
- **Hori beti izan da hola.**
- **Horrela ez goaz inora.**

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Osatu

Lazkao Txikiren esaldi bat ekarri dugualdi honetan Euskararen Txokora.

HONETAN



MINTZATUKO



ARI GARELAKOAN.



Makroproiektu eolikoek kontra borrokan

Eskualdean egin nahi dituzten proiektu eolikoekin kezkatuta, Arantza Bizirik, Azkua Bizirik, Igantzi Bizirik eta Malerreka Bizirik taldeak sortu dituzte herritarrek. Proiektuak geldiaraztea dute helburu, eta horrekin batera herritarrek jokoan dagoena zer den ohartzea nahi dute

G. PIKABEA

Azkua izeneko makroproiektu eolikoa Arantzako, Etxalarko, Igantziko eta Sunbillako lurretan, Irakurri izeneko bertze bat Beintza-Labaienen, Eratsunen, Ezkurran eta Saldiasen, Galardi izeneko Zubietak eta Iturennek muga egiten duten eta Zubietako antena dagoen parajeetan, Arburu izeneko bertze bat Zubietan, Arano eta Goizueta aldean bertze bat... Enpresa pribatuak egin nahi dituzten eolikoek proiektuak gogor jo dute eskualdea. Bata bertzearen gibeletik etorri dira, ustekabeak. Kasu batzuetan, enpresek udal batzuen atea jo dute, baina gehienetan Sustrai Erakuntza fundazioak ohartarazita izan dute herritarrek eta udalake proiektuen berri.

Ohartarazpena ez da hutsan gelditu. Proiektuen kontrako ahotsak zabaltzen ari dira, eta kezkatuta, herriz herri taldeak sortu dituzte herritarrek: Arantza Bizirik, Etxalarren Azkua Bizirik, Igantzi Bizirik eta Malerreka Bizirik. Euren arteko harreman sarea ere sortzen hasiak dira. Talde horiengana jo du TTIPI-TTAPAK, eta Leire Mitxelena eta Eli Iturria arantzarrarekin, Miren Olaetxea etxalarrekin, Ismael Iturbide igantziarrarekin eta Uxo Elizalde zubietarrarekin mintzatu da. Eolikoak kokatu nahi dituzten eta sarreran aipatutako hamabi udalerrietako alkateengana ere hurbildu da TTIPI-TTAPA. Ia guztiak erantzun dute. Sustrai Erakuntza fundazioko Martintxo Zelaiarekin ere gaia hizpide izan du aldizkariak erreportaje honetan.

Azkua eta Irakurri proiektuak

Martxoaren 16an Sustrai Erakuntza fundazioak jo zuen lehenbiziko alerta, egoitza fiskala Madrilan duen Zelena Renewable enpresak Bortzirietan eta Malerrekan makropoligono erraldoiak egin nahi dituela jakinaraziz, bakoitza 50 megawattetako. Sustrairen kalkuluen arabera, proiektu bakoitzean zortzi-hamar errota paratuko lituzkete. Egun batzuen buruan zabaldu zuen enpresak energia sare elektrikorak konektatzeko baimenak lortu zituela.

Martxo hondarrean, Arantzako Udalaren bitartez zabaldu ziren proiektuen izenak: Azkua (Etxalarko mendiaren izena) eta Irakurri (Ezkurrako mendiaren izena). Arantzako Udalak «prentsa bidez jakin zuen proiektuari buruzko informazio

guztia» eskatu zien Nafarroako Gobernu ingurumen eta industria departamentuei. Eta Industria Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzuko Zuzendariaren erantzuna hartu zuen; ez zutela Arantzako egin nahi duten parke eolikoari buruzko baimen eskaerarik edo dokumentazio teknikorik hartu, baina 2022ko azaroan Zelena Renewable S. L. U. enpresak berme ekonomiko jarri zituela baieztatu zuen. Berme horietako bat Irakurri proiektuari dagokio eta bertzea Azkuari. Berme ekonomiko horiek nahi-taezkoak dira energia sarera konektatzeko baimena izateko. Sortutako argindarra, berriz, Donezteben dagoen Iberdrolaren azpiestazio elektrikorak bideratzeko izanen litzateke.


Elicio enpresa Malerrekan

Aldi berean, martxoan, Elicio izeneko enpresa belgikarra ate joka hasi zen Malerreka zenbait herritan. TTIPI-TTAPAK jakin duenez, guttienez Zubietan, Ituren, Eratsun eta Ezkurra udal ordezkariak bildu da, eta Beintza-Labaiengo Herriko Etxean enpresaren telefono dei bat izan dute. Nafarroako iparraldean haize eremu batzuk detektatu dituztela eta «inbertsioak egiteko leku interesgarriak» izaten ahal direla erran omen diete; dena, ordea, ahoz.

Ernesto Dominguez Zubietako alkateak maiatzean TTIPI-TTAPAREKIN egindako elkarrizketan esplikatu zuenez, «Galardi parajeetan, 30 megawattetako instalazioa aurreikusi dute, esan zigutenez, bospasei haize errota». Partzelei buruz informazioa galdetu zutela ere adierazi zuen alkateak eta dimentsioei buruz haxe: «120 metroko altuera izanen luketela kontatu ziguten, 75 metroko hegalekin eta 150 metroko diametroarekin». Zubietako kasuan, batetik, Galardi eremua dago, Ituren-eko eta Zubietako lurretan, eta bertetik, Arburu, Beintza-Labaiena aldera.

Eolikoek neurriak

- 1994an instalatu zuten Nafarroako lehenbiziko parke eolikoa, Erreniega mendian, Euskal Herriko lehenbizikoa ere hori izan zen, eta Espainiar Estatuko lehenbizikoetako bat.
- Erreniegako eolikoek 40 metroko dorrea eta 20 metroko hegalekin dituzte, eta beraz, guztira 60 metroko altuera hartzen dute. Gaur egun paratzen dituztenek, berriz, 120 metroko dorrea eta 75 bat metroko hegalekin dituzte. Guztira, 200 bat metroko altuera hartzen dute.



Gure baserriek hamar bat metroko altuera dute, irudian ageri den Arantzako Herriko Etxeak 18 metro, eta egungo eolikoek 200 bat.



Ezkerretik hasita Uxoa Elizalde (Malerreka Bizirik), Ismael Iturbide (Igantzi Bizirik), Miren Olaetxea (Azkua Bizirik) eta Leire Mitxelena eta Eli Iturria (Arantza Bizirik).

Goizuetan eta Aranon ere bai

Urumealdea ere ez dago eoliko proiektuetatik salbu. Apirilean, Goizueta, Arano eta Hernani artean «neurri handiko poligono eoliko bat» paratzeko asmoa dutela ohartarazi zuen Sustrai fundazioak, 100 megawatt ingurukoa. Zerbait hedabideren arabera, «Euskal Herriko zentral eolikorik handienetako» izanen litzateke. Nafarroako eta Gipuzkoako eremuei eraginen lieke, eta

Sustrai gaineratu zuenez, «bai proiektuaren dimentsioengatik, bai bi autonomia erkidegori eragiten dielako, Madrildikegiten ari dira tramitazioak».

Eolikoek neurriak

Gaur egun paratzen dituzten azpiegituren neurriek ez dute deus ikustekorik 1994an Nafarroan instalatu zituzten lehenbiziko eolikoek dimentsioekin eta potentziarekin. Erreniega mendian paratu zituzten Na-

farroako lehenbizikoak, Euskal Herrian ere lehenbizikoak izan ziren, eta estatu mailan lehenbizikoetako bat. Horiek 40 metroko dorrea eta 20 metroko hegalak dituzte, eta guztira, 60 metroko altuera dute. Gaur egun, ordea, handiagoak paratzen dituzte; 120 bat metroko dorrea eta 75 bat metro dituzten hegalak. Hala, 200 bat metroko altuera hartzen dute eta potentzia aldetik ere handiagoak dira.

Informazio gutti

Informazio gutti dute esku artean plataformek, ez dago proiekturik, eta Elizaldek dioenez, «informazio lausoa da eta herritarroei ez digute helarazi».

Iturbidek proiektuaren «kokapen zehatzik ez» eta «denak suposizioak» direla dio; «baina proiektuaren izena zein den eta zein herritan izanen lukeen eragina ikusita, lurzati gehienak publikoak izanen lirateke. Hailere, eremu pribatu →

«INPAKTU IKARAGARRIA ERAGINEN LUKE»

UXOA ELIZALDE, MALERREKA BIZIRIK

«GIBELEAN ESPEKULAZIOA DAGO»

ISMAEL ITURBIDE, IGANTZI BIZIRIK

«OBREKIN MENDIA SUNTSITUKO LUKETE»

MIREN OLAETXEA, AZKUA BIZIRIK

«BULATXIKI BETIKO GALDUKO GENUKE PROIEKTUAREKIN»

L. MITXELENA ETA E. ITURRIA, ARANTZA



Gero eta jende gehiago bildu da aranztarrek egin dituzten bileretan.

Arantza Bizirik

Sustrai Erakuntza fundazioak emandako prentsa oharra argitaratu eta lau egunetara egin zuten lehenbiziko hitzordua aranztarrek. «20 bat lagun elkartu ginen, baina ondo deialdietan jende gehiago agertuz joan da, eta azkenean 50 bat bildu ginen». Iturriak eta Mitxelenak kontatu dutenez, «lauzpaborts bilera egin ditugu, dugun informazio pixarra elkarbanatu eta nondik nora jo jakiteko. Tartean Endara Bizirik eta Sustrai Erakuntza fundazioaren solasaldi informatiboa antolatu genuen, gai honen inguruan euren gaitasunak aunitz genduelako ikasteko». Azken asteotan eskuorri batzuk ere prestatu dituzte eta etxez etxe banatu dituzte informazioa herritar guztiei zabaltzeko.



Gasna Feria egunean jende aunitzek bat egin zuen Azkua Bizirik-ekin.

Azkua Bizirik

Maiatzaren 18an aurkeztu zuten Azkua Bizirik Etxalarren eta «harrezkeroztik lanean» ari dira. Olaetxearen hitzetan, «batzarretara agertzen den jende kopurua aldatzen da, baina guti goiti-beheiti 15-20 izaten gara». Ortzegunero bildu dira —utzaitlean behin— eta «makropoligono industrial bat gure mendietan ez eraikitzeko zer egin beharko genukeen planteatu, gaiari buruz ikasi, barne eztabaidak sortu, gainontzeko herriekin harremanak sustatu...» dituzte. Lantaldeak ere sortu dituzte eta hemendik aitzinera «informazioa ahalik eta gehien eta hobekien banatu» nahi dute herrian, baita «ingurumen txostena lantzen joan» ere, «proiektua sartuz gero, kontrako argudioak prest izateko». Bileretara hurbiltzeko deia egin du Olaetxeak.

—> haundia ere har lezake». Olaetxeak eta Elizalde ere «lur gehienak komunak izanzen liratekeela» aipatu dute.

Aranztarrak, ordea, haratago joan dira eta proiektua Bulatsegi edo *Bulatxiki* inguruan kokatuko duten beldur dira. «Haur, gazte zein helduentzako paseorako eta kirola egiteko egokia den eremua da. Aranztarrok hurbil sentitzen dugun parajea, zelaia, garbia... Belardi ederrak ditu, eta aziendak ere horibiltzen dira: ardiak, behiak, betizuak eta behorak; euren bazkalekua da. Askak ere badira, eta base-rietara doan ura jaiotzen den iturriak inguruan...». Proiektua eginen balitz, «*Bulatxiki* betiko galduko genuke».

Kezkak

Kezka bertsuak dituzte lau plataformek. Azkua Bizirik taldekoa, adibidez, «herriko bizian» izanzen lukeen eraginaz aritu da: «Pirinioetako hegaztien korridore bat iragaten da Etxalartik, Ursumiatsetik Gorospileraino,

Azkua erdi-erdian dago eta hegazti guzaien ibilbidea aldarazten ahalko luke. Bereziki usoei eta Usategietako jarduerari eraginen lioke, mendian sortzen diren ur iturriek, turismoari, abeltzainen jarduerari, adibidez, NPB (PAC) lortzerakoan...». Eta «betitik ezagutzen dugun eta gure arbasoek ederki zaindu duten mendi inguru hori arrot eraldatua geldituko litzatekeela» adierazi du; «obren-gatik mendia suntsitua».

Igantzi Bizirik-eko kidea, «inpaktu bisualak, ingurumenari sortzen ahal dizkion kalteak eta artzaintzan eta abeltzaintzan izanzen litzuzkeen ondorioek» kezkatzen dute. Baina aldi berean, «proiektu hauen gibelean dagoen espekulazioa» salatu

**«ONURARIK EZ ETA
EKOLOGIKOTIK EZ
DU DEUS»**

E. ITURRIA ETA L. MITXELENA, ARANTZA

du. Garbi du: «Proiektu honek «onura gutti edo batere ez dio ekarriko eskualdeari, ez ekonomikorik, ez sozialki. Herriek xarma galduko dute deusen truk».

Arantza Bizirik-ekoak ere mendian sortuko lukeen «txikizio ikaragarriaz» mintzatu dira: «errota paratzeko behar den zapatak bakarrik 24 metroko erradioa eta lau metroko sakonera izanzen luke. Gure baliorik handiena duen Arantzako zirkuan [mendiak] inpaktu basatia izanzen luke, munstro bat paisaia. Eta gainera, bertara material haundi horiek eramateko sei metroko pistak behar dira, horrek oraingo pistak baino zabalagoa behar du-tela erran nahi du. *Bulatxiki*ra

**«GARRANTZITSUA
DA GAI AZ ONGI
INFORMATZEA»**

MIREN OLAETXEA, AZKUA BIZIRIK

ailegatzeko auzo oso bat kalte-tua izanzen litzateke». Eta «bertako ekosistemari, florari eta faunari eginen liokeen kalteaz» ere aritu dira, baita osasunean izanzen litzuzkeen ondorioez ere: «soinuen, bibrazioen eta bertzelako erradiazioen bitartez, osasun arazoak eraginen litzuzgukete: insomnioa, antsietatea, migrainak, *pitidoak*...».

Antzeratsu solastatu da Mallerreka Bizirik taldeko zubietarra. Bera ere osasunean izanzen lukeen eraginaz mintzo da: «Esperientzia duten herriek kontatu duten moduan, kutsadura akustikoa handia da. Lo egiteko arazoak sortzen dira eta bueltarik ez duten gaixotasunak. Gure inguruan hain preziatua den lasaitasuna ere kolokan jarriko da». Baina ondorio gehiago ere zerrendatu ditu. Herrietan izanzen lukeen «inpaktu ikaragarria» esplikatzeko Galarদি mendia hartu du adibidez: «Zubietako herritik oso hurbil dago. Haize errota erraldoiak Zubietako plazatik pare-parean



Herritarren interesa piztu zuen hilaren 4an Igantzín egindako hitzaldiak.

Igantzi Bizirik

Duela hilabete eta erdi inguru sortu zuten Igantzi Bizirik taldea eta Iturbidek ТТИП-ТТАРА erran dionez, gaur egun, «50 bat partaide gara». Aitortu duenez, «ondoko herrien mugimendurekin jarraipena izatea beharrezkoa iruditzen zaigu, gaierekin errazago erlazionatzeko». Uztailaren 4an Sustrai Eraikuntza fundazioarekin hitzaldi informatiboa antolatu zuten eta herritarren interesa piztu zuen. Orain, «ondorengo hilabeteetarako agenda prestatzen eta adosten» ari direla adierazi du. Hemendik aitzinera ere lanean segitu nahi dute «gurekin nahi duten guztia ezin dutela egin ikusarazteko. Ezin dugu geldirik egon. Guk ez badugu gure etxea defendatzen, nekez defendatuko digute ezagutu ere egiten ez gaituzten horiek».

geldituko lirake eta paisaia itsustuko lukete. Orain arte zubietarrok herria txukun mantentzen saiatu gara eta orain ezin dugu onartu kanpoko enpresa batzuk gure herriari partxe moderno hori muturraren aurrean paratzea eta gure paisaia izorratzea».

Kalte ekologikoez ere ez da atzundu: «hegaztietan eta beste espezieetan galera eraginen luke, mendiak urratu ikaragarriko pistak eraikiz, lur mugimenduak, zuloak, elektrizitatea garraiatzeko eraikiko diren kableen egiturak... Basoak, belardiak, ira-zelaiak eta iturriak desagertzeko arriskua, animalia batzuek ospa eta hegazti asko erroten kontra akabatu, elikadura katea hautsi, eta modu berean uraren zikloa». Arkeologikoki, berriz, «mendiak suntsitzerakoan, bertako menhir eta cromlechak suntsituko lituzkeela» gaineratu du.

Alderdi ekonomikoa ere paratu du mahai gainean, hau da, «oraindik gure herrietan bizirik

den lehen sektorea zapalduko lukeela». Eta gehiago ere bai: «ehiza desagertuko litzateke eta hegaztien gutxitzea nabarmena izanen litzateke. Turismoa eta horrekin loturiko lanbideak ere kaltetuak izanen dira, izan ere, gure mendiak eta paisaiak dira turistak erakartzen dituztenak, ez haize errota eta mendi guztia urratzen duten pistazabalak».

Giroa herriz herri

Hasi baziren hasi, lanean ari dira plataformak eta tarte horretan bilerak, hitzaldiak, egun osoko ekitaldiak, eskuorriak... egin dituzte. Herri guztietan sumatu dute ezinegona: «Jendearen artean kezka nabaria da, horren adierazle, bileretan gero eta jende gehiago hurbil-

«BERRIZTAGARRIAK DIRA ATERABIDEA BAINA HOLA EZ»

ISMAEL ITURBIDE, IGANTZI BIZIRIK



Malerreka Bizirik-ek maiatzaren 20an aurkezpena egin zuen Iturenen.

Malerreka Bizirik

Maiatzaren 20an egin zuen Malerreka Bizirik herri plataformak bere aurkezpena Iturengo plazan eta geroztik «zenbait bilera eta ekintzen bat edo beste antolatu ditugu», dio Elizalde. Kontatu duenez, momentu honetan «herritarren kontzientziazioan eta informazioaren transmisioan» paratua dute arreta. Gaineratu duenez, «garbi dugu enpresa haundi hauek negozioak egitera etorri direla hona eta ez beraiek saltzen duten moduan guri dirua ekartzera». Eta gehiago ere bai: «Azpimarratu nahi dugu ez gaudela errota eoliko edo energia berriztagarrien kontra. Inposatutako makroproiektu eoliko hauek gure herrietara ekarriko lituzketen kalteak zein diren ikusirik jasangarritasuna aldarrikatu nahi dugu».

du da», erran dute aranztarrek. Igantziarrak ere «jende gehienari proiektu hauek ez zaizkiolaria batere gustatzen» onartu du: «Jendeak ez dio onurarik ikusten eta ez du nahi gure kontura betikoez sakelak betetzea. Espekulazioa eta interes pribatuak daude gibelean».

Etalartarra ere kontent dago jendearen erantzunarekin, «aspaldiko partez jende gehien bildu duen aurkezpena eolikoena izan zen eta gasna feria egunean paratu genuen mahaira ere jende andana hurbildu zen. Horrek jendeak gaian interesa eta informatzeko gogoia duela erran nahi du».

Zubietarra, ordea, ez da hain baikor solastatu: «Espero baino jende gutxiago agertu da hitzal-

dietara. Denon iritzia ez da berdina, eta agian nire espektatibak altuegiak ziren...».

Udalak eta administrazioak

Enpresek udal batzuen atea jo izana ez dute begi onez hartu lau taldeetako kideek. «Laster egia bihurtuko den beldur gara», aipatu du Elizalde. Olaetxearen hitzetan, «gure eskualdean muturra sartu» duten seinale da udalekin bildu izana eta kezkatzeko iruditzen zaio. Baita Mitxelenari eta Iturriari ere: «Kezkatzeko informaziorik ez ematea edo informazioaren zati bat bakarrik ematea da. Horrelako eragina duen proiektu batek herritarren onespina izan beharko luke. Zelena Renovable ez da ez udalarengana, ez herritarrengana hurbildu. Guk dugun informazioa prentsatik lortua da. Gure kasuan, enpresarengana ere jo dugu informazio eske, baina ez dute erantzunik eman».

Iturbideren irudiko, «hagitz garrantzitsua da udaletan →

«ELKARLANAK INDAR HANDIA EMATEN DIGU»

UXOA ELIZALDE, MALERREKA BIZIRIK

«Herritarrak bildu eta indarra erakusten badute proiektuak geldi daitezke»

MARTINTXO ZELAIA SUSTRAI ERAKUNTZA FUNDAZIOA

Sustrai Erakuntza fundazioa izan da eskualdean egin nahi dituzten makroproiektu eolikoen berri eman duena. Urteak daramatza ingurumeneari eragina duten gisako proiektuak aztertzen eta eskualdean ere hainbat hitzaldi informatibo eman ditu. Ezaguna dute gaia, eta Sustrai kidea den Martintxo Zelaiarekin bildu da TIPI-TTAPA.

Eolikoen proiektuak ugaritzen ari dira gure eskualdean. Zer ari da gertatzen?

Nafarroan hainbat eta hainbat eoliko paratu dituzte, batez ere erdialdean eta Erriberan, eta erraten ahal da Iruñetik beheiti-ko eremua bete-betea dagoela. Baina estatu eta Europa mailako plangintzek diote gero eta eoliko eta fotovoltaiko gehiago paratu behar direla, eta hala, Nafarroan, Iruñetik goiti begiratzeko hasi dira. Horrela ailegatu dira enpresak zuen eskualdera. Lehenbiziko pausoa elektrizitatea sarera konektatzeko baimena lortzea izaten da, eta hori lortuta, eolikoak paratzeko leku bila hasten dira. Segur aski, orain horretan ariko dira enpresak, eolikoak jartzeko lur bila, jabeekin tratua egin nahian.

Eskualdean hainbat hitzaldi egin dituzue. Zein giro sumatu duzue?

Hitzaldi guztietara jende aunitz etorri da eta jakin-mina agerikoa da. Aunitzek arazoa ikusten dute eta ez daude batere konforme gertatzen ari denarekin. Mugimendu polita egin daiteke zuen eskualdean.

Zer balantze eginen zenuke Nafarroan energia berriztagarriari lotuta gertatzen ari denarekin?

Balantze txarra. Nafarroan Europatik eta Espainiatik heldu diren

plangintzekin segitzen dute, eta plangintza horiek ez dira batere ongi eginak. Energia berriztagarriak onak dira, bai, egin behar dira, baina ez horrela. Leku urbanizatu eta neurri txiki azpiegiturak jarri egin behar dira, eta justu kontrakoa egiten ari dira. Horrez gain, ez gara ohartzen nolakoa izanen den gure etorkizuna. Orain kontsumitzen dugu energia kontsumitzen segitzen badugu, Lurra planeta janen dugu. Hortaz, lehenbiziko pausoa gizarte mailan energia kontsumoa murrizteko planifikazioa egitea izanen litzateke, eta hori martxan paratuta, energia berriztagarriak paratzea. Gaur egungo eredu ez da bideragarria. Gobernuen enpresen esku uzten dute dena, eta ez luke horrela izan behar.

Nafarroako Energia Planean ezarritako instalazio berriztagarrien helburuak bete dira, baina proiektu gehiago baimentzen ari dira...

Bai, gaur egun indarrean dagoen energia plana 2018an paratu zuten martxan, eta hor 2030eko eoliko kopurua bikoiztu behar zela bildu zuten. Bada hamar urtetarako zen plana, lau urtez egin dute, 2022rako dena osatua zegoen. Eta horretan segitzen dute. Eoliko kopurua berriz ere bikoiztuko dela erraten ari dira, baita eguzki panelen parke gehiago eginen dituztela ere. Oraindik ez dakigu zenbat, baina ez da batere onargarria.

«IRUÑETIK BEHEITI DENA BETE ETA ZUEN ALDEAN HASI DIRA BEGIRA»



Martintxo Zelaia hitzetan gaur egungo eredu ez da bideragarria.

Nafarroan eoliko eta eguzki panelen bidez ekoizten denaren zati handi bat kanpora bideratzen da...

Bai, joan den urtean, % 30 edo gehiago kanpora esportatu zuten. Hori elektrizitatea da. Eolikoek eta eguzki panelek elektrizitatea sortzen dute, baina elektrizitatea ez da erabiltzen dugun energia bakarra, erregai fosilak aunitzez gehiago kontsumitzen ditugu. Eguneke eta urteko momentu batzuetan, Nafarroan ezin dugu kontsumitzen dugun elektrizitate guztia produzitu, haizeak ez duelako beti jotzen eta eguzkiak ere ez. Badira sortzen den elektrizitatea kanpora esportatzen dugun momentuak ere, baina badira esportatu ezin eta eolikoak eta eguzki panelak gelditu behar diren momentuak ere, eta hori gertatzen ari da. Estatu mailan, aurtengoa eolikoak eta eguzki panelak gehien gelditu behar izan dituzten urtea izan da. Adibidez, demagun eguerdian eguz-

«EOLIKO GEHIAGO PARATZEA EROKERIA HUTSA DA»

ki panelak jo eta ke ari direla, eta haizea ere badela. Elektrizitate guztia berriztagarria da, baina ezin dugu onartu elektrizitate gehiago, eta panelak eta eolikoak gelditu behar dituzte, ez delako elektrizitate gehiago kontsumitzen. Hemendik aitzinera hori normala izanen da, gero eta eoliko gehiago paratzen ari direlako. Baina elektrizitatearen kontsumoa ez da igotzen. Urteak pasatuta, berdintsu edo beheiti egiten ari da. Beraz, orain erregai fosilen kontsumoa nola murriztu daitekeen planifikatu beharko lukete, eta bitartean, ez jarri eoliko gehiago Nafarroan.

Berriztagarrien proiektuak egiteko baimena lortzeko tramitazioak malgutu dituzte...

Gero eta azpiegitura gehiago paratu nahi dituzte eta horretarako tramitazio luzeak egin behar dira. Hasteko, konexio baimena lortu, ondotik lurra bilatu, eta proiektua eginda, adibidez, Nafarroako Gobernuan aurkeztu. Orduan hasten da tramitazioa, eta bide luzea da. Bertzeak bertze, ingurumen inpaktuaren txostena aurkeztu behar dute, hori jendaurrean paratu alegazioak aurkezteko, ondotik alegazioak aztertu eta Nafarroako Gobernuak txosten bat egin eta

enpresari bidali behar dio... Hainbat buelta dira eta azpiegitura bat egiteko bartz urte behar izaten ahal dira. Orain, dena agudo egin nahi dutenez, baimenak lortzeko tramitazioak murriztu dituzte, tartean proiektua aurkeztuta alegazioak egiteko dagoen epea. Gobernuan proiektua aurkeztu eta jende aitzinean paratuta, orain arte 30 egun balioduneko epea izaten zen alegazioak egiteko. Hori hagitz gutti da. Bada orain, erdira murriztu dute. Ukrainako gerraren dekretua baliatuz, 15 egun balioduneko epera mugatu dute. Nafarroan oraindik ez dute halakorik egin, eta orain arteko proiektu guztiak 30 egun balioduneko epea eduki dute, baina estatuko bertze erkidego batzuetan 15 eguneko epea aplikatu dute. Epe horrekin aunitzez ere zailagoa da: mila orrialdeko proiektua begiratu, aztertu, txostena egin, bidali... Ezinezkoa da. Area go lan hori boluntarioek denbora librean egiten dutela eta aunitzetan uztailean edo abuztuan, oporretan gaude-nean, aurkezten dutela kontuan hartuz. Ea zer gertatzen den zuen eskualdean.

Zein mezu luzatuko zenieke eskualdeko herritarrei?

Herritar guztiak plataforma batean bildu eta indarra erakusten badute, hau guztia gelditzen ahal da. Hagitz inportantea da proiektu hauek gelditzea eta bertze eredu batzuen inguruan hausnartzea. Bereziki hagitz interesgarria iruditzen zait zuen eskualdean gertatzen ari dena; plataforma aunitz eta indartsuak sortzen ari dira. Bide batez, aipatu nahi nuke, Nafarroa osoko plataformak elkartu eta NEETEN Nafarroako Energia Eraldatzen koordinadoran bildu direla. Udan eta udazkenean hainbat mobilizazio antolatuzko asmoa du eta erne egon!

—> lanean zein ari diren, holako gaietan indarra egiten ahal baitute. Azken boladan herri aunitzetan udal lanaren inguruan dagoen gogo falta kezkarria da. Denok elkartu behar dugu lanerako, gero berandu izan daiteke». Gaineratu duenez, «ofizialki oraindik ez dugu hartu-emanik izan udalarekin. Hala ere, udaleko kide aunitz gure taldean daude eta ez dugu zalantzarik behar denean laguntza hartuko dugula». Igantziarren kasuan, herriko elkarteekin ere harremanetan jarriak dira.

Arantzako eta Etxalarko taldeak ere udalekin harremanetan jarriak dira. Aranztarren hitzetan, «Arantzako Udala proiektu suntsitzailer honen kontra» dago eta Etxalarko kasuan, «udal ordezkariak hasierako bilerara etorri ziren eta plataforma sortzea ongi ikusi zuten. Nahiz eta beraiek kanpoan gelditu, euren laguntza emateko prest agertu ziren».

Elizalde azaldu duenez, Malerreka Bizirik plataformak «udal guztietara jo du informazio eske, «baina oraindik ez dugu erantzunik hartu».

Bertzetik, gobernuen jarrera kritikatu dute: Elizalderi «kezkatzekoa» iruditzen zaio isiltasuna, eta «kolaborazionismoaren usaina» hartu dio. Iturbidek, berriz, «gobernuak eta goi kargudunek beti interes pribatuak edo aberatsen interesak defendatzen dituztela» salatu du: «Hori ez da kontu berria. Igantzi bezalako herrietan Nafarroako Gobernuaren aldetik ez dugu apenas arretarik izaten, segur aski ez dute mapan kokatzen ere jakinen». Horregatik garrantzitsua iruditzen zaio «landa eremuko herriak altxatu eta hemen gaudela erratea».

Eta administrazioari begira, Mitxelenak eta Iturriak kritikatu dutenez, «holako proiektuek guk emandako dirulaguntzekin egiten dute aitzinera, baina ez dago inolako informaziorik».

Energia berriztagarrien izenean
Energia berriztagarrien gaia puri-purian dago azken boladan

Euskal Herrian, eta gurea ere ailegatu da. Berriztagarrien gibelean hori baino gehiago dagoela diote elkarrizketa honetako bartz kideek. «Nor dago berriztagarrien kontra?», galde-tu du Iturbidek: «Ja inor ere ez. Estrategia hori euren interesak gordetzeko erabiltzen dute».

Uste berekoak dira gainerakoak. Aranztarrek halako proiektuek «berriztagarrietatik ez dutela deus» diote, «ikusi bertzerik ez da egin behar zer suntsipen egiten duten. Gainera, sortuko litzatekeen energia kanpora bidaltzen dute, ez litzateke herrian geldituko. Kontuan izanda Nafarroan sortzen den elektrizitate kopurua kontsumitzen dena baino handiagoa dela, zertarako behar ditugu haize errota gehiago?»

Elizalde «berriztagarrien izen ona aprobeztatu» nahi izatea leporatu die enpresei: «herritarrentzat zerbait positiboa da berriztagarria eta hortik jotzea trikimailu bikaina da. Baina

«GURE HERRIAK GUK DEFENDATU BEHAR DITUGU»

ISMAEL ITURBIDE, IGANTZI BIZIRIK

«GUREAN MUTURRA SARTU DUTE ETA KEZKATZETAKO DA»

MIREN OLAETXEA, AZKUA BIZIRIK

«MEHATXU HANDI BATEN AURREAN GAUDE»

UXOA ELIZALDE, MALERREKA BIZIRIK

«PROIEKTU HAUEK BERRIZTAGARRITIK EZ DUTE DEUS»

E. ITURRIA ETA L. MITXELENA, ARANTZA

ikertzen hasiz gero, ohartuko gara ez dela jasangarria, ez dugula energia hori behar». Bi kontu aipatu ditu: «haize errota bat sortzeko eta hori gure mendietan paratzeko erabili beharko luketen energia erregai fosiletatik lortutakoa da. Energia horri buelta emateko haize errota horrek urte saila lan egin beharko lituzke. Beraz, zer berriztagarri mota da? Bestalde, 25 urte inguruko iraupena dute. AEBetan 1980tik eolikoekin ari dira lanean eta 2012an bazituzten 14.000 errota abandonatu haizerik hoberenetako guneetan. Hau nahi dugu inguruan?».

Etxalartarrak Zelena Renobaleren kasua aipatu du: «Kandako inbertsio enpresa bat dago Zelena Renobaleren gibelean. Gainera, energiaren balantze neto bat eginez gero, mota honetako parkeek aunitzetan ez dute deus lortzen, hau da, erakitzen gastatzen den energia eta martxan dagoenean sortzen dutenaren artekoa berdina da».

Hausnarketa

Igantziarrak argi du: «berriztagarriak dira aterabideak, baina ezin dira horiek erabili espekulazio hutsetarako». Kontsumo eredu «aldatu beharra» ikusten du, «baina beti bezala, ahulena egin behar du esfortzua. Guk energia kontsumoa murriztu behar dugula dioten horiek energia kantitate lotsagarriak eskatzen dituzten proiektuen alde egiten dute».

Olaetxeak bertze aterabide bat bilatzearen beharra proposatu du; «herriarentzat ona izanen litzateke Energia Berriztagarrien Komunitate bat sortzea, hau ere Europak bultzatua, herritarrok energia nola eta non sortu erabakiko genukeena, fakturak merkatzea lortuz eta energian subiranotasun gehiago lortuz». Bide beretik, «mundu finituan bizi gara» nabarmendu nahi izan du, «'lehen mundua' deituan, lurra jasaten ahal duena baino gehiago kontsumitzen dugu. Energia gutiago edo modu efizienteagoan kontsumitu behar da». —>



UNAI MIRANDA BERROETA
GOIZUETAKO ALKATEA

«Goizuetako Udalak ez du enpresekin harremanik izan eta ez du inolako berririk izan eoliko enpresen proiektuaren inguruan. Baina proiektu eoliko batek izan dezakeen dimentsioa ikusirik, enpresa pribatua zein publikoa izan, garbi daukat era horretako proiektuak aurrera eramateko herritarren iritzia aintzat hartu beharko litzatekeela. Nire ustez, azkenaldian inguruan sortzen

ari diren Energia Berriztagarrien Komunitateak oso tresna eraginkorrak izan daitezke, energiaren inguruan informazio zehatza edukitzeko eta hartu beharreko erabakiak bertatik eta bertakoentzat hartzeko. Besteak beste, erabiltzen dugun energia kopurua murrizteko neurriak hartzeko, eskualde mailan ditugun baliabideak aztertu eta ahal den neurrian hauek erabiltzeko».



JOXAN RUIZ MINER
ARANOKO ALKATEA

«Aranoko Udalak ez du inolako jakinarazpen ofizialik jaso eta ez dakigu deus proiektuari buruz. Aranoren zentzua edo funtsa bere ingurua da, natura, eta horrelako proiektu handi batek egiten litzakeen txikizioak kezkatzekoak dira. Argi dago onurak baino gehiago kalteak izan direla. Hortaz aparte, ez zait ongi iruditzen holako parke handiak egitea eta enpresa pribatu batek egitea ere ez dugu begi onez ikusten. Herritar talde batek ere gaia mahai gainean jarri du eta beraien hitzetan, proiektu eolikia egin nahi izatea ez behar bat da gure herriarentzat, bizimoduak okerrera aldatuko diguna. Gaineratu dutenez, gure iritzia eta gizartearen zati handi batena benetan kontuan hartuko balute, baita ekosistemen degradazioa ikertzen dutenena ere, ez lukete horrela jokatu. Baina badirudi etengabeko hazkundea eta etekin ekonomikoak direla helburu nagusia zabalduko trantsizio energetikoaren eredu honetan, eta gu eta ingurua izanen gara kaltetuak».



DABID ITURRIA ALMANDOZ
ARANTZAKO ALKATEA

«Trantsizio energetiko bat gertatzen ari dela erraten digute, baina ez dago halakorik, etengabeko hazkunde batean murgilduta gaude eremu eta funts publikoak erabiliz irabazi pribatuak bermatzeko eta hori ez da zilegi. Euskal Herrian energia kontsumoan jasagarritzat jotzen den muga hiru aldiz gaintzen dugu. Desazkundeko politikak martxan paratzeko ordua da, eta ez energia kontsumo basatiak dituzten proiektuak: AHTa, olatu artifizialeko igerileku erraldoiak... Natura babestea gure ardura da, bere ongizateak ekarriko du jendearena, eta alde-rantziz. Arantzan egin nahi duten proiektuari dagokionez, Zelena Renewable enpresa ez da Arantzako Udalarekin kontaktuan jarri. Gure aldetik, udalak hirigintza planean aldaketa aztertu eta egiten den bitartean, herriko lur ez urbanizagarrian energia berriztagarrien plantak paratzeko obra baimenak etetea erabaki du».

→ Desazkundearen gaia atara dute arantzarek: «Hor dauzagu AHT edo Erdiz eta Aroztomia hemen ondoan, eta honela milaka adibide. Desazkundea proiektu horiek geldiaraziz hasten da, hemendik hasten ahal gara energia aurrezten. Egunerokotasunean gero eta arau gehiago paratzen dizkigute energia kontsumoa guttitzeko, baina aldi berean ikaragarriko energia kontsumoa behar duten proiektu horiek bulkatzen dituzte inolako beharrik izan gabe». Eta gisa berean, «administrazioak, arrazoi ekologikoak argudiatuz, herrian argindarra sortzeko genuen presa suntsiarazi izana» salatu dute: «Eta eolikoek ez al dute kalterik egi-

ten bertako ekosisteman? Nork erabaki behar du gure lurretan zer egin? Bertan bizi garenek edo interes pribatuak dituzten multinazionalak?»

Herria defendatzeko deia

Lau taldeak elkarlanean hasi dira, Iturriak eta Mitxelenak dioten bezala, «informazioa pasatu eta elkar laguntzeko», eta elkarlan hori «beharrezkoa» iruditzen zaio Iturbideri: «Tikiak gara eta indarrak batuz gero, aukera gehiago ditugu gure borroka ikusarazteko». Olatxeak ere «hagitz positibotzat» du eta Elizaldek «elkarlanak indar handia ematen digula» gaineratu du. Endara Bizirik Lesakako taldearen laguntza



JON TELLETXEA JUANENEA
BEINTZA-LABAIENGO ALKATEA

«Ohitu garen bizi maila mantendu nahi badugu, nahitaezkoa dugu energia, eta energia hori modu berriztagarrian sortzen bada, berez, txarra ez luke behar. Momentuz, askorik ez dakigu inplikaturik gauden udaletan eta uste dut Nafarroako Gobernuan berdintsu daudela. Herri batzuetan, Elicio enpresarekin aurrez aurreko bilerak izan dituzte. Beintza-Labaienen enpresa horren dei bat izan dugu, esanez 30 MWko energia kontzesio edo subasta batean aurkeztokotan zeudela, eta horretarako sei haize errotako parke bat egiten luketela Eratsunen, Beintza-Labaienen eta Zubietan: gure lurretan errota bat, Eratsunen lau eta Zubietan bat. Dena oso airean dago eta informazio gehiago beharko da deus baino lehen. Momentu geopolitiko korapilatsuan gaude. Badirudi Europak berriztagarrien aldera jo duela eta gurean ere aukera hori izan daitekeela. Dena den, herriak eta herritarrek esan beharko dute; denen artean hartu beharko dira erabakiak».



XABIER ETXARTE MIKELESTORENA
ETXALAROKO ALKATEA

«Energia berriztagarrien alde nago, baina gure mendiak eta ondareak hondatuz lortzen badira, erabat kontra nago. Azkua Bizirik-en hasierako bilera informatiboetara joan izan naiz eta herritarren gehiengoak bezala, gure mendietan ez dugu makroparke eolikorik nahi. Gainera, Etxalarren, hegaztien migrazioak garrantzi handia du eta Etxalaroko Usategiak kultur ondare izendatuak ditugu, eta zaindu eta babestu behar ditugu. Horrelako proiektu batek eragin eta kalte handiak ekarriko dizkigu, positiboak baino gehiago, negatiboak; gure eguneroko bizimoduaren eta batez ere etorkizuneari, kalte nabarmenak sortuko ditu. Arantzako Udalaren pausoei segituz, Etxalaroko hirigintza planean parke eolikoak sortzeko lizentziak eten ditugu. Oraindik udalean ez da proiekturik sartu eta sartzeko behar diren pausoak eta babesa emateko. Eskertzekoa da Azkua Bizirik egiten ari den lana».

ere eskertu nahi izan du zubietarrak; «hasieratik laguntzeko prest agertu dira».

Bada lau plataformek bat egin duten bertze kontu bat ere: «Ez gara kontziente zenbaterainoko larritasuna duten holako proiektuek». Egitasmoek aitzinera egiteko arriskua ikusten dute guztiek, «Europatik datozen arauak salbuespenak egiten dituzte aunitzetan holako makroproiektuentzat eta nahiz eta pisuzko argudioak aurkeztu kontrara egiteko, alde batera botatzen ahal dituzte», oroitarazi du etxalartarrak.

Igantziarrak «gibelean guk ezagutzen eta entenditzen ez ditugun arrazoi eta kalkulu aunitz» daudela gaineratu du. Eta

zubietarrak Erdiz Biziriken adibidea ekarri du mahai gainera, «hainbeste borrokaren ondotik» hor dagoelako proiektua. Aranztarrek, ordea, badute itxaropena, eta «herritarrok indarra egiten badugu, hau gelditzeko ahalmena dugula uste dugu».

Hori lortzeko bidean, Olaetxeari «informatzea» inportantea iruditzen zaio; «gai berria eta zaila da, eta iritzi bat edo bertze eman aitzinetik, informazio ona hartu dutela ziurtatzeko» deia egin die herritarrei.

Aranztarrek, igantziarrak eta zubietarrak lanerako deia egin dute: «Ez dugu enpresa pribatu baten informazio hutsarekin gelditu behar, hagitz polita saltzen dute, baina errealitatea

ez da hain polita, eta onurarik ez eta ekologikotik deusez duen proiektu hau geldiarazteko elkar hartu behar dugu», erran dute Iturriak eta Mitxelenak. Igantziarrak «gure herria eta eskualdea guk defenditu» behar dugula azpimarratu du; «ezin dugu bertzeen esku utzi gure etorkizuna eta ongizatea».

Eta Elizaldek ere hala uste du: «gure herriak eta mendiak guk zaindu behar ditugu. Kanpotik etorritako enpresa handi horiek ez dute inolako interesik guri onurak ekartzeko, interes ekonomikoengatik etorri dira. Mehatxu handi baten aurrean gaude eta ez badugu laster esku hartzen gure inguruak sunsituko dituzte».



JABIER BERAU MIKELARENA
ITURENGO ALKATEA

«Udalak ez du iritzi pertsonalik emanen gai honen inguruan. Erabakitze momentua ailegatzan denean, herriaren iritzia kontuan hartuko da. Enpresarekin lehen kontaktu bat izan dugu, aurrez aurreko bilera batean. Momentuan, proiektuaren xehetasunik ez dugu».



JAIONE ZABALO JUANTORENA
EZKURRAKO ALKATEA

«Martxoaren 24an Elicio enpresako ordezkariekin elkartu ginen Ezkurako Udaletxean egin genuen bileran. Enpresa horrek Nafarroa iparraldean haize eremu batzuk detektatu dituztela eta inbertsioak egiteko leku interesgarriak izan daitezkeela jakinarazi zuen. Proiekturik ez dugu ikusi, hau da, idatzizko ezer ez ziguten aurkeztu bilera horretan. Udalaren helburua informazio guztia herriarekin partekatzea da. Ez dakigu zein bide hartuko duen afera honek, baina, proiektu bat aurkeztuko balitz, herri galdeketa bat egitea ezinbestekoa ikusten dugu eta, horrela, herriak zer nahi duen ezagutu ahal izanen genuke».



JUANKAR UNANUA NAVARRO
IGANTZIKO ALKATEA

«Gaur-gaurkoz ez da proiekturik aurkeztu, ez Nafarroako Gobernuan, ez Igantziko Udalean, beraz, ezin dut proiektuari buruzko iritzirik eman halakorik ikusi ez dudalako. Halere, etor daitekeen arako prestatzen ari gara. Herriaren interesak defendatzeko borrokatuko dugu eta hasiera batean ez dirudi etxe aitzinean errotak edukitzea interesgarria izaten ahal denik. Baina, erran bezala, ez dakigu deus, ez dugu inolako harremanik izan enpresekin eta ez dugu proiektuaren berririk. Agian heldu den astean bertze zerbait buruz solas egin behar dugu, baina gaur hau da erraten ahal dudana. Jendearen kezka ulertzen dugu, eta mobilizatzea albiste bikaina da. Zerbait defendatu edo aldarrikatu behar bada, ezin dugu pentsatu bertze batzuek konponduko dutenik. Frogatua dago udalek, beren kabuz, ezin dituztela zenbait gauza aldatu; beraz, zenbat eta jende gehiagok bat egin, orduan eta aukera gehiago aldarrikatzen dena lortzeko».



IÑIGO ZUBELDIA TELLETXEA
SALDIASKO ALKATEA

«Enpresa pribatu batek gure herrietan proiektu eoliko bat egin nahi izatea gai serioa da. Kanpotik etorri, eta proiektua beraiek nahi duten tokian egitea eta sortutako energia kanpora eramatea gu guztion gainetik pasatzea litzateke. Saldiasako Udalarekin ez da inor jarri harremanetan eta ez dugu proiektuaren inguruko inolako xehetasunik; kanpotik iritsi zaiguna baino ez dakigu. Zergatik dute enpresa handiek energia berriztagarriak beraiei komeni zaien lekuan jartzeko bidea erraztua eta partikular batek etxeko teiltuan jartzeko hainbeste zailtasun? Vianako Printzean katalogatutako etxeek, adibidez, debekatu dute halakorik izatea».



AMETS INDA GORRIARAN
SUNBILLAKO ALKATEA

«Guk momentuz ez dugu inolako informaziorik hartu. Udalari ez diote inongo eskaerarik aurkeztu eta gaur egun ez dakigu Sunbillako eremuan eraginik izanen duen edo ez. Dakigunez, Nafarroako Gobernuan proiektua aurkeztu ere ez dute egin. Energia sare elektrikora konektatzeko eskaera egin dute, aurretiazko tramite gisa, baina proiekturik ez dute aurkeztu. Hortaz, informazio gehiago hartu arte ezin dugu posizio konkreturik hartu. EH Bildu energia trantsizioa gauzatzeko pausoak ematearen alde dago, beti ere herritarrekin batera eta herri bakoitzaren errealiterara moldatuta. Gauzak horrela, energia komunitate lokalak lehenesten ditugu».

Abeltzaintzako azpiegiturretan lanak eginen dituzte

Ur hornidura hobetzeko, abeltzaintzako azpiegieturak berritzeko eta pista eta bideak hobetzeko lanak egiten dituzte

A. LARRETxea

59.019,96 euroko inbertsioa eginen du udalak abeltzaintzako hainbat azpiegitura hobetzeko. Diru kopuru horretatik 23.000 euro Nafarroako Gobernuak emandako diru laguntzetatik lortu dituzte. Lanak esleituak dira eta irailaren 30erako bukatuak egon beharko dira. Hiru motatako lanak eginen dituzte, ur hornidurakoak, abeltzaintza azpiegituretakoak eta bideak eta pistak hobetzekoak.

Arluxe-Posta eremua

Abeltzainek erabiltzen dituzten luberrientzako ur hornidura sistema hobetu nahi dute, are gehiago azken udak zein idor joan diren ikusita. Ur-bilketa Arluxe parajearen inguruan egiten dituzte. Posta parajea, bertalde, estrategikoa da, bertara ailegatzeko erraza delako, eta ongi komunikatua egonik, ur-puntu bat paratuko dute mendiko suteak itzaltzeko bitartekoekin.

Labiagako eremua

Labiagako eremuan 2 m³-ko edukiera duen depositu berti-

kal bat hornitzen duen ur-bilketa prekariora dago. Puntu horretatik, inguruko herri-beldardi guztiak Idoia leporaino hornitzen dira urez. Udalak, gabezia horiek ikusita, sistema hori berritu nahi du. Horretarako, 10 metro goitiagotik hartuko dute ura, depositu berria. Depositua berria egonen den tokira iristeko, Labiagako abereen itxegitik pista erreparatu beharko da, depositua deskargatu eta jarri ahal izateko. Bertara irisgarritasuna ahalbidetzeko, Etxalarko Lizarietako lepora doan pistatik sartzeko bidea hobetu behar da eta horretarako lanak eginen dituzte.

Gainera, aitzineko dirulaguntza deialdian, Labiagan abereendako itxegi bat eraiki zuten. Bi espaziok osatzen dute itxegia eta bertze ataka metaliko berri bat paratuko dute. Horrela, Etxalarrera doan pistatik heldu den ganadua, bi noranzkoetan, erraz ailegatu daiteke itxegira. Bertalde, itxitura osatzeko, aurreko deialdian instalatutako itxura berreko 15 metro lineal berri paratuko dute.



Labiagako eremuan berrituko duten ur depositua. UTZITAKOIA

Sarralla

NA-121A errepidera abereak ez ateratzeko, pistaren hasieran kanadiar hesi bat dago. Hesi hori orain 12 urte jarri zuten hormigoia zuzenean itsatsita. Hesiaren azpikaldea lurrez bete dago eta ondorioz landaretza hazi da bertan, eta abereak gainetik pasatzeko moduan gelditu da. Orain egiten den moldaketarekin erraz desmuntatu eta garbitzeko moduan geldituko da.

lasola

Paraje honetan borda baten ondoan dagoen itxegia osatu nahi dute, esparru itxi eta harripaleku berri batekin. Modu horretan abereei tratamendu sanitarioak errazago aplikatuko zaizkie eta ibilgailuetan kargatzeko ere onuragarria izanen da.

Larhun

2022an itxegia berri eraiki zuten Larhunen. Itxegi zaharra berriaren aldean, hagitz egocera ahulean dago eta altuera txikia du. Hori hobetzeko letroradura berri bat eraikiko dute azken muturra handituz, ganadua kamioiekin edo erremolkeekin errazago kargatu ahal izateko.

ESLEITUTAKO LANAK IRAILAREN 30ERAKO BUKATU BEHARKO DITUZTE

Ekoizlea zara?

Hurbileko eta kalitatezko produktua bilatzen ari gara.

Salmentak bultzatzeko laguntza behar baduzu edo bezero gehiagorengana iritsi, hau da zure aukera.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu hurrengo zenbakira:

☎ 649 783 783

Ricardo Baroja eskolako komunak berrituko dituzte

Lehenengo solairuko komunak berrituko dituzte eta irisgarritasuna hobetu eta komun mistoak eginen dituzte

A. LARRETKEA

Udalak Ricardo Baroja Eskola Publikoko lehen solairuko komun guztiak berrituko ditu uda honetan. Pasa den mendeko 70. hamarkadan eraiki zuten eskola, eta komunak zaharkituak daude.

Udan eginen dituzte lane-kin, komunak garai berrietara egokituak izanen dira, bai irisgarritasun aldetik eta baita generoaren aldetik ere, mistoak egiteko erabakia hartu baitute.

Komunak berritzeko lanak esleituak daude jadanik, eta

45 eguneko epean eginen dituzte. Kurtso hasierarako dena prest egotea litzateke asmoa.

Udalak ia 100.000 euroko inbertsioa eginen du eskolako lanak egiteko, baina, horietatik 66.000 euro Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen bidez hartuko ditu bueltan.

Udalak uda sasoiaren aprobe-tzatzen du ikasleak oporretan dauden bitartean eskolan lanak egiteko, iaz, erraterako, zaharkituak zeuden leihoak moldatu zituzten.

Goldatzek piztuko du aurtengo bestetako txupinazoa

A. LARRETKEA

Besten atarian dagoeneko erabaki dute zein izanen den abuztuaren 2ko txupinazoa pizteko arduraduna: Goldatz Berako Emakume Taldea. Helburu bikoitza du aukeraketak, alde batetik emakumeek urte luzez egindako lana aitortzea, eta aldi berean Goldatzek bere sorreratik egindako lana nabarmentzea.



lazko txupinazoa. TTPI-TTAPA

Bestabusa asteburuan

Azken urteetan bezala aurten ere bestabusa zerbitzua izanen da Bortzirietako gainontzeko herrietatik Berara etortzeko. Ortziralean eta larunbatean izanen da zerbitzua, hilaren 5ean eta 6an.

Lehenengo autobusa 20:45ean aterako da Arantzatik eta Igantzitik pasata 21:15ean ailegatu da Berako Euskaldunara.

Bigarren autobusa 23:00etan abiatuko da eta 23:30ean ailegatu da. Etxalartik, aldiz, 21:30ean eta 23:45ean aterako dira autobusak eta Lesakatik pasata ailegatu da Berara 22:00etan eta 00:15ean.

Itzulerako autobusa Lesakara 03:30ean, 05:30ean eta 07:15ean aterako da Euskaldunatik. Etxalarrera, Igantzira eta Arantzara joateko, aldiz, 04:00etan eta 06:00etan, hau ere Euskaldunak.

Nafarroako Aizkora Txapelketa irabazi du Nerea Sorondo herritarrek

TTPI-TTAPA

Nafarroako hainbat herri kirol txapelketa jokatu dituzte Iruñeko sanferminetan, eta tartean Nerea Sorondo herritarrek Emakumezkoen Nafarroako Aizkora Txapelketa irabazi zuen uztailaren 8an

Sorondok 18 minutu, 26 segundo eta 47 milaren behar izan zituen lanak osatzeko. Erraz nagusitu zen bigarren sailkatu zen Maika Ariztegi hiru minutu baino gehiagoko aldea atera baitzion. Xanta Souza izan zen hirugarren eta Beatriz Tanco laugarren.



Nerea Sorondo erdian, txapela irabazi berritan. NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

Giro ederrean joan dira aurten ere sanferminak

Beti Gazte sokatira taldeak botatako txupinazoarekin hasi zen eta Kalaxka peñak 50. urteurrena ospatu zuen

AITOR AROTZENA

Beti Gazte sokatira taldeak piztutako txupinazoarekin abiatutako sanferminak bikain joan dira aurten. Zehazki, Paxkual Taberna eta Karmele Pikabea izan ziren lehen suziria piztu zutenak, baina aurten Nafarroako, Euskal Herriko eta Munduko txapelketa irabazi dituen taldeko tiralari gehienak izan ziren herriko etxean. Egun handian, beti bezala, ezpata dantzariak izan ziren protagonista. Aurten, lehen aldiz, Beñat Ordoki izan zen aitzinesku eta berekin batera, talde gazteak dantzatu zuen *Zubigainekoa*, aurten emakume bakarrarekin. Peñen egunean, berriz, protagonismorik handiena 50 urte bete dituen Kalaxkak izan zuen. Taldeko argazkia ere atera zuten plazan. Baina Añarrak taldekoak ere hamargarren urteurreneko kamisetekin atera ziren eta falta diren kideen aldeko brindisa ere egin zuten Latsagakoek. Peñen jaitsiera, ohi denez, jendetsua izan zen eta eguraldi beroa zela eta, peña kide aunitzek,

plazako balkoietatik botatako uragatik ez bazen, Onin errekan bustita bukatu zuten ibilaldia.

Erraldoien saskiak

Hondarreko egunetan ere giro ederra izan zen, etxeagoa. Erraldoien konpartsa karrizak karriz ibili ondotik, irailaren 9ko 75. urteurreneko ospakizuna antolatzen laguntzeko bi saskien zozketa egin zuten eta dagoeneko saridunak ere agertu dira: Nati Arretxeak eskuratu du 'Ixabel' saski urdina eta Marcela Mejíak 'Fernando' saski gorria. Txosnen Batzordeak antolatutako Fermintxo Rock jaialdian, Janus Lester bezalako talde ezagunekin batera, herriko musikariek osatutako Hago Isilik taldea lehen aldiz aditzeko aukera izan zen. Azken egunean, Bankako Menditarrak taldearen kantuak, herri bazkaria eta Puro Relajo taldeak plazan paratutako giroa izan ziren aipagarrienak, *Gaixoa Ni* kantatu aitzinetik.

Guttiago falta da 2024ko sanferminetarako.



Beti Gazte sokatira taldeko kideak eta udal ordezkariak txupinazoan. A. LARRETXEA



Beñat Ordoki aitzinesku lehen aldiz, 'Zubigaineko' jendetsuan. A. LARRETXEA



Kalaxka peñak mende erdia bete du sanferminak girotzen. A. AROTZENA



Puro Relajo taldeak giro ederra paratu zuen plazan hondar egunean. A. AGIRRE



Nati Arretxea eta Marcela Mejíak irabazi dituzte saskiak. UTZITAKOAK

Kontrabandoa hobeki ezagutzeko gaueko ibilaldiak

Uztailiko eta abuztuko larunbat arratsetan eskaintzen dute zortzi kilometro inguruko txangoa, hamar euroren truke

IRUNE ELIZAGOIEN

Gaueko bederatzietan Etxalarko plazatik abiatuta, hiru ordu inguru irauten duen eta zortzi kilometro inguru dituen ibilbideak egiteko aukera izaten ari dira uztail eta abuztuko larunbatetan, kontrabandoaren inguruan gehiago ikasteko.

Pertsona bakoitzeko 10 euroko prezioa du txangoak eta gutienez lau laguneko taldea osatu behar da egin ahal izateko. Linterna eta mendiko botak eraman behar dira. Erreserba, guttienez egun bat



Lan Gaua apirilean. ARTXIBOKOA

aitzinetik egin behar da, telefonoz deituz.

Gogoratu behar da apirilean Gau Lana ekitaldiak ere arrakasta izan zuela herrian.

Lizarietarako errepidea lanak egiteko moztua

Uztailaren 17tik aitzinera herritik Lizarietara doan NA-4400 errepidea itxita dago, bideko bihurtuneetan moldaketa lanak egiteko. Halere, auzoko bizilagunen eta Lizarietako bentako langile eta hornitzaileen pasabidea baimenduko da.

Hilobien garbiketa abuztuaren 6a baino lehen egin behar da

Etxalarko Udalak jakinarazi du kanpionatu hilobien jabeek hilobiak garbitu behar dituztela abuztuaren 6a baino lehen. Egun horretatik aitzinera garbitu gabe daudenak udal langileek garbituko dituzte, eta jabeari 10,15 euro kobratuko zaie.

Udako gaueko zinea Bor Bor taldearen eskutik

Uztailaren 15ean, Bor Bor taldeak antolatuta, udako zinea ekimenaren barruan, *Annaluise eta Anton* filma ikusteko aukera izan zen frontoian. Abuztuaren 12an bertze film bat ikusteko aukera izanen da.



JABIER IRIARTE



UTZITAKOIA

Herriko pilotariak eta gurasoak Labriten

Pilotan aritzen diren haur eta gurasoek, uztailaren 9an ateraldia egin zuten Iruñeko sanferminetara, Elordi eta Martijak, Peña II.a eta Albisuren kontra jokatuako partida ikustera. Labriteko giro ederraz gozatzeko aukera izan zuten eta eguna borobiltzeko etxerakoan Lorentxon afaldu zuten.



LEIRE IRIBARREN

Hogei haur ari dira udalekuetan

Uztailaren 3an hasi eta 28ra arte, egunero hogei haur inguru dabilta Etxalarko Udaleku idekietan. Leire Iribarren eta Ainara Otxoteko begiraleekin, eskulanak, herri kirolak, txangoak, igerilekura goiz pasa eta bertze hainbat ekintza egin dituzte.

KAGU
LIBURUDENDA
Tel./Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAN FOTOKOPIAK
- USURU EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDEKARIAK



Mattin Eugi eta Unax Etxarte lanean Iruñean. NHKF

Mattin Eugi eta Unax Etxarte Nafarroako txapelkun arpanan

Herriz Herri txapelketan parte hartuko du Igantziko herri kirol taldeak eta abuztuaren 6an Igantzin izanen dute jardunaldia

ANA ETA ITZIAR

Herriko kirolari gazteek udan ere lanean segitzen dute. Iruñeko sanferminetan, erraterako, erakustaldi polita eskaini zuten. Kimu, haur eta kadete mailako kirolarietako proba konbinatu maila ederra erakutsi zuten Iruñean oraingoan ere. Bertzalde, Mattin Eugi Mendizabalek eta Unax Etxarte Etxeberriak Nafarroako kadete mailako arpana txapelketan parte hartu zuten. Lehen saria eskuratu zuten gainera eta Nafarroako txapela herrira ekartzea lortu zuten. 22 segundoko aldea atera zioten bigarren izan ziren Unai Fernandez eta Irati Aguasi eta 58 segundokoa hirugarren izan ziren Maider Ruz eta Joritz Biurruni.

Herriz herri txapelketako saioa abuztuaren 6an

Honetaz gain, bertze talde bat ere sortu da herrian, nagusiagoak direnak. Hauek, Nafarroako herriz herriko txapelketan parte hartzen ari dira. Gainera, txapelketa honetako saioa herriko plazan jokatu dute abuztuaren 6an. Igandean



Etxarte eta Eugi txapelekin. UTZITAKOA

12:00etan hasiko den jardunaldian, herriko kirolarietako batera, Arantza, Sunbilla eta Iturgoienekoak ariko dira. Txapelketa uztailaren 22an hasi zen Beran (han Arantza, Arraioz eta Sunbillarekin aritu ziren herritarrak) eta Santiago egunez Elizondon aritu ziren Arraioz, Basaburua, Berriozar eta Txantrea. Beraz, bigarren saioa izanen da Igantzikoa herriko taldearentzat. Abuztuaren 19an Burlatako Ezkazabal plazan ariko dira Basaburua, Berriozar, Iturgoien eta Txantrea izanen direlarik. Finala abuztuaren 26an Antsoainen jokatu dute lau talde onenek. Ea bada igantziarrak sailkatzea lortzen duten.

Igantzi Bizirik plataforma sendoa ari da lanean

Kezka handia sortu da Azkua parke eolikoaren proiektuaren inguruan. Jende aunitzek erakutsi du laguntza emateko asmoa, eta Igantzi Bizirik plataforma sortu da. Bertze ekin-tzen artean, herritar orori parke eolikoaren eragina zein izanen den jakinarazteko, eskuorri bat prestatu dute. Uztailaren 17an egindako bileran ordezkariak izendatu ziren lan talde bat osatu eta inguruko herrietako plataformekin koordinatzeko. Parte hartzeko gonbidapena ere egin du Igantzi Bizirik taldeak.

Jubilotekako azken saioa egin dute uztailaren 19an

Ikasturte osoan herriko nagusienak Jubilotekan asteazkenero elkartu dira hainbat ekintzetan aritzeko. Uztailaren 19an egin zuten azken saioa, eta berendu-afariarekin eman zioten akabala aurtengo denboraldiari. 21 lagunekin agurtu dute saioa, buruilean berriz ere martxan jartzeko intentsioarekin. Hemendik gonbidapena luzatu nahi dute orain arte joan ez direnei atak zabalik dituztela jakinarazteko. Bertzalde, abuztuaren 3an mediku kontsulta itxia egon dela gogorarazi dute.



UTZITAKOA

19 neska-mutiko ari dira udalekuetan

Aspaldiko haur kopururik handiena dute udalekuetan. Denera 19 neska-mutikok eman dute izena eta kopuru horrekin lortu dute udalekua hilabete osoan eskaintzea, uztailaren 3tik 28ra. Hiru monitore ari dira lanean, aski gustura dabilzan hurrekin: Maialen, June eta Josu.

OLA SAGARDOTEGIKO
XXII. PILOTA TXAPELKETA
Abuztuaren 3tik 20ra

HERRIAK:
BAZTAN, BARAÑAIN,
BORTZIRIAK, ETXALAR,
LESACA, IRUN,
HONDARRIBIA, OIARTZUN,
LEITZA, HERNANI, URRUÑA,
ERRETERIA, SOPELE


Mezka suoa 102
IRUN 943 623 130

informazio gehiago 
olasagarrotegia.eus

Herri kaxkoan turismo etxe gehiagorik ez

Udalak hartutako neurri horren bitartez, alokairua sustatu nahi du eta «herria despopulazio egoera larrian» dagoela oroitarazi du

NEREA ALZURI

Herrian bizi nahi dutenek etxebizitza alokatzeko aukera izan dezaten, udalak herri kaxkoan turismora zuzenduriko etxe gehiago sortzea debekatu du.

Jakinarazi duenez, gaur egun 268 ohatze eskaintzen dituzte turistentzako herrian. Nafarroan jasangarritasunaren langa edo muga % 35ean dago eta Arantzán % 45ekoa da. Udalaren ustez, «datuak garbi erakusten du gisa horretako zerbitzuen hazkundera gertatzen ari zela» eta aldi berean, «herrian bizi nahi zuenarentzat alokatze-



Goiko Karrikaren irudia.

ko etxebizitza eskasia zegoen». Neurri horren bitartez, alokairua sustatu nahi du udalak. Horrekin lotuta, gainera, oroitarazi du, «Arantzán despopulazio egoera larrian dagoela».



UTZITAKO ARGAZKIAK

Udalekuen azken egunak

Hilabete ederra pasatzen ari dira herriko 32 gaztetxoak udalekuetan. Ane, Idoia eta Irati begiraleek, goizeroko prestaturiko plangintza gozatzen segitzen dute. Gutti gelditzen zaio autengoari akabailara ailegatzeko, baina argazkiak ikustea aski da zein gustura ibili diren jakiteko!

Udal taldea osatzeko bilera egingen du ortziralean EH Bilduk

N. ALZURI


Joan den maiatzaren 28ko hauteskundeetan herrian ezin izan zuten udalerako taldea osatu. Hori horrela, heldu den udazkenara arte taldea osatzeko aukera denez, ortzirale honetan, uztailaren 28an, 19:00etan, Ekaitza Elkarte,

zerrenda osatzeko lehenbiziko saiakera egingen dute.

Herriko EH Bilduk «izaera ezkerrekoa, independendista eta feminista duten herritar guztiei» egin die bilerara joateko eta parte hartzeko gonbita, «zerrendan aurkezteko asmorik ez izanda ere».

Eolikoek kontra erne segitzen du Arantzán Bizirik-ek

Arantzán lurretan egin nahi duten makroproiektu eolikoaren kontra lanean segitzen du Arantzán Bizirik taldeak. Berriki etxez etxe eskuorriak banatu ditu, eta hala, proiektuak zenbaterainoko kalteak eta ondorioak sortuko lituzkeen konturatzeko nahi du.



Eskuorriak etxez etxe banatu dituzte.

Udako kontzertuak prest dituzte Arantzán Aterpean

N. ALZURI

Bertze urte batez, udako kontzertuen zikloa prest du Arantzán Aterpeak. Asteburu honetan emanen diote hasiera eta irail hasierara arte musikari entzutetsuen zuzeneko emanaldiekin gozatzeko aukera izanen da.

Larunbat honetan, uztailaren 29an, Joseba Irazoki eta Agarren kontzertua izanen da, 20:00etan. Abuztuaren 5ean, 19:30ean Arima Soul System (Lidia Insausti eta Makala) gonbidatu dute eta ondotik, 22:30ean, DJ Makalak hartuko du

lekukoa. Abuztuaren 11n, ortziralean, 19:30ean, Janus Lester talde beratarrazuzeneko emanaldia egingen du. Abuztuaren 26an, Keu Agirretxea eta Mikel Arakistain musikarien txanda izanen da, 19:30ean. Udako kontzertuen denboraldia ixteko, irailaren 2an, 22:30ean, reggae doinuak izanen dira Dingwash taldearen eskutik.

AEKren barnetegiak

Aurten ere, AEKko barnetegiak hemen dira. Uztailean bi talde ibili dira eta abuztuaren bertze bi talde etorriko dira Aterpera.

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Iturruneubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (NA)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklínika.es
@liderahortzklínika






Unai Bertiz, orga jokoan Iruñean. Txapelkunorde izan zen. UTZITAKOA

Herri kirolariak bikain Iruñeko sanferminetan

Esti Gastearnak Nafarroako txinga eramate txapelketa irabazi zuen eta Unai Bertiz bigarren izan zen orga jokoan

MAIDER PETRIRENA

Ohikoa denez, Iruñeko sanferminetan herri kirolak ere garrantzia izaten du eta Nafarroako hainbat txapelketa jokatzen dira Foruen Plazan. Horien artean, uztailaren 8an jokatutako Nafarroako orga jokoan edo gurdi eramate txapelketan, Unai Bertiz Anzizar herritarrak parte hartu zuen, bigarren postua lortuz, Oscar Aguas txapeldunetik hurbil. Hondar egunean, uztailaren 14an berriz, Nafarroako emakumezkoen txinga txapelketa jokatzen da. Honetan, Esti Gastearna herritarrak txapela



Esti Gastearna txapeldun. UTZITAKOA

ekarri zuen, marka ederra eginez (25 plaza eta 2,84 metro). Kontuan hartu behar da, bigarren egin zuen Claudia Cobos ez zela hamar plazetara ailegatu. Zorionak bikote.

Herriko txirrindulari gazteek ederki segitzen dute

Nafarroako selekzioak aukeratuta, ekainaren 29tik, ortzeguna, uztailaren 2ra, igandea, eskolarteko Espainiako txapelketak jokatu dira Cartagegan (Murtziako autonomia). Bertan Ander Larraburu Hermandorenak parte hartu eta ederki disfrutatu du esperientzia polit honetaz. Uztailaren 14ko asteburuan berriz, Sabiñanigon (Aragoi), MTBXCO Espainiako Txapelketa jokatu da. Bertan, Nafarroako selekzioak aukeratuta Koldo Herrera Urroz herritarrak parte hartu du. Zorionak denei.

Sunbillako V. mendi bizikleta ibilaldia irailaren 10ean

Sunbilla BTT taldeak bosgarren aldiz antolatutako Sunbillako BTT ibilaldia irailaren 10ean egingen dute. Izena emateko aukera aspaldi zabalik dago eta gainera, izena ematen duten lehenengo 200 txirrindularientzat maillota opari ere izan da. Kopuru hori gainditu da, baina oraindik irailaren 1a arte apuntatu daiteke. Izen ematea www.rockthesport.com webgunearen bidez egin behar da. Federatuek 22 euro ordaindu behar dute eta federatu gabekoek 27 euro. Proba ez da lehiakorra.



UTZITAKOA

Ludoteka zerbitzua martxan udan

Urtero-urtero guraso elkarteak antolatzen duen ludoteka zerbitzua ekainaren 21etik abuztuaren 9ra bitarte martxan dago. Hezitzaile lanetan, Uxue Armendariz Aizkorbe, June Ayesa Rekarte eta Uxue Ibarra Mariezkurena herritarrak dabilta. Hainbat jarduera egiten dituzte goizetan.

Herencias y Gestión

Zuregandik hurbil gaude

Mugaz gaindiko herentzien onarpena

Gizarte segurantzaren pensioen eskaera

Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

Amezitia eta Parrokia karririk itxita asteburuetan

Larunbat eguerdian itxiko dituzte bi karririk eta igande arratsera bitartean autoak ezinen dira bertatik pasa

OIER ZULAIKA DONEZTEBE

Udalak jakinarazi duenez, Amezitia eta Parrokia karririk berriz ere itxiko dituzte hemendik aitzinera larunbat eguerdian hasi, eta igande iluntzera arte. Zehazki, larunbat goizetan bi karrika horietan autoz ibiltzen ahalko da, eta 13:30ean sartuko da indarrean neurria. Asteburuez gain, besta egunetan ere itxiko dituzte bi karririk. Ez da neurri berria, pandemiaren aitzinetik ere ixten baitzituzten bi karririk.

Itxierak bi helduru argi ditu: herritarren ongizatea susta-



Parrokia karrika. UTZITAKOA

tzea herriguneko karriketan lasaiago ibili ahal izateko eta bi karrika horietan dauden komertzioei eta ostatuei laguntzea.

Doneztebeko Gazte Burrunbak batzordean sartzeko jendea behar du

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Gazte Burrunbak batzordean sartzeko jendea behar du. Hala jakinarazi du bere instagram kontuan paratutako mezu batean. «Arrazoi ezberdinetatik zenbait partaidek bertze batzuei erreleboa pasatzeko garaia ailegatu zaiela erran

digute». Horregatik, batzordean sartzeko jende bila ari direla zabaldu dute. «Gazte Burrunbak denon elkarlanarekin funtzionatzen du, eta aurrera segitzea nahi badugu denen inplikazioa behar dugu». Bileran bat ginen dute heldu den egunetan.

30 haur baino gehiago Osasuna Fundazioak antolatutako campusean

OIER ZULAIKA DONEZTEBE

Azken urteetan bezala, Osasuna Fundazioak antolatuta, futbol campusa egiten ari dira egun hauetan Doneztebeko futbol zelaietan. Astelehenean hasi ziren eta ortziralerara bitarte elkartuko dira goizero 09:00etan hasi eta

14:00ak bitartean futbol zelaietan. Denera, 30 haur baino gehiago apuntatu dira campusera.

2-3 taldetan banatuta ariko dira futbolaz gozatzen, eta futbol entremenduez gain, eguraldiak laguntzen badu, igerilekura ere joanen dira.



Berako Erlanki proiektuko ekoizleak. CEDERNA GARALUR

Bortzirietako, Malerrekako eta Bertizaranako ekoizleak liburuxkan

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako, Malerrekako eta Bertizaranako ekoizleen eta eraldatzaileen informazioa jasotzen duen liburuxka kaleratu du Cederna Garalurrek Arantza, Bera, Beintza-Labaien, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Etxalar, Ezkurra, Igantzi, Ituren, Lesaka, Oiz, Sunbilla, Urroz eta Zubieta herrietako udalen laguntzarekin.

Tokian tokiko elikadura sistemak indartzeak duen garrantzia kontuan hartuta, eskualdeko produktuak ezagutzera emateko eta bertako kontsumoa

sustatzeko herritarrentzako tresna xume bat izateko helburua du. Zuzeneko salmenta egiten duten edo merkaturatze bide laburrak erabiltzen dituzten ekoizle edota eraldatzaileek hartzen dute parte bilduman beti ere, nekazaritza eredu iraunkorren oinarrituz.

Denera 15 proiekturen inguruko informazioa dago bildua eta bakoitzak egiten duen lana azaltzeaz gain, produktuak erosteko lekuak eta ekoizleen eta eraldatzaileen kontaktua ere ageri dira. Gida Cederna Garalurren webgunean lortu daiteke PDF formatuan.



ARTXIBOKOA

Eratsungo Kuadrillaren Eguna larunbatean

Eratsungo Kuadrillaren Eguna ospatzeko, paella jatea egiten dute uztailearen 29an herriko plazan. Bildutako dirua Gerna Nafarroako Gaixotasun Arraroen eta Ezohikoen Taldearentzat izanen da. Paella, ogia, postrea eta sagardoa 20 eurotan salduko dute eta etxera eramateko aukera ere izanen da.

Giro bikaina izan dute aurten ere herriko bestetan

Hainbat ekitaldi arrakastatsu izan ziren, baina pilota partidak eta euskal pentatloiak jendetza erakarri zuten plazara

ARKAITZ MINDEGIA

Uztailaren 13an hasi zituzten bestak Iturenen, ortzegunarekin. Haurrentzako herri kirolak, frontenis eta pilota txapelketako partidak, dantza saioa, Mendaur Txikitixa eskolako kalejira, zopak eta afaria eta dantzaldia izan zituzten ospakizunak abiatzeko. Ortziralek iganderako aste hondarrean ere ez zen ekitaldirik falta izan. Ortziraleko protagonista nagusiak haurrak izan ziren, eta egun osoko puzgarriekin eta arratsaldeko txokolatearekin gozatua hartu zuten. Larunbatean, bertzeak bertze, pilota partidak izan zituzten. Ados pilota elkarteak hirugarren aldiz antolatutako Plazaz Plaza txapelketako lehen jardunaldia jokatu zuten Iturengo pilota plazan, bestetako egitarauaren barrenean. Naroa Elizalde Etxekolonea zubietarrak ezin izan zuen garaipenarekin hasi txapelketa eta Oskozekin batera, 17-22 galdu zuen Arrieta eta Orbegozoren kontra. Baina dena ez zen txapelketa ofiziala izan Iturenen eta lehia-

ketako partidaren aitzinetik, Ados pilota elkarteak pilotari ttikienekin egiten duen lana argi eta garbi azaldu zen, Mallerreka aldeko hainbat pilotari gaztetxoek, aunitz Iturengoak, bertze zenbait partida jokatu baitzituzten, ikuskizun ederra eskainiz.

Ondotik, mahaiaren bueltan bildu ziren bazkaltzeko. Giro ederra izan zuten herri bazkarian eta bazkalondoan ere, Tuku-tuku txarangarekin dantzan eta karrikaz karrika ibili ondotik, errekan akitu zuten aunitzek.

Pentatloia eta Estitxuren kantaldia akitzeko

Igandean pentatloi erakustaldiarekin jendetza bildu zen plaza inguruan. Modalitate honetan punta-puntakoak eta txapeldun diren kirolariak aritu ziren, Amalur Arbelaitz, Nerea Arruti, Xabier Zaldúa eta Andoni Iruretagoiena *Izeta*, eta indar erakustaldi bikaina egin zuten. Bestak modu ederrean akitzeko, Estitxuren kontzertu akustikoak belarri guztiak goxatu zituen.



Emakume eta neska pilotariak partida bikainak jokatu zituzten. ADOS PILOTA



Ortzirale arratseko paella eta zingar jatean jendea bildu zen. AINARA MINDEGIA



Larunbateko herri bazkariaren ondoko kalejira errekan akitu zuten batzuk.



Euskal pentatloiko kirolariak ikuskizun bikaina eman zuten. MARIA LARRETxea



Estitxuren ahots goxoarekin akitu ziren bestak. MARIA LARRETxea

Mendietatik betizuak biltzeko eskaria Zubietan

Asura mendi inguruan dabiltzala jakinarazi du udalak, «identifikaziorik eta saneamendurik gabe»

FERMIN ETXEKOLONEA ZUBIETA

Zubietako Udalak bando bidez jakinarazi du «identifikatu eta saneamendurik gabeko betizuak dabiltzala Asura mendia inguruan» eta «eragozpen eta arrisku egoerak sorrazten dizkietela bai artzainei, bai mendizaleei». Hortaz, «jaberik baldin badute, bildu eta Asuratik lehenbailehen erretiratzeko» eskatu du.

Jaberik ez badute edo 20 eguneko epean jaberik agertuko ez balitz, «jaberik ez dutela» ulertuko du udalak, eta hala, «basati bihurtu dira eta ondorioz hartu beharreko neurriak hartuko dira, 59/1992 Foru Dekretuaren 126.3 artikuluan ezarritako prozeduraren arabera». Beraz, epe hori akututakoan, «animalia basatitzat joko dituzte betizuak, ehiza ondorioetarako».



Betizua mendian. ARTXIBOKOA

Mikel Santesteban aizkoran

Lehen aldiz aizkoran lehiatu da Mikel Santesteban herriko gaztea. Nafarroako hirugarren mailako kanporaketa jokatu zuen uztailearen 14an Iruñean. Hamahiru aizkolariren artean zazpigarren izan zen eta ez zuen abuztuaren 16an Arantzan jokatu den finalerako boskotean sailkatzea lortu, baina gustura dago egindako lanarekin eta horretan segitzeko asmoz dabil.



UTZITAKOA

Joaldunak Baluartan eta Erreterian

Uztailean ohikoak diren bi ateraldi egin dituzte aurtien ere Zubietako joaldunek. Alde batetik, Baluarteko euskal kantuen egunean parte hartu zuten eta Erretereriako Erromeria Egunean. Bietan ere giro bikaina izan zuten eta beraiek ere giroa berotzen lagundu zuten.



75 lagun bildu ziren kantu bazkarian. BASAGAIZ KULTUR ELKARTEA

75 lagun umore ederrean bildu ziren Leokadiako kantu zaharren egunean

BASAGAIZ KE LEGASA

Uztailearen 15ean kantu zaharren eguna ospatu zuten legasarrak Leokadia ermitan. Eguna frexko joan bazen ere, giro beroan gozatu zuten egunaz.

75 lagunek parte hartu zuten larunbateko bazkarian. Doneztebeko Santamaria jate-txeko catering-ak prestatutako menu goxoa jan ondotik, Angel Mariezkurrenak, Aitor Ibarrek eta Beñat Mitxelenak zuzenduta, kantuan eta dantzaren arratsalde zoragarria pasatu zuten. Besta giro ederra sortu zen.



Mariezkurrena, Mitxelena eta Jalisko.

Baselizara ospakizunak irailaren 9 eta 10eko Lokari egunean bueltatuko dira. Larunbatean altxaferoa eta ezkila-jotzea izanen dira eta igandean meza, bazkaria eta Hauspolariek musika taldea.



TESTUA ETA ARGAZKIA. BASAGAIZ KULTUR ELKARTEA

12 haur Legasako eskulan tailerlean

Uztaileko bigarren astean eskulan tailerra antolatu dute Legasan, astelehenetik ortzegunera, lau egunez. 12 lagunek eman dute izena eta Iciar Mikelperizena irakasle dutela eskulan politak egin dituzte: pastaz egindako eguzki-lore bat, telazko poltsak edota motxilak eta koadro bat.

BEINTZA-LABAIEN



Aizkora saioak ez du hutsik eginen aurten ere egitarauan. ARANTXA ITURRALDE



Herri bazkarian kantuan eta bertsotan aritzeko aukera izanen da.

Herriko bestak abuztuaren 4tik 7ra ospatuko dituzte

Igande eguerdian aizkora saioa izanen dute Labaienen eta astelehenean herri bazkaria Beintzan

ARANTXA ITURRALDE

Ekitaldiz gainezka datoz aurten ere Beintza-Labaiengo bestak abuztuaren 4tik 7ra. Ohi bezala, egun batean auzo batean eta biharamunean bestean izaten dira ospakizunak, ortziraleko altxafero eta zopekin hasi eta asteleheneko herri bazkarira bitarte.

Ortziralea, abuztuak 4 Labaien

20:00etan altxafero eta herriko trikitilariekin karrika erronda. 21:00etan zopak herriko ostatueta eta Ittur-ondon. Gaeuz, DJ Endara.

Larunbata, abuztuak 5 Haurren Eguna Beintza

10:00etan Iturengo txistulariekin karrika erronda. 11:00etan Letrekin dantzan emanaldia (Haizea Loirarekin). Goizez eta arratsaldez puzgarrri eta haur jokoak. 17:00etan mus txapelketa. 18:00etan txokolatada. Arratsaldez eta gaeuz dantzaldia Triкитеens taldearekin.

Igandea, abuztuak 6 Labaien

10:00etan Iturengo txistulariekin karrika-erronda. 11:00etan Meza Nagusia. On-



Bizikleta ikuskizuna, joan den urteko bestetan.

dotik, luntxa. 13:00etan aizkora saioa: Bihurri-Otaño, Gabirondo-Txikia eta Etxeberria-Larrañaga bikoteak ariko dira. Arratsaldez haur jokoak. 21:00etan tortilla eta postre lehiaketa. Gero, su-artifizialak. Arratsaldez eta gaeuz DJ J&J.

Astelehena, abuztuak 7 Beintza

10:00etan Iturengo txistulariekin karrika-erronda. Goizean zehar haur jokoak herriko haurrek eta gurasoek antola-

tuak. 14:00etan herri bazkaria, Anjel Mariezkurrena, Aitor Jalisko eta Agerralderekin. Bertsolariak: Aitor Mendiluze eta Unai Agirre. Arratsaldez eta gaeuz, bestak akitzeko DJ J&J.

AITOR MENDILUZE ETA UNAI AGIRRE ARIKO DIRA BERTSOTAN





Lehen suziriaren ondotik zopak izanen dituzte herriko ostatuan. *FATIMA MITXEO*



Plazan dantzatzeko aukera ederra izanen da aurten ere.

Santo Domingo bestak ospatzeko prest abuztuaren 3tik 6ra

Igandeko hondarreko egunean aizkora apustua eta mus, partxis eta tortilla patata lehiaketak izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Gazteluko Santo Domingo bestak abuztuaren 3tik 6ra ospatuko dituzte eta hainbat ekitaldi izanen dira aurten ere.

Abuztuak 3, ortzeguna

17:00etan frontenis txapelketa bikoteka. 20:00etan suziriak eta ondotik txistulariak. 21:00etan zopak herriko ostatuan.

Abuztuak 4, ortziralea

11:30ean Meza nagusia eta ondotik salda eskainiko dute herriko ostatuan. Arratsaldean puzgarriak eta segidan txoko-

latea. 20:00etan dantzaldia Agerralderekin.

Abuztuak 5, larunbata

09:00etan gosaria. 12:00etan herri kirolak. 14:00etan herri bazkaria eta ondotik dantzaldia Agerralderekin. 00:00etan dantzaldia Pancho Balbuena-rekin.

Abuztuak 6, igandea

13:00etan aizkora apustua. 17:00etan mus eta partxis lehiaketa. 19:00etan tortilla patata lehiaketa. 20:00etan dantzaldia Agerralderekin eta ondotik, *Gaixoa Ni*.



Bestak akitzeko tortilla patata lehiaketa egingen dute.



Larunbat eguerdian herri kirol saioa izanen da eta igandean aizkolariak.



KULTURKARI
Diseño grafiko | Publicitate
www.kulturkari.com

Jatetxe eta ostatuak
Menuak, kartak,
mahai-oihalak...
Hainbat material
erabat pertsonalizatuta



MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

GAZTELUK OSTATUA

 948396684
  gaztelukotaberna@gmail.com
 @gaztelu_herriko_ostatua

Irailetik aitzinerako irteerretarako izen ematea ireki dute

Denera bederatzirteera eginen dituzte irailetik abendura; egun bakarrekoak gehienak, Benidormekoa eta La Palmakoa salbu

TTIPI-TTAPA

Irailetik aitzinera ere inguruko hainbat lekutara bidaiak antolatu ditu Arkupeak elkarteak. Bidaietan lehena Andorrara eginen dute irailaren 3tik 6ra, baina, bidai horretako izen ematea dagoeneko pasatua da. Hurrengo, egun bakarreko irteera izanen da, irailaren 14ra Lezora eta abuztuaren 7an, 8an, eta 9an eman beharko da izena norbere herriko delegatuarekin solastatuta.

Hurrengo bidai Benidormera eginen dute urriaren 1etik 11ra, eta izena emateko abuztuaren 21ean eta 22an elkarteko bulegora deitu beharko da. Benidormetik itzuli eta astebetera, Bazkide Eguna ospatuko dute urriaren 19an Gorraizen. Kasu horretan izena emateko norbere herriko delegatuaren bidez egin beharko da abuztuaren 21ean, 22an eta 23an.

Azaroan bertze bi irteera izanen dituzte. Lizarrara eta Lodosara irteera eginen dute 9an. Irteera horretarako izen ematean urriaren 2an, 3an



Bazkideak bidai batean. OSTAIZKA

eta 4an egin beharko da herrietako delegatuen bitartez. Azaroaren 13tik 20ra, aldiz, La Palma irlara antolatu dute irteera. Kasu horretan izen ematea bulegoan egin beharko da irailaren 18an eta 19an.

Urtea borobiltzeko Erriberriko Piedemonteko upeltegira eginen dute txangoa abenduaren 15ean. Azaroaren 6an, 7an eta 8an eman beharko da izena irteera horretarako delegatuen bidez.



Elkarteko junta eraberritua lehenengo bileran. ZALDUA

Elkarteko batzorde aukeratu berria hasia da dagoeneko lanean

TTIPI-TTAPA

Azken aldizkarian aipatu bezala, Arkupeak elkarteak zuzendaritza batzordea eraberritu zuen urteroko delegatuen batzarrean. Hemendik aitzinera Inazio Goienetxe izanen da elkarteko lehendakaria, eta Maritxu Telletxea, Kati Lasarte, Gema Gamio,

Lurdes Erbiti, Rosa Mendi-buru, Maria Pilar Albistur eta Marisa Telletxea izanen dira batzordeko kideak. Kontxi Agirre, aldiz, idazkaria izanen da. Ordezko kideak ere izendatu zituzten eta Fermin Azpiroz, Pakita Mikelarena eta Rosa Mari Bertiz izanen dira.

Udan ere hainbat ikastaro eta mendi irteera izanen dituzte bazkideek

TTIPI-TTAPA

Opor sasoiaren ere elkarteko hainbat ikastarotan parte hartzeko aukera izanen dute bazkideek. Donezteben eta Donamarian gimnasia eta luzaketa ikastaroak izanen dituzte Daniel Fiomantekin, Donezteben luzaketak Ana

Tovarrekina Arantzan yoga ikastaroa Marina Pintosekin.

Mendizaleek ere hilabeteroko martxa segituko dute. Uztaileko irteera Uhartea Arakileraren egitekoa zuten eta abuztuko dataz aldatuta, hilaren 23an Arizkunera joanen dira.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicación
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...



Hainbat euskarri

Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko









BERAKO BESTAK 2023

Egitaraua

Uztailaren 29a, larunbata

14:30ean 4x4 autoen ikuskizuna Postan. Antolatzailea: Boma 4x4.
16:00etan 3x3 kuadrillen arteko saskibalo txapelketa Toki Onako patioan.
16:30ean Plater tiroa minifoso modalitatean Lizuniagako tiro eremuan. Antolatzailea: Berako Ehiza eta Arrantza elkarte.
20:00etan Dantza jaialdia Eztegarra pilotalekuan. Antolatzailea: Gure Txokoa elkarte.

Uztailaren 30a, igandea

11:00etan Txirrindularitza proba, Berako XX. saria. Antolatzailea: Gure Txokoa elkarte.
16:00etan 3x3 saskibalo elite txapelketa Toki Onako patioan aitzinean.

Abuztuaren 1a, asteartea

22:00etan Berako gau krosa. Luzera 7,3 km. Desnibela: 300 m positiboak. Izen ematea eta informazioa: www.manttaile.com helbidean.

Abuztuaren 2a, asteazkena

11:30ean ahantzien oroimenez lore eskaintza Herriko Etxeko plazako orogarrian.
12:00etan 2023ko San Esteban besten hasiera adierazteko



Herriko Etxetik altxaferoa botako da eta ezkil-jotzea izanen da. **Aldi berrean**, ttikiendako goxokiak eskainiko dira. **Ondotik**, erraldoiak eta buruhandiak ibiliko dira, Incansables txaranga eta Ezpelur gaiteroek lagunduta.
17:00etan Ezpelur gaiteroek San Jose zahar etxean joko dute. **19:00etan** Berako txistularien kalejira Illekue-tatik herriko plazara. **19:00etan** txosnen irekiera Toki Onako patioan.
19:30ean kontzertua Toki Onako patioan Akerbeltz taldearekin. **21:00etan** dantza herrikoiak Alitzateko karrikan.
23:30ean Akerbeltz taldearen kontzertua Toki Onako patioan. **Egun osoan** Incansables txaranga karrikaz karrika ariko da.



BERA S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Ongi pasa bestak! 948 63 14 52 / 639 60 00 34 / 639 56 59 05

Zelai Ind., 42 Bera.

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

KORTA ANAKAK
AROZTEGI METALIKOA
CARPINTERIA METALICA

Ongi pasa bestak!

Alkaiaga Ind. Elubxa 1 - 31789 **LESAKA**
T/F 948 631 651
info@kortanaiak.com

ZELAIETA
tabako-denda

egunkariak, aldizkariak...
Iturlandeta • BERA • 948 631 246

ONGI PASA BESTAK

Jauzena

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta drulaguntzen gestioa

Ongi pasa bestak!

Goieko
INDUSKIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

Ongi pasa bestak!

Bidoure Ureder Ind. 2. Pi partzela 20005 Irun 943 45 45 36

ANTZUZELAI
S.L.

Ongi pasa bestak!

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK



MAITE
FELUQUERÍA MIXTA

Ongi pasa bestak!

679 493 099
948 630 483

Iturlandeta, 4-Behea
31780 Bera - Nafarroa

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Ongi pasa bestak!

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

**PI
KA
BEA**
HARATEGIA
URDAITEGIA

Ongi pasa bestak!

T. 948 631 284

Sara karrika, 7 - Agerra auzoa - BERA

**ONGI PASA
HERRIKO BESTAK!**



Ziobi 11, Alkaiaga Industriaidea.
31789 BERA Tel. 948 630 982

HAMAIKETAKO ERAMATEKO JANARIA

ETXERA ERAMATEKO MENU OSOA 9,75 €tik HASITA

948 631 017



ONGI PASA BESTAK!

Sara karrika, 7 · Agerra auzoa · BERA



Abuztuaren 3a, ortzeguna

09:30ean txistulariek diana joko dute; Ezpelur gaiteroek herrian barna joko dute. **10:30ean** meza nagusia Esteban Donearen ohoretan Berako Abesbatzak lagunduta. **Meza ondotik**, Gure Txokoa Dantza Taldeko kideek Berako Makil Dantzak eta Bordon Dantza dantzatuko dituzte txistularien laguntzaz. **Gero**, Miren Amuriza eta Josu Sanjurjo bertsolariak kantatuko dute Herriko Etxeko arkupetan. **13:00etan** Ezpelur gaiteroak Ibardinen ibiliko dira.

17:00etan Incansables barangak San Jose zahar etxean joko du. **18:00etan** Gure Txokoa Dantza Taldeak Berako Aurrekua dantzatuko du Herriko Etxeko plazan txistularien laguntzaz. **Gero**, Berako Bandaren kontzertua Herriko Etxeko plazan. **21:00etan** Dantza herrikoiak Altzateko karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **23:00etan** su artifizialak Matzada futbol zelaitik Zaragozana pirotekniaren eskutik. **23:30ean** DJ Bull Toki Onako patioan.



**Ongi
pasa
bestak**



Ibardin · Dantxarinea · Valcarlos · Behobia

Abuztuaren 4a, ortziralea

09:00etan Musika Eskolako trikitilariak eta pandero-jotzaileak Garaitarretan ibiliko dira, eta Ezpelur gaiteroek herrian barna joko dute. **10:00etan** plater tiroa ehiza ibilaldia modalitetan Lizuniagako tiro eremuan. Herrikoentzat bakarrik. Antolatzailea: Berako Ehiza eta Arrantza elkarte. **11:15ean** Incansables txarangak San Jose zahar etxean joko du. **12:30ean** Herri dantborrada Herriko Etxetik plazatik Altzateko plazara. Antolatzailea: Berako Banda. Entseua: abuztuaren 1ean. **19:00etan** Herriko Etxeko plazan. **16:00-18:00** haurrentzako jokoak: Jokai Merkatu plazan (eguraldi txarra edo sobera bero eginez gero, Altzateko pilotalekuan). **17:30ean** pilotari profesionalen arteko partidak Eztegarra pilotalekuan. Aspeko punta-puntako pilotariak. Sarrera: 30 euro, Agara prentsan. Antolatzailea: Aspe. **Ondotik**, emakume pilotari profesionalen arteko partidak Eztegarra pilotalekuan. Antolatzailea: Ados pilota. **19:00etan** Trikidantz taldearekin kontzertua Toki Onako patioan. **20:00etan** Etxera! elkartasun ekitaldia Mukixutik Toki Onako estalpera. Ibilbidea: Mukixu,

Altzate karrika, Uraldea karrika, Julio Caro Baroja pasealekua, Toki Onako patioa. **21:00etan** dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Altzateko karrikan. **23:00etan** Trikidantz taldearen kontzertua Toki Onan. **Egun osoan** Incansables txaranga karrikaz karrika ariko da.

Abuztuaren 5a, larunbata

09:00etan Irats taldeko trikitilariak eta pandero-jotzaileak Suspelan ariko dira eta Ezpelur gaiteroak Kaule auzoan. **12:30ean** erraldoiak eta buruhandiak Ezpelur gaiteroen laguntzarekin ibiliko dira Agerran. **11:00-13:00** puzgarriak Eztegarra pilotalekuan. **14:00etan** Kantu bazkaria Altzateko pilotalekuan, Sarrera: Helduak 24 euro eta haurrak 12 euro. Antolatzailea Labiaga ikastola. **16:00-18:00** puzgarriak Eztegarra pilotalekuan, **21:00etan** dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Altzateko karrikan. **Ondotik**, zezensuzkoa aterako da Altzateko karrikan. **23:00etan** Olaia Inziarte eta Des-kontrol taldeen kontzertuak Toki Onako estalpean. **23:00-07:00** Puntu Morea. **Egun osoan** Incansables txaranga karrikaz karrika ariko da.



Besta gozo eta zoriotsuak opa dizkizuegu

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

Toki Ona

Berako Udal Kiroldegia



Kirol bulegoa: 948 630 215 - info@sastrakokirola.eus

SMAZIZIOR

edariak

T./F. 948 631 557

Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA

eposta: maziziorsenper@gmail.com

EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA



MEKANIZATUAK

ongi pasa bestak!

Zalain Ind., 9 • BERA
T./F. 948 63 11 67

OROZ JANARI-DENDA

Ongi pasa bestak!



Tel. 948 630 180 • Altzate 20, BERA

DESINERA

INSEKTU-HILTZEAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



Ongi pasa bestak txurripuki! Aupa hi!

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

www.kateabike.com

Kanttonberri, 1 | BERA | Tel.: 948 631 218 | joxemi@kateabike.com



ORBEA PINARELLO moustache

MORTY

BERGAMONT

BH

LAPIERRE MERIDA

Luahi

leapaindegia • solarium • estetika zentroa

• ONGI PASA BESTAKI! •



Eztegara kalea, 20 . BERA . 948 625 742

Ansonea ostatu jatetxea

Ongi pasa bestak!



T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 . BERA



ZUBIONDO

JATETXEA-SAGARDOTEGIA

zubiondojatetxea.com

ONGI PASA BESTAK!

Alasta karrika · BERA | T. 948 625 472



Ongi pasa bestak!!!

JATETXEA · DENDA · OSTATUA



IBARDIN | BERA | NAFARROA | (0034) 948 630 723
mendimendian@hotmail.com | www.mendimendian.com

Abuztuaren 6a, igandea

09:00etan Bera kantari eta Ezpelur gaiteroak Dornaku eta Suspellitiki auzoetan ibiliko dira. 10:00etan Herriko pilotarien pilota partidak Eztegara pilotalekuan. Benjaminak, alebinak, infantilak eta helduak. Antolatzailea: Gure Txokoa elkarte. 12:00etan erraldoiak eta buruhandiak Altzate Herriko Etxera, Ezpelur gaiteroek lagunduta. Agurra Herriko Etxeko plazan. 12:30ean mubikoak dantza saioa Merkatu plazan (eguraldi txarra eginez gero Toki Onako patioan). 14:30ean herri bazkaria Toki Onako estalpean. 17:00etan Ezpelur gaiteroek San Jose zahar etxean joko dute. 21:00etan dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Alzate karrikan. Ondotik zezensuzkoa aterako da. 23:00etan Hammond York taldearen kontzertua Toki Onako patioan. Egun osoan Incansables txaranga karrikaz karrika ariko da.



ZOANSA



MARKA GUZTIEN KONPONKETA

MEKANIKA · ELEKTRIZITATEA · TXAPA · PINTURA

Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05

e-mail: zoansa@zoansa.com

Banarri, 2 • Alkaloaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

ONGI PASA BESTAK

elika
Dietetika • elkadura

DIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221

Izea, 6 behe 31780 BERA
☎ 645 70 85 12
✉ bierandueza@gmail.com

Ongi pasa bestak!



matxako
KALEFAKZIOA · GASA · ITURGINTZA
Tel.: 609 808 756 | BERA

Iturgintza lanak
Berokuntza mota guztiak
Galdaren instalazioak

"Baxi" markan eskaintza berezia.
Eskatu aurrekontua

BAXI
LA NUEVA CLIMATIZACIÓN

Gestel

KSAT

TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TD instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidarko interneta
- ▶ Internet konexio simetrikoko ultralastera
- ▶ Zuntz-optikoak

ONGI PASA BESTAK!

ERREKALDE

OSTATUA

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 630 259
Eztegara 23 BERA

«Erasotzaileek ez badakite erasorik gabe besta egiten etxean gelditu daitezela»

GOLDATZ BERA KO EMAKUME TALDEA
Bestetako txupinazoa botatzeko arduradunak

Abuztuaren 2ko 12:00etan lehertuko da besta Herriko Etxeko plazan, eta Goldatz herriko talde feminista izanen da aurten txupinazoa pizteko arduraduna. Besten antolatzailek aitortza egin nahi izan diete emakumeen borrokari, eta baita Goldatzek bere sorreratik egin duen ibilbideari ere.

2015eko udan sortu zuten herriko emakume batzuek Goldatz, «ezinegon komun batetik abiatuta, antolatu beharra sentitu baitzuten». Geroztik dozenaka izan dira antolatu dituzten ekintzak, aldarrikapena oinarri hartuta. «Formakuntza feminista bultzatu, elkarrekin ahaldundu, ekintza desberdinak antolatu eta izandako eta salatutako erasoei erantzuna eman». Hori izan da zortzi urte hauetan Goldatzek egindako lana «Beran, feministon presentzia bermatzea».

Bi astetik behin elkartzten dira eta 6-7 lagun ibiltzen dira talde eragilean «etengabeko dinamika bultzatzen». Eragiteaz arduratzen den taldeaz harago, «sare zabal bat dugu ekintzen berri eman eta momentu esanguratsuetan aktibatzeko».



Azken asteetan, gainera, tokatu zaie karrikara ateratzea, izan ere, urtea hasi denetik 4 emakume hil dituzte Euskal Herrian, eta hilketa horiek denak salatzeke karrikara atera dira. «Erantzunik gabe erasorik ez dugula onartuko esaten dugu eta hori betetzen dugu herri mailan. Karriketan aldarrikapen feministen presentzia ezinbertzekotzat dugu».

Argi diote «matxismoak hiltzen jarraitzen duela». Hori aldatzeko, sistema errotik aldatu behar da eta hori «antolakuntza feministatik egitera goaz».



PAGOLA
Harategia

ONGI PASA BESTAKI!



Altzate Plaza, 2 - Bera - T. 948 63 00 54
www.embutidospagola.es

anterola
Instalatzaile teknikoa

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNeko & SUKALDEKO OSAGARRIAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Ongi pasa bestak!



Centro Prim



regina.tolosaechepare

E D A R I A K



Ongi pasa bestak!



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

SEGUROS BILBAO
Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

Ongi
pasa
bestak!

ie

Iriarte-Etxandi
artekaritza-aholkularitza

Kanttonberri, 1 • BERA • T.948 631 169

Ainhoa Altzuguren Mitxelena

Ongi pasa
bestak!

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen da. *Delta hitzordua hartzeko*

Legia 42, BERA • M. 630 97 21 89
ainhoaitzuguren@gmail.com

Ongi pasa bestak!



Frutas
y Verduras
BIDASOA S.A.
FRUTAS Y VERDURAS

BILTEGIA:
948 630 102
SAKELAKOA:
633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta berrizatzalea
Parket eta parket flotatzalea
Jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Ohorea

Besten hasierako suziria botako dute aurten, eta «ohorea» izanen dela diote, «Berako herriak egin dugun lanari balioa ematea» delako. Suziria pizteko momentua ere nolakoa izanen den aurreratu dute «suziria botatzea kolektiboa izanen da, hori baita gure ardatzetako bat, elkarrekin ahaldundu eta talde indarra sustatzea».

Suziria botatzeaz gain ere parte hartuko dute herriko bestetan, «herriko besta batzordean egoteaz gain, txosna batzordearen parte» ere badirelako. «Erasoen kontrako protokoloa herri osora zabaltzen dugu eta erasoen kontrako mahaian parte hartzen dugu» azaldu dute Goldatzeko kideek. Helburu argia dute bestetan ere, «denontzako segurua diren eta eredu feminista duten bestak bultzatzea».

Erasoen kontra, erantzuna

Hori lortzeko bidean, ordea, urratsak egiteke daudela uste dute, iazko bestetan adibidez eraso ugari izan eta salatu zituztelako hainbat emakumeek. Uste dute, gainera, bestetan erasoak «areagotu» egiten direla.

«Suziria botatzea kolektiboa izanen da, hori baita gure ardatzeko bat»

Eraso bat izaten den aldiro, «protokoloa aktibatzen dugu, eta erasoaren intentsitatearen arabera erantzuna ematen dugu». Besten atarian, erasotzaileei eta horien konplizeei mezu argia luzatu diete: «Ez badakizue erasorik gabe besta egiten, gelditu etxean». Horiez harago, ordea, «inor jazarri gabe besta egin nahi duen edonor ongi etorri izanen da».

Bestetan ongi pasatzeko deia egin dute: «Gozatu herriko bestez. Gora borroka feminista! Gora Goldatz!».


BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK

GASOLIOA ETXERA
eramaten dugu

**PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIANTZAT
ZERBITZU ANITZAK**

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak

24h-ko asistentziak errepideetan



IAT aurreko zerbitzua dohainik

Gasolindegia 24h irekita

☎ 609 446 693 - 679 204 872

✉ nbidasoa@gmail.com

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko



Alkalaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125



Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872

**Ongi pasa
bestak!**





**GORA BERAKO
BESTAK!**

BIOK

BIOK
EXPERIENTIAL SHOPPING

Menu bereziak **Mirentxu** eta **Sutondo**
jateke bernan, egun hauek lagun
eta familiarekin ospatzeko.

  [ventabiok.com](https://www.ventabiok.com)

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE



**BESTETAN LASAI IBILTZEKO
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU
21:00-01:00
TXUPINAZO EGUNEAN EGUERDIAN ERE**

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 w. www.zalain.com

ONGI PASA BESTAKI

 **ugaldea**

**AHOLKULARITZA · FISKALA KONTABLEA
ASESORIA · FISCAL CONTABLE**

Rafa Pombar Sainz

Sara karrika, 1 31780 BERA (Nafarroa)
tel 948 63 02 01 fax 948 63 02 55 e-mail asesoria@ugaldea.com

Goxune

**ONGI PASA
BESTAKI**

Kafetegia  **Okindegia**

Sara kalea, 7 - **BERA**
Tel. 948 630 235

Udako ordutegia Ekainaren 24tik Irailaren 1era |
Asteartetik igandera **Astelehena**

07:30-13:30

07:30-13:30

17:00-21:00

Astelehen arratsaldean itxia

asegi asesorias 
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Bastanberr plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 - F. 948 580 648
Ezegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108
Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 - F. 948 451 304
Elzeta, 20 31770 LESAKA T. 948 638 077



artatu
ONGIZATE ZENTROA

Ongi pasa
bestak!

Oihana Elzaurdia Ariztia - Fisioterapia
Julen Errandonea Martin - Prestaketa fisikoa
Jon Etxegarai Irazoki (610 003 490)
- Psikologia-Gestalt psikoterapia

San Esteban 21 behea | BERA
Tel.: 633 788 323 | artatubera@gmail.com


Hotel Churrut
HOTEL

**Churrut hoteleko
jatetxea (LENKONEA)**

Foruen plaza | BERA (erdian)
T. 948 625 540 - T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com

**BERAKO BESTETAKO BORTZIRIAK
DASTATZEKO MENUA 2023**

- BERA.** Iberikoak, foie-blokarekin eta tosta kumuskarekin.
 - LESAKA.** Garbioak plantan.
 - IGANTZI.** Legatza barazkikoekin plantan eta salta berde bereziarekin
 - ETXALAR.** Masal iberikoa ardo beltzean patata ingotzarekin
 - ARANTZA.** Gazta-tarta, mangoarekin eta almendra izozkarekin
- NAFARROAKO JATORRI-IZENDAPENENKO ARDOAK**
URA eta KAFEA (BEZA BARNE)
PREZIOA: 37 €
*Etsi bazkaldora ongi bukatzeko LENKONEA
konbinatu bestak 6,50€ (marka estandarik)*



**Hondartza, kanpin
eta lorategirako
behar duzun guztia!**

**ONGI
PASA
BESTAKI**

Zalain auzoa, z/g. - Pk. 4. - 31750 - BERA - Nafarroa
Tel.: +34 948 628 200 - FAX: +34 948 630 804
alco@alcoplas.com | www.alcoplas.com

«Kotxearekin edo kotxerik gabe, aunitz disfrutatzen ahal da 4x4 erakustaldian»

XABIER MAYORDOMO ALMANDOZ
4X4 erakustaldiko antolatzailea

Ttikitak motorrari zaletasun handia dion Berako gaztea da Xabier Mayordomo. Haurra zela sortu zitzaion motorraren eta horren inguruko modalitate denen inguruko interesa, eta geroztik afizioa haunditu baino ez da egin. Motorraren munduan ere aurkitua du bere gustuko bidea, eta azken urteetan erabat murgildua dago Berako besten ataria egiten duten 4x4 erakustaldiaren antolaketan.



Posta inguruan eginen dute aurten ere proba, uztailaren 29an, larunbatean 14:30ean hasita. Berakoa, ordea, lehiak haragoko proba izanen da, giro ona eta laguntasuna nagusituko baita lehia bazterrean utzita, «eta ez da epailerik izanen». Postan ikusten ahalko denaren azalpena egin du: «4x4 ibilgailuen osaturiko proba bat da. Mota aunitzetako ibilgailuak izaten ahal dira: etxean egindako prototipoekin egindakoak, kotxe komertzial prestatuak... Zulo eta oztopo desberdinak gainditu behar dira ahalik eta akatsik guttiena eginez».

Proba historikoa da eta ttikitako orotzapenak ditu Mayordomok ere, izan ere, 2008an utzi zioten egiteari. Aurtengoa, aldiz, laugarren edizioa izanen dute antolaketa lanetan, 2018an egin zuten lehenengoz, baina tartean

pandemia dela eta bi urtez ezin izan dute egin. «Duela urte batzuk pentsatu genuen guk antolatzen ahal genuela, eskualdeko antolatzaileekin solastatu ginen nola egin ikusteko, eta Berako Udalarri ere ongi iruditu zitzaion». Antolaketan ez dira bakarrik aritzen, Bortzirietako eta Malerrekako 4x4 afizionatuak elkartuta taldea sortua baitute, Boma 4x4 «eurek Malerrekakoa antolatzen dute eta guk Berakoa, baina elkarri laguntzen diogu».

Aurtengoa prest

Aurtengo edizioa ere prest dute jada, eta «30 parte hartzaile ingurua izanen dira eta jendeari ezezkoa ematen aritu behar izan dugu». Azken urteetan kopurua mugatu behar izan dute, «kotxe aunitz izaten dira eremu berean eta arriskutsua ere izaten ahal da».

GORA SAN ESTEBAN!
borzud
IMPRESA - KOPRESTE
948 631 521
material guttiesten inprimatzen dugu
kaniseta / oparitzeko artikulua

IGONE
- Testu liburuak
- Bulego eta eskola materiala
- Jaki bezgarriak
- Oparitzeko artikulua
ONGI PASA BESTAK!
Kantaberri, 4 BERA Telefonoa eta 948 630 626 paperialigone@gmail.com

Ongi pasa bestak!!
Sara Kafetegia
UDAKO ORDUTEGIA
(Ekainaren 24tik irailaren 1era)
Astebartetik igandera:
07:30-13:30 | 17:00-21:00
Asteazkena (arratsaldetan itxita):
07:30-13:30
Hurlandeta, 6 BERA - 948 625 673

ONGI PASA BESTAK!
D
««««H I R U K I D E»»»»
Eguzki panelak ▶▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀
Aire egokitua ◀
T./F. 948 625 395
Alkaiaga Ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

caveo

ongi pasa bestak!
Bidasoa, 78- BERA
Tel.: (+34) 948 62 50 20
Fax: (+34) 948 63 10 01
www.caveoautomotive.com



ONGI PASA BESTAK!

ITURRIONDO
ZURGINDEGIA
ZURGIN LANAK OROKORREANT./F. 948 631 430 • M. 607 890 923
Zalain ind. 7 • BERA**OSTATU - JATETXEA**
Itzea, 2 - 31780 BERA
948 631 271**ELIZALDE**

Benta | Ostatura | Jatetxea

Besta on batzuk pasa!

948 631 024 | Ibardin | BERA

MENDIKO
JATETXEASagardotegiko menua eta karta
EGUNERO IREKITAIbardin-BERA
www.mendikoibardin.com
+34 699 810 870

Aitzineko urteetan aritu izan da Mayordomo Berako eremuan, eta aski ongi ezagutzen ditu autoa egun horretarako prest izateko egin beharreko urratsak. «Aunitz suertea izaten da, kotxeak hagitz ongi aguantatzen ahal ditu, edo lehenengo zuloan xehatu». Hala ere, argi dio «nahiz eta kotxea xehatu berdin disfrutatzen dela. Lagun artean egoten zara, eta ez ibilita ere aunitz gozatzen da ikusten».

Gainera, autoak prestatzen araudirik ez dagoenez, bakoitzak kotxea bere gustura egiten duela dio, baina «dirua izaten dela muga, kotxe onena diru gehien duenaren baita». Hala ere argi utzi du: «kotxe zahar batekin disfrutatzen ahal da, eta ez da zertan dirutza gastatu». Diruaz aparte, denbora, hori da 4x4 modalitaterako behar dena, «gainean egon behar zarelako autoa moldatzeko, baina guretzat ez da lan bat, elkar laguntzen dugu, kotxe guztiak ezagutzen ditugu».

lazko edizioa erabateko arrakasta izan zen, «ia 1.000 pertsona etorri ziren.

Hainbertze jendekin «giro ederra izaten da, musika paratzen dugu, ostatura... eta parte hartzaileekin afaria ere egiten dugu». Gisa guztietako izaten da «ikusle hagitz gazteak, gurasoak haur txikiekin, jende helduagoa, adinekoak...».

Hori dena antolatzeko marxoan hasten dira antolaketa lanetan eta hiru lagun ibiltzen dira. Lanean hastean lehenengo gauza «laguntzaileei dirua laguntza eskatzea izaten da. Gastu aunitz izaten dira, eta dirua behar da eta, horregatik eskerrak eman nahi dizkiegu urtero laguntzeagatik». Egunean berean ere jende aunitzen laguntza izaten dute. Herriko eta eskualdeko jendea biltzen da laguntzen, eta «beraileztat ez da lana izaten, kaxondeoa izaten da eta laguntzaileek ere aunitz disfrutatzen dute». Hauei ere «eskerrik asko laguntzeagatik».

«4x4 proban oztupoak eta zuloak gainditu behar dira ahalik eta akats guttien eginez»

Bestarako gogotsu
Gogotsu hartuko ditu bestak Mayordomok, batez ere abuztuaren 2a, inauterietan batera urteko egun hori baitu maiteen, «buxpinazora joatea eta gero kuadrillarekin bazkaria egitea». Gustatzen zaizkio herriko bestak «bakoitzak «bere modura» eta nahi duenarekin bizitzen dituelako.

Gonbidapena luzatua da beraz, 4x4 autofez gozatu nahi duenak Postan du hitzordua uztailaren 29an 14:30ean. «Eremurako bidea markatua egonen da, parking bat ere egokituko dugu eta oinez joateko aukera izanen da.

**Savera**

Elevator System Solutions

ONGI PASA BESTAK

Beratik munduraZalain auzoa, 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: +34 948 626 900 - Fax: +34 948 626 904
savera@saveragroup.com - www.saveragroup.comThe Kingdom Tower
Jeddah, Saudi Arabia
1.000 m.ko altura

Berako gidak erabiliz egina



Martiko

ZAPOREA ETA OHITURA SABOR Y TRADICIÓN

BOUTIQUE MARTIKO

ASTELEHENETIK
ORTZIRALERA
9:00ETATIK 17:00ETARA

DE LUNES A VIERNES
DE 9:00 A 17:00

*GORA BERAKO BESTAK
¡FELICES FIESTAS!*



WWW.MARTIKO.COM

semper **autoeskola**

ESKAINZA BEREZIARI

Ikastaro teorikoa nahiz praktikoa euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7
 BERA LESAKA
 T. 948 630 298 T. 948 638 299
 e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!

SORKUNDE BENTA
 IBARDIN

ONGI PASA BESTAK!

BERA · IBARDIN · 00 34 948 630 724

KULTURKARI
 Dantza garaikidea | Folklorikoa

URKILA
 HARATEGIA

Kanttonberri, 12 · BERA
 T. +34 948630439 · M. 666407210

PLAGASMUGU
 CONTROL SISTEMÁTICO INTEGRAL DE PLAGAS

**Desinfektazioa
 Intsektu hiltzea
 Arratoi hiltzea
 Zura ontzeko tratamenduak**

948 925 501 **Ongi pasa bestak!**
 619 441 618

Aitzate, 9 behea · Bera
www.plagasmugu.com
plagasmugu@gmail.com

GANIX
 Taliterra

948 63 06 69

Ongi pasa bestak!

Zelain Pol., 11 · BERA
 EUROMASTER zegoen lekuan

IREKI
 LEIHOAK

Aluminio R.P.T / PVC | Pertsianak | Toldoak
 Itxidurak | Kontraleihoak | Barandak | Berandak

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 630962 - H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com · www.irekileihoak.com



Berako udalak besta zoriontsuak opa diezkiezue

B E R A

Gona Berako bestak



«Esperientzia kuriosoa izan zen iaz bestak lehenengoz zinegotzi gisa bizitzea»

PATXI CASTILLO GRAZIARENA
Berako udaleko zinegotzia

«Berako bestak maite dituen beratar gaztea». Halaxe deskribatu du bere burua Patxi Castillo Graziarenak. Urte aunitzez Gure Txokoa Dantza Taldeko dantzaria izana da, eta aurten bigarengoz biziko ditu bestak udal ordezkari bezala, 2021eko abendutik baita bertako zinegotzi.

Herriko bestak ttikitatik «sutsuki» bizi dituela dio, bestetako ekitaldi gehienak ikusten edo horietan parte hartzen saiatzen baita. «Herria mugimenduan egoten da, giro onean», horixe nabarmendu du.

Bestetan dantzari aritzen zenekoak, horietan dugu herriko besten lehen oroitzaenak Castillok: «Bortz edo sei urterekin sartu nintzen taldera eta San Esteban eguneko Makil dantzak dantzatzeko edo dantzatzeko saiatzen nituenekoak ditut lehen oroitzaenak». Jaialdia, barrakak, kukaña... Horiek ere baditu gogoan. «Besta aitzinetik barrakak paratuak izaten ziren eta igerilekutik bueltan pasatzen ginen bertatik».

Bereziki gogoan ditu dantzari gisa bizitako bestak, eta baita besta aitzinetik hilabeteak ere, batez ere uztaile, prestaketetan ematen zutelako. Herriko bestetako bortz egunetatik



bi dantzan zentratuak izaten zirela dio, baina, gainerako hiru egunak ere «kuadrillarekin baino dantza taldeko jendearen pasatzen genituen. Azkenerrako besta guztiak dantzaren bueltan izaten ziren». Dantzak presentzia berezia duela dio bestetan, ez beretzat bakarrik, baita herrian ere, bere irudikoz gero eta gehiago baitira egunero egiten diren dantza herrikoletan parte hartzen duten herritarrak.

Ardura gehiago

Gaur egun «desberdin» bizitzen ditu besta, baina, hala ere, San Esteban eguneko goizeko eta arratsaldeko dantzak derrigorrezko ekitaldi izaten



xulufraia

Alzate 18, Bera



Zalain

JANARIAK

ongi pasa bestak!

Zalain Ind. 42, behea.

948 631 308
zalainjanariak@gmail.com

RECACOR
BERA

Ongi pasa bestak!

Zalain industrialdea, 5
Tel. 948 48 71 91



JAVIER | BARRA ERAIKUNTZAK

699 12 28 15

- Etxebizitza berriak
- Zaharberritzeak
- Erreformak
- Konponketak
- Teilatutak
- Harri eta hormigoiko lanak
- Mota guztietako igeltseritza lanak

GREMIOEN KOORDINAZIOA
SUNBILLA (NAFARROA)



Ongi pasa bestak!

ALBISU

HORTZ KLINIKA

Bidasoa, 2 - Bera

Tel. 948 631 631



Abuztuko ordetegia:
9:00tatik 00:00etara

Bidasoa 11 BERA
T. 948 177 128



ongi
para
bestak!

Altzate 33 BERA

Tel.: 948 63 09 04

JOSE I. GONZALEZ ENGUIA

Pintura orokorrean
Barrualdeak eta fatxadak

T. 666 235 466



Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Iratamendu estetikoak, armiarma-barize eta malformazioena
- Ekografia kardioeskular diagnostikoa
- Ekointerbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Ongi pasa
bestak!

Telefonoa: 610 549 507

Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

ditu urtero, bertso saioarekin batera. Bestetan «ahalik eta gehientsuan parte hartzea» gustatzen zaio, eta zinegotzi izanda adi ibili beharko da «norbaitek ekitaldiren batean laguntza behar badu laguntzeko».

Zinegotzi izan edo ez, bestak bizitzeko modua «aldatzen dela» uste du, izan ere, udal ekitaldien bueltan eman zituen bestak iaz, eta aurten ere antzera biziko dituela uste du. «Txupinazioan udaleko kideekin izan nintzen, baita biharamunean dantzak ikusten ere, eta hurrengo egunean inguruko udal ordezkarietara bazkaria izan genuen». Hala ere gustura ibili zen Castillo: «Esperientzia kuriosoa izan zen iaz bestak zinegotzi gisa bizitzea eta ahal zen tartetan besta pixka bat ere egin genuen».

Bestak baserrietara

Ekitaldi horietaz gain, dianetan ere parte hartzea egokituko zaio. «Base-

rri auzoetara besta eramateko modu bat dira dianak». Abuztuaren 4an hasi eta hiru egunez musika lagun auzoz auzo ibiltzen dira udal ordezkariak eta musikariak, eta «harrera bikaina» dutela dio, auzokideak zain izaten baitira musikariak noiz ailegatuko.

«Baserri auzoetara bestak eramateko modu bat dira dianak eta harrena bikaina dute»

Auzokideek trukean, «gosaria» ematen diete, eta aunitzetan etxe barreneraino sartzen dira musikariak. «Bada jendea ez dena herrira maiz jaisten, eta beraiek ere besten seinalea izatea eskertzen dute».

Errespetua oinarri

Herritar denak zein kanpotarrak bestetan zein besta aitzinetik izanen diren ekitaldietan parte hartzera gonbidatu ditu Castillok, baina, mezua ere luzatu die: «Jendeak ongi pasatu dezala, baina pasatu gabe. Bestak denentzako dira eta ondokoa errespetatu behar da. Errespetatzen ez dakien hori ez da Beran ongi etorria izanen».



Zurekin
DISEINUAK

Lu's
Ibarra

**KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA,
ETORRI IKUSTERA KONPROMISORIK GABE!**



SUKALDEAK
LURRAK
ARMAIRUAK
ATEAK
TEILATUAK
EGURLANAK...



Kanttonberri, 3 BERA | Tef: 722 52 14 71



*Besta zorionitsuak
opa dizkizuegu!*

IDOIA
BEAUTÉ

zure idieia "bitxi" behurtutako dugu



*ONGI PASA
BESTAK!*

Kalash
Bitxi-denda | Erloju-denda

Banatzale ofiziala:

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

**LARRETxea
EGYRRAK**

Zuhaitzak
erosi, bota
eta ateri

Piketeak eta
sutarako egurra



Ongi pasa bestak!!

Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427

Ongi pasa bestak!

Xirgil

ILEAPAZMOEGIA - PELUQUERIA
948 43 14 62

Modetarik,
ile tratamenduak, 3rte eta
produktu beganoak,
azken tendentziak...

**ZENTRU
LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA**

Nekane Ordoki Gonzalez

ongi pasa bestak!

- ✘ Ahazkapen zailtasuna
("erre" gaizki esana, "ceceo"-a...)
- ✘ Gauzak kontatzeko zailtasuna
- ✘ Irakurketa arazoak
- ✘ Idazketa arazoak
- ✘ Tolettasuna "tartamudeo"
- ✘ Ahots arazoak
- ✘ Arnasketa arazoak

Euskaraz/Erdoraz

☎ 646 894 332
BERA

ongi para bestak!
FONTANERIA



Carlos Pacheco

C/Legua nº 19
31780 BERA (Navarra)

Telefono: **637 15 11 70**

erran.
plus

*Ongi pasa
bestak!*



BERAKO BESTETAKO MENUA

LEHENDABIZIKO PLATERA:

Patea
Ahuntz-entsalada
Otarraixkak

BIGARREN PLATERA:

Ahate-bularkia
Entrekota
Sahieskia
Lupia

POSTREA:

Etxeko gazta-tarta
Sorbeta
Whiski-tarta

**ARDOA, URA
ETA SAGARDOA BARNE**

PREZIOA
35€
BEZ-a barne

LEHENDABIZIKO PLATERA:

Ahate-foiea
Gula-entsalada
Otarraixkak

BIGARREN PLATERA:

Txuletoia
Zapoa

POSTREA:

Etxeko gazta-tarta
Sorbeta
Whiski-tarta

**ARDOA, URA
ETA SAGARDOA BARNE**

PREZIOA
45€
BEZ-a barne

IKUILU JATETXEA • Uralde karrika, 6 BERA • T. 664 36 64 47



SUNBILLAKO BESTAK 2023

Egitaraua



Abuztuak 10, ortzeguna
18:00etan herri kirol saioa. 20:00etan suzuria Herriko Etxetik, erraldoi, buruhandi, gaitero eta Elutxa txarangarekin. 21:30ean zopak Ulibeltzak elkartearen. **Gauetz** dantzaldia Laiotz taldearekin.

Abuztuak 11, ortziralea
09:30ean dianak gaiteorekin. 11:00etan meza nagusia. 12:15ean Sunbillako dantzarien emanaldia. **Ondotik** luntxa plazan. 18:00etan aitzur eta zartagin jaurtiketa. 19:30ean muxikoak. 20:30ean tortilla eta postre lehiaketa. **Ondotik** pinxo dastaketa sagardoarekin Ulibeltzak elkarte ondoan. 22:00etan suzko zezena Harbiztin. 23:00etatik 05:00etara Andoni Olloklegi eta El Quinto con Tenedor, Txapelketa eta Eztitan.



Abuztuak 12, larunbata
09:30ean dianak. 11:00etatik 13:00etara erraldoien kalejira Baztango gaiteroekin. 13:30ean bazkaria Guraso Elkartearen antolatua. **Ondotik** espuma besta Harbiztin. 18:00etan profesionalen pilota partidak. **Arratsaldez** eta **gauetz** dantzaldia Biziraun taldearekin. 22:00etan suzko zezena.

Abuztuak 13, igandea
09:30ean dianak. 11:30etik 13:30era erraldoien kalejira Baztango gaiteroekin. **Goizez** eta **arratsaldez** Tren Txutxu herrian barna. 14:00etan kuadrillen bazkaria Ulibeltzak elkartearen. **Ondotik** ura-ura Txaranga Jaiak alaiturik. 17:00etan gazteen ura eskatzea. 19:00etan XX. Ramon Latasa saria. 20:30etik 02:00etara dantzaldia DJ J&Jrekin. 22:00etan suzko zezena.

Abuztuak 14, astelehena
09:30ean dianak. 10:00etan mus txapelketa. 12:00etan toka txapelketa eta boneta eta zapatil jaurtiketa. 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara haurrentako jokoak Colorin Espectaculorekin. 19:00etan frontenis txapelketa. 20:00etatik 22:00etara Chuchin Ibañez. 21:30ean suzko zezena. 22:00etan herri afaria Ulibeltzak elkartearen antolatua. **Gauetz** musika Hauspolariek taldearekin.

Ongi pasa bestak!

Iarreta lanak

ICELTSU PROIEKTATUA
Bidasoa kalea 36 - Bera
iarretaiceltsu@gmail.com

PLADUR LANAK
Gorka Arretxea 627 225 514 | Juanen Saralea 637 921 299

BERRI S.L.

TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Ongi pasa bestak! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 66 59 66

Zelai Ind. 42 Bera.

JANARI - JARDU

MARISOL

ONGI PASA BESTAK

JANARIK | TIKAKO | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450008

SUNBILLAKO UDALAK

Besta zoriontsuak opa dizkizue
sunbilar eta bisitari guztioi
GORA SAN TIBURTZIO !

IRURI MOTOR

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA BESTAKI!

T. 948 450 399 - 620 950 687
Iruña-Iruñ errep. zaharra | SUNBILLA

BIDASOA
 OBRAK - BERRIKUNTZAK
 609 446 693
 948 625 663
 nbidasoa@gmail.com

Alkalega Industrialdea
 Ziobi kalea 6 - LESAKA

Ongi pasa bestak!

sasoi
 eraikuntzak

ONGI PASA
 BESTAK!

SUNBILLA (NAFARROA)
 T.: 948 451 596
 info@sasoi.eus

ukulu
 inmobiliaria

Lekueder karrika 16, Sunbilla
 667 547 445 | xuban@ukulu.es

ANELAN
 LAN BERTIKALAK

Sekekin egindako lana, andamerik gabe.
 Egiten ditugun lanak:
 Fibraden konponketak,
 segurtasun-sistemen
 instalazioak, telatuen eta
 azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

948 011 174
 info@anelan.po

Bustitz
 ostatua

Ongi pasa bestak!

PINTXOAK • RAZIOAK • BOKATAK
 HAMAIKETAKOAK • KAXULAK

T. 948 627 919 - Leku Eder - SUNBILLA

Ongi pasa bestak!

FONDAOSTATUA

DONIBANE, 7 SUNBILLA

«Bestetan herriak izaten duen bizitasuna da gehien gustatzen zaidana, giro polita sortzen da»

JOSUNE AGUIRRE MARITORENA
 Sunbillako gaztea

Sunbillan bizi den 33 urteko gaztea da Josune Aguirre Maritorena. Kirola egitea, familiarekin egotea eta lagunekin otorduak egitea du gustuko, bertzeak bertze, eta denbora galtzen ez duen horietakoa da. Izan ere, herriko dantza eta herri kirol taldeko kide da, Ulibeltzak elkartearen dago eta bere lana zinegotzigoarekin uztartzen du agintaldi honetan.



Kirolaz gozatzen

Duela hamar bat urte hasi zen dantzatzen taldean: «euskararekin lotura duten ekintzak gustatzen zaizkit, eta herrian bertan dantza taldea izanik, ahizparekin eta bertze bi lagunekin batera izena ematea erabaki genuen». Herriko bestetan emanaldia egiten dute urtero, «San Tiburtzio egunean, meza ondotik plazan dantzatzen dugu». Aitortu duenez, «ez zait aunitz gustatzen jendearen aitzinean dantzatzea, akaso badakidalako ez naizela dantzari fina!». Hala ere, «uste dut momentu polita izaten dela herri-tarrentzako».

eta aurten ere aterako gara». Eta dantzak eta herri kirolak gutti balira, lasterka ere aritzen da Aguirre.

Ulibeltzak

18 urterekin herriko Ulibeltzak elkartearen sartu zen. «Elkarteak herriari ekarpen haundiak egiten dizkiola uste dut. Inauterietan emakumeen afaria bertan egiten da eta igandean karrozetan ematen diren salda, opilak, etab. bertan prestatzen dira, baita ondoko bazkaria ere». Bestetan, berriz, «ekitaldi aunitz elkarteak antolatutako eta finantzatuak dira: aizkora apustua, pilota partida, mus txapelketa, herri afaria...». Beraz, eragile kultural garrantzitsua da Ulibeltzak elkartearen Sunbillan.

Dantza taldean ez ezik, herri kirol taldean ere aritzen da: «herrian herri kirolak antolatzen dituztenean parte hartzea gustatzen zait. Horretaz gain, joan den urtean Nafarroako Herri Kirol Txapelketarako taldea atera genuen

JAVIER | BARRA ERAIKUNTZAK

699 12 28 15

- Etxebizitza berriak
- Zaharbertzeak
- Erreformak
- Konponketak
- Teilatuak
- Harri eta hormigoi lanak
- Mota guztietako igeltseritza lanak

**GREMIOEN KOORDINAZIOA
 SUNBILLA (NAFARROA)**



Ongi pasa bestak!

Zinegotzi lanetan

Aurten Sunbillako zinegotzi aurkeztea erabaki du, eta herriarentzako lan egitearen arrazoiak argi ditu: «lehenik eta behin, udal talde bat osatzeko. Herri-tarrak sartzen ez bagara, inguruko herri batzuetan gertatu den bezala udalik gabe geldituko ginatke Sunbillan, horrek guztiak ekartzen duenarekin». Izan ere, «herri ttikietan, zerbait egin edo izateko, herritarren inplikazioa beharrezkoa da».

Agintaldi berrira begira, «hiru gazte sartu gara taldean, eta ahal den moduan herriko beharrak konpontzen saiatuko gara, kutsu gazteagoa emanez». Bertzeak bertze, bestak antolatzea da udalaren arduetako bat; «lan haundia izanen dela ez dut dudarik egiten, aurten ikusi eta probatuko dut lehenbiziko aldiz».

Udala ez ezik, Ulibeltzak elkarteak ere hasi da prestaketa lanekin; «juntakideei lan potoloa egitea tokatzen zaie. Bertzeok zerbaitetan laguntzerik badugu, hor egonen gara».

Hainbertze eginbeharrekin, aspertzeko denborik ez duen gaztea da Aguirre. Baina azaldu duenez, «nahi izanez gero, denok edo gehienok behintzat,



gauzak egiteko denbora dugu. Gero eta gehiago erraten dugu denborarik ez dugula, baina, denbora baino, gogo eta konpromiso falta delakoan nago».

«Herri ttikietan zerbait egin edo izateko, herritarren inplikazioa beharrezkoa da»

Bestetarako gogotsu
Lana ez ezik, besta ere egingen du santiburtzioetan; «bestazalea naizela aitortu beharra dut, eta herrian bertan besta egitea bezalakorik ez dago!». Bezpera da gehien gustuko duen eguna, «adin guztietako jendea elkartzen gara, baztan zopetan lehenik eta plaza inguruan ondotik». Norbere herriko bestak beti dira bereziak: «herrian izaten den bizitasuna da gehien gustatzen zaidana, egun guztian ekitaldiak izaten dira eta herrian bertan sortzen den giroa polita da».



ONGI PASA BESTAK!

31791 SUNBILLA
altzuri@gmail.com
www.altzuri.com
M. 699 461 394 - 659 867 287

SU EGURRA - PIKETEAK
GARRAIOAK - ITXITURAK
GARBITZE MEKANIKOAK
EGUR ATERATZEAK - ESKABAZIOAK

Lizun
GAZTANDEGIA
ONGI PASA BESTAK!

Sunbilla - Tel: 948 450 862

JAVI PETRIRENA

ITURGINTZA ETA ELEKTRIZITATEA

- ITURGINTZA - BEROKUNTZA
- EGUR ETA PELLETEZKO GALDARAK
- GASA
- AEROTERMIA
- EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK
- INSTALAZIOEN FINANTZAKETA %0
- INSTALATZAILE BAIMENDUA

Ongi pasa bestak!

T: 679 35 49 47- jpinstalazioak@gmail.com

ONGI PASA BESTAK!

CAMPING · KANPINA
ARIZTIGAIN
RESTAURANTE · JATETXEA

BOKATAK
AUKERA ZABALA
Eskatu eramateko!

- PINTXOAK RAZIOAK
- HANBURGESAK
- SANDWICH-AK
- PLATER KONBINATUAK
- MENUAK
- ASTEAN ZEHAH

31791 SUNBILLA
948 450 540 | 660 798 249 · 636 488 300
info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com

AINART
LEBAPANOGIA

Ongi pasa pestak!

Eibarren, 67 · behea
LEITZA
948 510 197 · 747 488 843



Arzallus
HARATEGIA

ongi
pasa
pestak

Txistorra eta artisau produktuak, etbeen eginak
Eibarren, 37 · LEITZA · Tel. 948 510 377



BEATRIZENEA

TABERNA-JATETXEA

Ongi pasa pestak!

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak

Mikel Deuna, 2 · Tel: 948 510 991 · LEITZA

ONGI PASA PESTAK!
MAIMUR

· Prentsa · Opariak · Testu liburuak
· Plastifikatzeak · Enkuadernatzeak
· Inprenta lanak · Fotokopiak

Eibarren, 15 · Herriko Plaza · LEITZA
mairurleitza@gmail.com · T/F: 948 510 146

Bi
Lagun



Izurista ind.P-2
31880 LEITZA
T. 948 610 985



KAMPERBIDE

ONGI PASA PESTAK!

Landa Poligonoa 8b · LEITZA · 669 707 916
info@kamperbide.com · www.kamperbide.com

ARIZTIMUÑO
ANAIK
ERAIKUNTZAK

ONGI
PASA
BESTAK!

Landa ind. 19 · 31880 LEITZA
M. 648 610 648 · 618 709 668 · F. 948 510 603
construccionesariztimuno@gmail.com

LEITZAKO PESTAK 2023

Egitaraua



Abuztuak 5, larunbata

14:00etan eskelarien bazkaria Aurreran. 16:00etan Plazaola aldizkariaren banaketa, trikitilari, txistulari, akordeoilarri eta gaiteroen laguntza.

Abuztuak 6, igandea

09:00etan diana txistulariekin. 10:00etan udalbatza txikiak udal ordezkariarekin gosaria. 10:30ean, txupinazoa. Gero, gurgildun zezenen entzierroa. 11:00etan Aurrera Pilota Eskolako gazteen partidak plazan. 11:30etik 13:30era Denok Bat guraso elkarteak antolatutako Jokal jolasak plazan. 17:00etan erraldioen konpartsa plazatik abiatuta. 18:30ean Aurrerako dantzari ttikien ikuskizuna eta umeen ingurutxo irekia plazan. Gero goxokiak. 20:30etik 22:30era Xalbor diskofesta. 22:30ean zezensuzkoa.

Abuztuak 10, osteguna

13:00etan *Etxera* manifestazioa plazatik, Sare herritarrak deituta. Gero, kantujira Kuxkuxturekin plazan. 13:30ean jubilatuen bazkarian. 14:30ean kantu bazkari herrikoia karrapen. 18:00etan txupinazoa eta Plazaola aldizkariko azalen irabazleei saria ematea. Gero Incansables txaranga, txistulariak, Leitzako Erraldioen Konpartsa eta gaiteroen kalejira. 18:30ean La Jodedera Labetxeko atarian. 22:00etan zezensuzkoa. 23:00etan Trikidantz. Ondoren Incansables txarangaren erronda eta LaMia Mari DJa plazako txosnan. 00:00etan tekno gaua Atekabeltzen.

Abuztuak 11, ostirala

08:00etan diana txistulariekin. 09:00etan entzierroa eta behiak plazan. 10:30ean meza San Miguel parrokian. 11:00etan hamaiketako irekia karrapen. 12:00etan Aurrera Dantza Taldeko Ezpatadantzariak plazan. Gero afizionatuen arteko pilota partidak plazan. 13:00etan Aurreratik abiatuta Incansables txaranga. 17:00etan Leitzako Bertso Eskolako bertsolariak Labetxeko atarian. 18:00etan zezenak plazan. 19:00etan herri kirolak plazan. Gero goxokiak banatuko dira. 19:30ean Incansables txaranga eta buruhaundiak aterako dira. 21:00etan Leitzako Ingurutxo nahi duenarentzako plazan. 22:00etan zezensuzkoa. 00:00 Gozategi. Gero Incansables txarangaren erronda eta Fresa Morango DJa plazako txosnan. Atekabeltzen Naxker eta Las Sexpeares. Gero DJ Muffin.

Abuztuak 12, larunbata

08:00etan diana txistulariekin. 09:00etan entzierroa eta behiak plazan. 11:00etan erraldioen konpartsa herritik Erietara. 13:00etan paella jatea karrapen. 13:00etan Aurreratik abiatuta Incansables txaranga. 17:00etan Alarma Morea taldea Labetxeko atarian. 17:30ean zezenak plazan. 19:00etan Aurrera Dantza Taldearen emanaldia plazan. Gero goxokiak banatuko dira. Gero Incansables txaranga eta buruhaundiak aterako dira. 22:00etan zezensuzkoa. 23:30ean Bastardix eta gero Gabe-

MAXI VICENTE

ERAIKUNTZAK

ongi pasa pestak!

Amazabal, 17 • LEITZA • 606 307 810

nararekin dantzaldia plazan. **Gero** DJ Infemu plazako txosnan. **00:00etan** Atekabeltzen Txopet, Etxekalte eta Onki Xin. **01:00etan** Incansables txarangaren erronda. **03:30ean** Leitzako Ingurutxo nahi duen guztiarentzako plazan.

Abuztuak 13, igandea

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **11:00etan** erraldien konpartsa. **13:00etan** txakolin dastaketa eta Incansables txarangaren emanaldia Karrapen. **16:30ean** zezenak plazan. **17:30ean** bertsolariak plazan: Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Agin Laburu, Eneko Lazkoz eta Jone Uria. **Gero** goxokiak banatuko dira. **19:00etan** pilota partidak Amazabal pilotalekuan. Profesional ohiak lehenik eta Ados enpresako profesionalak gero. **21:30ean** zezensuzkoa. **22:00etan** herri afaria plazan. **01:00etan** Incansables txarangaren erronda. **Gero** Leitzako Gazte DJ irekia plazako txosnan.

Abuztuak 14, astelehena

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **11:30ean** umeentzako aparra plazan. **13:00etan** trikipotea eta jokoak. **13:00etan** Aurreratik Incansables txaranga aterako da. **14:30ean** Gazte bazkaria karrapen. **Gero** bingo musikatua, gazte argazkiak eta mojittoa nahi duen guztiarentzat. **18:30ean** Distopia elektrotxaranga herritik Ate-

kara. **20:00etan** goxoki banaketa. **Gero** Incansables txaranga eta buruhaundiak. **22:00etan** zezensuzkoa. **00:00etan** Zetak. **Ondoren** Incansables txarangaren erronda Atekaraino. **02:00etan** DJ Reimy Atekabeltzen.

Abuztuak 15, asteartea

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **12:00etatik 14:00etara** ur txirrista Errekaldeneko atarian. **12:00etan** herri kirol erakustaldia plazan. **13:00etan** Aurreratik Incansables txaranga. **14:30ean** Aurrerako bazkideen bazkaria elkartearen. **16:00etatik 19:00etara** ur txirrista Errekaldeneko atarian. **18:00etan** entzierroa eta zezenak plazan. **19:00etan** helduen ingurutxo plazan. **Gero** goxokiak banatuko dira. **Gero** Incansables txaranga eta buruhaundiak aterako dira. **22:00etan** zezensuzkoa. **23:00etan** Joselu Anaiak plazan. **Ondoren**, *Gaixoa ni* Incansables txarangarekin.



KIDE

aholkularitza

ongi pasa pestak!

KONTABILISATEA | ZERGAK | AUTONOMOAK | ENPRESEN SCRERAK
ERRENTA AITORPENAK | AHOLKULARITZA JURIDIKOA
NOMINAK, KONTRATUAK

LEITZA: Landa Ind. 18 - 1 - T. 948 510 990
DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5 - 2 - T. 943 42 03 48
lzaikun@kide.eus - www.kide.eus

ULI-ZAR ELKARTEA, S.L.



ITURGINTZA
BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA
MOBLEAK
MANPARAK
KOMUNERAKO OSAGARRIAK

647 525 516 • ARESO | LEITZA



LEIMEN S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

Jai zoriontsuak deno!!!



PERITZA TABERNA

Pesta onak pasa
eta txintxo ibili!

Leitzako pestetan
herria beti garbi!

traeco®
ingurumena • medioambiental

www.traecomedioambiental.com



OGI BERRI
ARTESANOS PASTADORES
KAFFETEGI OKINDEGIA
948 610 974 | LEITZA

Egunero egiten ditugu
PIZZAK



ONGI PASA PESTAKI



ZORTZIKO
LEITZA - 948 510 720
ONGI PASA PESTAKI

Melo ONGI PASA PESTAKI!!!
Pinturak koop.

T. 609 873 178
LEITZA
www.pinturasmelo.com
melopinturas@hotmail.com



LEITZELARREA S.L.
Aroztegi eta Galdereria
ONGI PASA PESTAKI

Landa Beikoa Industrialdea, 20 • LEITZA
T. 948 510 598 M. 669 368 991



AISLAN s.l.
ONGI PASA PESTAKI

AISLAN-LEITZA, s.l.
618 915 943
Santa Luzia pasealekua, 4 B Behea • Butintxuri • IRUÑA
aislanleitza@yahoo.es

POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA



Ongi pasa pestak!

T. 948 513 611
Elbarren 66 LEITZA

EXPLOTACIONES FORESTALES
ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.



Oihan aprobexamenduak
Bertako eta kanpoko zur-billegia
Egurra aireko kable bidez ateratzen dugu
Oihanberritze lanak
Zur-salmenta, eskabazioak, garraioa

Landa Ind. 1 eta II • LEITZA
Tfnoa: 948 510 214 • Faxa: 948 510 841
M: 606 949 130 • 606 949 131
info@zubillagasaralegui.es

«Herritarron parte hartzea da Leitzako pestak berezi egiten dituen»

IÑAKI ZABALO BETELU

Leitzako kirol eta kultur zinegotzia

Pesta bereziak izanen dira aurtengoak Iñaki Zabalo Betelurentzat. Bereziak eta, berak dioen bezala, «oso ezberdinak». Izan ere, Leitzako kultur eta kirol zinegotzi kargua hartu berri du eta pestetako ekitaldien bueltan ibiltzea tokatuko zaio.



«Kirolzalea» dela dio Zabalok, nahiz eta «urteak aurrera joan diren heinean uzten joan naizen. Baina gustatzen zait, oso futbolzalea eta pilotazalea naiz». Horrekin batera, Leitzako Konpartsako kidea da. Eta hori guztia udaleko ardurarekin uztartu beharko du orain. Aitortu duenez, «banuen herrigintzan nonbait sartzeko gogo», eta EH Bilduren zerrendan aurkezteko proposamena egin ziotenean, «ez nuen zalantzarik izan».

Onartu du zinegotziaren ardura hartuta, «hasieran urduri» sentitu zela; «ez nekien zer lan mota zen, baina aurreko zinegotziek erreleboa oso ongi eman digute. Asko bildu gara aurreko udal taldeko kideekin, eta denetan laguntzeko prest daudela esan digute, udal langileek ere nola lan egiten duten ikusita, orain lasaiago nago, aurrean daukagunari aurre egiteko prest».

Kirolaren eta kulturaren bueltan ibiliko da agintaldi honetan. Zehazki, Aniko-

te kiroldegiaren eta kirol eta kultur ekintzen ardura izanen du: «Kiroldegia udalaren esku dago, eta horrez gain, alde batetik, urte osoan izaten diren kirol ekintzak daude: mendi erronka, Leitzulia, aurten berreskuratu nahi duten krosa... Herriko eragileek egindako ekintzak dira, baina beti udalaren babesa eta laguntza behar dute. Bestetik, gauza bera gertatzen da kultur ekitaldietan: pestetan, Eguberrietan, Orantzarorekin, ihoteetan... Horietan antolaketan ari beharko dut eta Herri Aretoko programazioa lotzeko, kultur teknikariarekin elkarlanean». Gaineratu duenez, «orain arteko guztia ongi-ongi ezagutu eta horiek martxan jartzea izanen da nire erronka haundiena lehenengo urtean». Baina aldi

EZKAIN eraikuntzak S.L.



ongi pasa pestak!!

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com



INAXIO PERURENA
KIROMASAJEA

Elbarren, 53 - LEITZA
649 302 307

ONGI PASA PESTAKI

berean, «sortzen diren aukerei bidea eman» nahi die.

Pestetarako ere «gogotsu» sumatu dugu leitzarra, gustuko baitu «kale giroan egiten diren ekitaldiak ikustea eta horietan parte hartzea». Onartu duenez, «gaueko parrandatik eguneko parrandara salto» egin du, baina hori ez da oztopo izanen ongi pasatzeko. Orain arteko pestekin konparatuz, «oso ezberdinak» izanen direla jakitun da, ekitaldi guztiak gainbegiratzea tokatuko zaiolako, eta ez dira gutxi. Baina pestarako tartea ere hartuko du.

Eta horretarako abuztuaren 10a izaten omen du egun kuttuna: «Pesta bezpera izaten da egunik politena. Kuadrillan bildu eta elkarrekin bazkaltzen dugu, pesta hasiera izaten da, erraldoien konpart sarekin ere ateratzen gara... Niretzat egun borobila izaten da».

Leitzako pestak zerk egiten dituen berezi ere galdetu diogu, eta «herritarren parte hartzea» da bere ustez sekretua: «Herriko eragileak biltzen saiatzen gara eta asko parte hartzen dute. Eta hori da bereziena eta politena, bertakoen parte hartzea bultzatzea: pilotan, erraldoien konpartsan, dantzari... Pestak oso leitzarrek izan daitezten saiatzen gara, eta herritarrek oso ongi erantzuten dute. Hori da oinarria eta horrez gain, egitaraua beste detalletan eta momentuko taldeekin osatzen saiatzen gara».

Aurtengo pestetarako ere ekitaldiz ongi hornitutako egitaraua prestatu dute, Zabaloren hitzetan, «100.000 euro inguruko aurrekontuarekin». Kontatu duenez, «adin guztietako jen-

dearentzako programa egiten saiatzen gara, denen arteko oreka bilatuz, eta bakoitzak bere gogoko ekitaldiak izanen ditu». Zer nabarmenduko lukeen galdetuta, berriz, «Zetak taldearen kontzertua» aipatu du: «Beharbada hori da ekitaldirik deigarriena, eta nik uste jende asko mugituko duela. Bestalde, umeentzako jokoak, zezenak, dantzari saioa, konpartsen kalejira... Herritarren aldetik erantzun ona izaten duten hitzordua izaten dira».

«Banuen herrigintzan sartzeko gogo eta aukera sortu zenean ez nuen zalantzarik izan»

Eta pestak hizpide hartuta, herritarrei eta bisitariari egin nahi izan die «pestak ongi pasatzeko» deia: «Pestak denonak dira, goza ditzagun, baina errespetuz jokatu». Bide batez, T1PI-T1A-PAKO irakurleei ere luzatu die mezua: «Gure herriko pestetara gonbidatuak zaudete!».



TXOKO TABERNA

Plater konbinatuak
errazioak
ogitartekoak...

ONGI PASA PESTAKI

Elbarren, 22 Leitza
948 510 227

AMAIA
arraindegia



Ongi pasa pestaki

Uharte Gotzaina · LEITZA
948 510 590

DENAUTO SAGASPER
Tailerra

ONGI PASA PESTAKI
AUTO KONPONKETA

Eluseder Ind. · ARESO · T 948 510 610 · F 948 510 917



Garbi

drogeria - lurrindegia

ongi pasa pestaki

Huarte Gotzaina 19, LEITZA

948 51 01 73



izaskun
PASTELERIA ZENTROA

edertasun
tratamendu
eta aholkuak

Uharte Gotzaina 4 behea
LEITZA · T 638 306 110

LEITZARAN AUTO KLUBA

Mikel Aristeta

Inurrista 21 LEITZA
T. 948 610 568



www.lakservice.com



taberna

Pintxo eta ogitarteko
aukera zabala

ongi pasa pestaki

677 721 688
Uharte Gotzaina 2 LEITZA

IZaTe

DIETISTA - NUTRIZIONISTA

Ibaro Zabaleta Telleria

Ongi
pasa
Pestaki

www.izatenutri.com

izate.nutricion@gmail.com

689 381 992

@izatenutri



LEITZA GARAJEA
MULTIMARKA TAILERRA
STILH AGENTZIA
NEKAZARI TAILERRA
SALEROSKETA

ONGI PASA PESTAKI

Landa Industrialdea · LEITZA
948 510 466 · 948 510 972



transportes
VICUNA S.A.

Ongi pasa pestak!

ongi pasa pestak!



FISIOETXEA

Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta
026 kolegiatu zenbakia

Biskortze ariketak - Kirel eta Zirkulazio Masajea
Osteopatia - Erditze aurreko/ondorengo tratamendua
Oinazala Abdominal Hipepresioa - Etkez etxeko laguntza

Uharte Gotzaina, 8 3.C - LEITZA - T. 948 510 730

Ongi pasa pestak!

euskron

Zure beharretara
egokitutako
ebaketa erremintak

+34 948 510 807
www.euskron.com

Elusteder 4
31876 Areso



TALLERES

Ireber S.L.

- MANTENTZE-LAN PREDIKTIBOA
- MAKINERIA INDUSTRIALAREN KONPONKETA ETA MUNTAIA

ONGI PASA PESTAK!

T. 948 510 842 • 629 831 535

ireber@cenabarra.es

Landa industrialdea, Nabe 9-10 B • LEITZA

ongi pasa pestak!



**HIERROS
LEITZA**

Iñurrista Pol, 12 Leitza
948 51 08 48

«Pesta gozagarriak bizitzea denon ardura da eta ez dugu inolako erasorik onartuko»

AINARA SARALEGI SAGASTIBELTZA
Leitzako Pesta Batzordeko kidea



«Irekia eta alaia» dela esaten omen diote Ainara Saralegi Sagastibeltzari, eta esane kasu eginez, halaxe aurkeztu du bere burua 24 urteko leitzarrak. Lagunekin egotea maite duela kontatu du, eta herrigintzan ere horixe ibiltzen da, berak dioten bezala, «feminismoan, gazte asanbladan eta herrian sortzen diren beste ekimenetan bueltaka».

Aurten, gainera, beste ardura bat hartu du eta Leitzako Pesta Batzordean buru-belarri aritu da lanean: «Azken bost urteotan beste eragile batzuen bidez ere pesta batzordeko kide izan naiz, baina aurten kide aktibo gisa hasi naiz». Gisa honetara batzordearen lana bertatik bertara ezagutzeko aukera izan du eta lantaldearen «az-

kartasuna» nabarmendu nahi izan du: «Biltzen hasten garenerako jendea ideiak eginak dituela hurbiltzen da» eta horrek «prozesua azkartzen» du. Aitortu du, «toki guztietan bezala, gai zehatzekin tirabirak» izan dituztela, «baina gure jarduna zailtzen edo oztopatzen duen ezer gertatu gabe». Horren gainetik, lantaldeko kideen artean dituzten «harreman onak» aipatu ditu, eta «orokorrean pesta batzordearen bilerak oso ongi» joan direla gaineratu du.

Lañaidek taldean lanean

Lañaidek neska* gazteen taldeko kidea ere bada Saralegi, eta pestei begira taldeak «hainbat erronka» dituela esplikatu du: «Batez ere prebentzio

EROSKI city

Gure
**harategi
zerbitzu berria**
ezagutu ezazu!

Era ez gukko gure...



Unibertsitatea



Arrazaldiak



Prestatzea

Tel: 948 510 007 • 948 610 657
Elbarren, 20-71

ongi pasa pestak!!

Lopenea

Elbarren, 47 - LEITZA
606 27 35 34 • 686 64 08 34
www.lopenea.com



BOKATAK - KAXULAK
MENUA - PINTXOAK
PLATER KOMBINATUAK

lana eta aurre lanketa da gure aurten-go helburua; sareak sortzea, ehuntzea eta elkartasun horretan pesta seguruak bizitzeko espazioak eraikitzea».

Izan ere, Leitzako pestak ez daude erasoetatik libre; «nahiz eta ez dugun nahi gertatzea, guk ekidin ezin dugun zerbait da eta gertatzen dira». Hala ere, erantzuteko prest daudela aitortu du, eta garbi utzi nahi izan du «aurrean egonen garela, datorrena datorrela, erantzun kolektibo eta feminista emateko». Halakoetan horretarako espresuki landutako protokoloa jartzen dute martxan; «erasoen kuantitatearen eta intentsitatearen arabera, erantzun bat edo beste emanez». Hori bai, «erasoa jasan duenak du beti azken hitza. Beraz, bere nahia errespetatzen da», adierazi du.

Eta erasoen gaia mahaia gainean jarrita, erasotzaile eta konplize izan daitezkeenei begira ere jarri da leitzarra. Eta mezu argia du: «Ez badakizu egoten, ez etorri. Pesta parekide eta feministak eraikitzeke egiten dugu lan urtero, egunero. Zuk, erasotzaile, edota zuk, konplize, ez daukazue eskubiderik besteoi pestak zapuzteko. Ez daukazue eskubiderik inor gutxieteko, espazio pertsonalak ez errespetatzeko, erasotzeko». Eta gehiago ere esan du: «Nazkatuta gaude zuen jarrerrez, eta aurrean izanen gaituzue».

Herri mugimenduen lana

Bestalde, pestak ate joka dituzten honetan, «ongi ateratzeko herri mugimenduek egiten duten lan handia» ere aitortu nahi izan du: «Ez baita

soilik bazkari bat norik eginen duen, barra norik muntatuko duen edo azken banda norik eginen duen. Hilabetetako lanketa denez, tentsio ugari bizi ohi ditut eta ditugu antolatzaileok». Eta bere hitzetan, «egiten dugun lanketa ikaragarri» horrek egiten ditu pestak berezi: «alde batetik, herriak asko parte hartzen du, eta bestetik, herri mugimenduko kideok egitarau alternatiboak eskaintzen ditugu, mundu guztiak badu zer ikusia horrela».

Gazte Eguna kuttunena

Aldarrikapenak aldarrikapen eta ardurak ardura, pestak ailegatzeko gogotsu sumatu dugu, «oso gustuko» dituen pestetan gozatzeko prest. Jakina da, gainera, Gazte Egunean ez duela hutsik eginen, hori baita beretzat egunik «berezi»a; «duela urte batzuetatik erreferente izatea lortu dugulako, lehen 50 lagun eskas elkartzea kostatzen zelako eta gaur egun 150 inguru elkartzen garelako. Egun berezia hazten ikusi dudalako», eta hala, «niretzako galdu ezin den eguna da».

Erasorik ez

Egun batean, bestean edo guztietan, baina herritarrei eta bisitariari pestetan «asko gozatzea» opa nahi izan die Saralegik; «ongi pasatzeko, dantzatzeko, kantatzeko, laguntasuna ospatzeko...». Baina ez hori bakarrik: «Bereziki ez ahaztu ez direla inolako eraso arrazistak, ez LGBTIQ+foboak, ez sexistak onartuko. Pesta gozagarriak bizitzea denon ardura da. Nazkatuta gaude, antolatuta gaude, eta ez gara isilduko!».

«Herri mugimenduek Leitzako pestak ongi ateratzeko lan asko egiten dute»

ZEURE BURUARI DENBORA ESKAINIZ ZAINDU
Zatoz prebentzioerako masajera hartzera!
Egunerokoak eragindako minak eta gaiturak lasaztera: **Its Thermie** tekniken bidez bere osasugarria probatzen.

Fontaneriaragaztelu

Eibarren kalea, 43, 2. Alifoa Tel. 646.568.753

gaztelu scl

KALEFAKZIOA · SANEAMENDUA · GASA · ITURGINTZA · KLIMATIZAZIOA
BAI/BAZ ZUKTAGIRI ENERGETIKOAK ERE

Landa Behikoa Ind, 21 • LEITZA
T. 948 510 086 · 948 510 156 · F. 948 610 856
info@fontaneriaragaztelu.com • www.fontaneriaragaztelu.com

ONGI PASA PESTAK!

ONGI PASA PESTAK!

DANI
ITURGINTZA

ITURGINTZA · GASA · ENERGIKUNTZA

672 18 31 99
iturgintzadani@gmail.com
LEITZA

LEITZAKIROLAK

Eibarren, 36 · LEITZA · Tel. 948 610 976
info@leitzakirolak.com
www.leitzakirolak.com

Ongi pasa pestak!



LEITZAKO UDALAK
pesta zoriontsuak opa dizkizue leitzar, bisitari eta gurekin egon ezin izan duzuen guztiei

ERRRESPETZKO HARREMANAK
GUSTAZON ERANTZUGO

BURUGOEN BAZKARIA
2023-2024-2025

Lirain
Atropa-dantza

Eibarren 34
LEITZA
676.737.856

ONGIPASA PESTAK!

FERRETERIA · PENTSUAK

ORTIZ

Ongi pasa pestak!

Baserriko galak
Tresnak
Haziak
Sagardoak
Baratza
Ardoak
Kontserbak
Pentsuak
Eraikuntzarako galak

ortizpentsuak@gmail.com
Landa industrialdea 13
31880 Leitza - Nafarroa
T. 948 513 600
www.ortizferreteriapentsuak.blogspot.com.es


Karlos Agirrek botako du pestetako txupinazoa

Bestalde, Saioa Maritorea Telletxea eta Uxue Agirre Caballeroren lanak saritu dituzte Plazaolaren azal lehiaketan

TTIPI-TTAPA

Herritarrek proposatutako izenen artean, hiru hautagai aukeratu zituen Pesta Batzordeak pestetako txupinazoa botatzeko: Karlos Agirre Aurrerako lehendakari ohia, Atekaberts bertso eskola eta Kaxkabeltza merkatarien elkarte. Bada horien artean, herritarren gehien-goak Karlos Agirre aukeratu du, eta bera izanen da abuztuaren 10ean pestei ofizialki hasiera emanen dien txupinazoa piztuko duena.

Urte luzetan izan da Karlos Agirre Zubitur Aurrera elkarte-ko lehendakari. 1972an izendatu zuten aurreneko aldiz eta geroztik askotan izan du ardurra. 2019an egin zion elkarrizketa TTIPI-TTAPA eta honela aitortu zuen: «Nik neronek ez dakitzenbat urte daramatzadan presidente karguan, 20 urte



Karlos Agirre artxiboko irudi batean.

baino gehiago bai. 2004az geroztik ni naiz lehendakaria, baina aurretik beste hiru edo lau aldiz izana naiz. Urte asko dira, eta tartean, gorabeherak eta disgustuak izan ditugu, era-

bakiak hartu beharrak eta haserreak, baina horien gainetik dago elkarteak eman didana».

Plazaola aldizkaria

Aurrera elkarteak Plazaola aldizkariaren azal lehiaketa ere antolatu du aurten. Leire Karrera Aurrerako Pesta Batzordeko kideak TTIPI-TTAPAri kontatu dionez, «16 urtetik gora koetan sei lan eta 16 urtetik beherakoetan lau lan» aurkeztu dituzte. Helduetan Saioa Maritorea Telletxea izan da irabazle eta 16 urtez azpikoetan Uxue Agirre Caballero. Sari banaketa, abuztuaren 10ean, txupinazoaren ondoren egingen dute, udaletxean bertan.

Bestalde, programa osatzeko edukiak ere bildu dituzte. «Hamabost norbanakok eta eragilek parte hartu dute» eta erantzuna ikusita, «oso kontent» mintzatu da Karrera. Abuztuaren 5eko Reparto Egunean banatuko dituzte etxez etxe. «Aurrerak bazkaria ematen die eskelariei eta ondoren, musikarien laguntzarekin herriko auzoetara joaten dira, etxez etxe banaketa egitera. Etxe batzuetan jan-edana ateratzen dute eta giro oso polita izaten da». Bide batez, eskerrak emateko aprobetxatu du tartea Karrerak.

Plazako Pilota Txapelketako finalerdiak ate joka

Aurrera doa Aurrera elkarteak antolatutako Plazako XXX. Bina-kako Pilota Txapelketa. Maiatzaren 6az geroztik hamasei bikotek parte hartu dute txapelketan, bi multzotan banatuta, eta multzo bakoitzeko lau bikote sailkatu ziren final laurdenetara. Azken asteotan final laurdenetako partidak jokatu dituzte eta azken orduko aldatarik ez bada, finalerdiak larunbat honetan, hilaren 29an, jokatuko dituzte. Hirugarren eta laugarren postuetako partida eta final handia abuztuaren 5ean egingen dituzte.

Atekabeltzeko film labor lehiaketako lanak ikusgai

Asteazkenera bitarte jaso dituzte Atekabeltz Gazte Asanbladak aurten XI. aldiz antolatu duen film labor lehiaketako lanak. *Pestak* izan da aurtengo gaia eta ostiral honetan, uztailearen 28an, 22:30ean, jendaurrean ikusgai jarriko dituzte.



LIERNI SAGASTIBELTZAK UTZITAKOAK

Aurrera: «Eskerrik asko eta aupa Leitza!»

Euskal Herriko Herriarteko Pilota Txapelketako finalaren atarian gelditu da Leitza, uztailearen 15eko finalerdietan Markina-Xemeingoen kontra hiru partidak galduta. Baina horren gainetik «harro» mintzatu da Aurrera pilota elkarteak finalerdietan parte hartu dutelako. «Egun zoragarria» izan zela nabarmendu du eta eskerrak eman nahi izan dizkie Zumarragara joan ziren pilotazaleei.

Uda honetan ere futbol campusa antolatu dute

Lau eta hamalau urte bitarte-koentzako udako futbol campusa antolatu du aurten ere Aurrera elkarteak eta neska-mutikoakaste honetan hasi dira. Aurreneko txanda ostiralera, uztailaren 28ra, arte izanen da, eta bigarrena uztailaren 31tik abuztuaren 4ra.

Baserritarren elikagaiak pestetan Atekabeltzen

Abuztuaren 10etik 15era mendialdeko baserritarrek ekoiztiko elikagaiekin jatekoa eskainiko du Habelarte elkarteak Atekabeltz gaztetxean, aurreratu duenez, «jateko sana, prezio justuan». Auzolanean egingen den ekimen honen bitartez, «aldarrikapenak kalera atera, herritarreizerbitzua eman eta dirua bildu» nahi du Habelartek. Norbaitek txandaren batean parte hartu nahi badu 618 25 50 41 edo 688 69 86 12 telefonora deitu edo idatzi dezake. «Jaietan ere burujabe izateko» deia egin du.

Plastikozko ontzien kontrako kanpaina abian

Mendialdea Mankomunitateak ontzi garbigailuak eta edalontziak eskura jarriko ditu jende asko biltzen den ospakizunetan

TTIPI-TTAPA

Herrietako festak ate joka diren honetan, Mendialdea Mankomunitateak plastikozko edalontzien kontrako kanpaina prestatu du. Helburua garbi du: «erabilera bakarreko plastikozko edalontzirik ez erabiltzea, eta, era berean, herritarrei gogoraraztea jaietako ekitaldietan ere hondakinak behar bezala bereizi eta bildu behar direla».

Erabilera bakarreko materialen erabilpena saihesteko, Mankomunitateak jende asko biltzen den jaiak eta ospakizunak antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen eskura jarriko ditu ontzi garbigailuak eta edalontzi berrerrabilgarriak. Hau da, Mendialdea Mankomunitateko elkarte, toki erakunde, ikastetxe, talde, sozietate eta partikula-



Edalontziak garbigailuan.

rre erabili ahal izanen dute zerbitzu hori.

Ontzi garbigailua eta edalontzi berrerrabilgarriak mankomunitatearen jabetzakoak dira, eta ekitaldia antolatzen

duen pertsona fisiko edo juridikoei doan utziko zaizkie maileguan.

Eskaera 15 egun lehenago egin beharko da. Ontzi garbigailua eskatuz gero, eskaerarekin batera, ontzi garbigailua non jarriko den zehaztu beharko du eskatzaileak, mankomunitateak, udalarekin lan-kidetzan onar dezan. Udalak eta mankomunitateak uste badute kokapena egokia dela, ontzi garbigailua utziko diete antolatzaileei.

Eskatutako materialak jaso aurretik, eskatzaileak dagokion fidantza jarri beharko du: 20 zentimo edalontzi bakoitzeko eta 300 euro ontzi garbigailu bakoitzeko. Eta eskatzailea bera izanen da eskatutako materialak garraiatzearen arduraduna, eta ezarritako epean eta moduan itzuli beharko ditu (ekitaldia amaitu eta 7 egun naturaleko epean, ontziak behar bezala garbituta eta ontzi garbigailua akatsik gabe).

Hautsitako edo galdutako edalontziak ordezkatzeko eskatzailearen kontura izanen da, bai eta ontzi garbigailua gaizki erabiltzeak eragindako konponketa gastuak ere, dagokion fidantza itzuli gabe kobratuko baita.

ORAIN EZ DUZU AITZAKIARIK

EDALONTZI BERRERABILGARRIA ERABILI ETA ITZULI



Kurbak zabaltzeko lanek hiru hilabete iraunen dute.

Leitzara doan bidea ez dute hilabete erdiz erabat itxiko

Aste honetan, larunbatera arte 08:00etatik 19:00etara itxita edukiko dute eta lanorduetatik kanpo irekia

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 10ean hasi zituzten goiko zentralerako bi kurbak zabaltzeko lanak eta ondoko asteetan Leitzara doan errepidean trafikoan eragina izanen dute obrek. Hasiera batean uztailaren 17tik aurrera, errepidea hilabete eta erdiz erabat itxiko zutela adierazi zuten, baina udalak neurri batean eragina murriztea adostu du lanak egiten ari den Obenasa enpresako arduradunekin.

Errepidearen egoeraren berri astero emanen du udalak. Aste honetan, adibidez, astelehenetik larunbatera arte,

uztailaren 29ra arte, 08:00etatik 19:00etara itxita edukiko dute, eta gainerako orduetan, hau da, lanorduetatik kanpo irekia. Lanek hiru hilabete iraunen dute.

Zerbitzuetan eragina

Trafikoaz gain, bestelako zerbitzuetan ere eragina sortu dute errepideko obrek. Lanek irauten duten bitartean, harategia goizez bakarrik irekiko dute, 09:00etatik 13:30era, eta farmazia astelehenetik ostiralera, 08:30etik 16:00etara, eta larunbatetan betiko ordu-tegiarekin.

Abuztuan lanean aritzeko langilea hartuko du udalak

TTIPI-TTAPA

Abuztuan aritzeko, tartean abuztuaren 14tik 19ra festetan aritzeko, langilea hartuko du udalak. «Festek sortzen duten lan karga haundiari» erantzuteko hartuko du langilea, eta festetan lan egiteaz gain, besteak beste, mendiko lanetan,

herriko kale eta espazio publikoak garbitzen, eta herriko azpiegituren mantentze lanetan ari beharko du.

Eskaintzak aurkezteko epea uztailaren 21ean bukatu zen, eta hautaketa prozesuak ariketa teoriko-praktiko idatzizko bakarra izanen du.

Goizueta-Hernani linean bidaltzeko dirulaguntza

TTIPIK-TTAPA

Garraio Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren eta Lurralde Kohesiorako Departamentuak Goizueta-Hernani linea erregularrean bidaiatzeko dirulaguntzak edo bonuak eman ditu. Zehazki, % 50eko deskontua izanen dute.

Baldintzak

Hamar bidaiako bonuak dira, pertsonalak, hau da, bonu horiekin ezin izanen da beste norbaiten txartela ordaindu. Autobusean eskura daitzke eta 2024ko urtarrilaren 31n bukatuko da erabiltzeko epea.

Hamar txartelen orain arteko prezioa 27,50 eurokoa zen eta deskontua aplikatuta 13,75 euro balioko dute; gazte txartela eta familia ugariaren egiaztagiria zutenek 22 euro ordaintzen zituzten lehen, eta bonuarekin 11 euro ordaindu beharko dituzte; gazte txartela eta familia ugariaren egiaztagiria, biak, dituztenentzat lehengo prezioa 17,60 eurokoa zen eta bonuarekin 8,80 eurotan gelditu da.

Hamar bikote Gazte Eguneko Pilota Txapelketan

Martxan da Gazte Eguneko II. Binakako Pilota Txapelketa. Hamar bikote apuntatu dira eta Iker Miranda antolatzailearen hitzetan, «herrikoak eta inguruko herrietakoak» dira. Bikoteak zozketa bidez bi taldeetan banatu dituzte eta hasteko ligaxka jokatu dute. Ligaxka bukatuta, talde bakoitzeko bi hoberenek aurrera egingen dute eta lau bikote horien artean, berriz ere zozketa bidez zehaztuko dituzte finalerdietako partidak. Ligaxkako eta finalerdietako partidak larunbat arratsaldetan jokatu dituzte eta finala abuztuaren 14an.



Iazko Gazte Eguneko finala. FELIX LOIARTE



FELIX LOIARTE

Giro ederra izan dute Karmen bezperan

Umore Ona elkartearen eskutik, berriz ere Karmen bezperako festa ospatu zuten herritarrek uztailaren 15ean. Norberak eramandakoarekin plazan egitekoa zuten herri afaria, baina ekaitzaren beldur, ikastolako aterpean egin zuten azkenean. Ondoren, sua piztu eta saltoka ibili ziren.



21 kilometroko itzulia osatu beharko dute mendizaleek. E. IRAOLA

Irailaren 3an egingo dute Aresoko Mendi Itzulia

Itzulia 21 kilometro eta 1.200 metroko malda izango du eta gainerako xehetasunak festa ondoren lotuko dituzte

ENERITZ IRAOLA

Irailako lehenbiziko igandean egingo dute Aresoko XIV. Mendi Itzulia eta mendizaleek 21 kilometro egiteko aukera izango dute, lauzpabost orduz.

Irailaren 3an, 08:00etan, hasiko da itzulia. Plazatik abiatu eta Urteaga (606 m), Ulizar (867 m), Merkuzelai (720 m),

Urkita (850 m), Pagozelai (705 m) eta Lau Mugarrietan (Guratz, 955 m) barrena egingo dute ibilaldia. Guztira 21 kilometro izango dituzte eta 1.200 metroko malda.

Kirol Mankomunitateko arduradunak eta herritarrek festa ondoren egingo dute eguneko xehetasunak lotzeko bilera.

Festetako bazkari eta afarietarako txartelak salgai jarri dituzte

E. IRAOLA

Areson festarik bada, otordurik ezin da falta eta aurtengo herriko festetan ere halaxe izango da. Abuztuaren 14an, guraso elkarteak antolatutako afariarekin hasiko dituzte mahaiaren bueltako bilkurak. Azken urteetan bertaratzen zirenek momentuan ordaindu izan dute afaria, baina aurtengoa txartelak aldeztu aurretik erosi beharko dituzte. Sastinean eskura daitzke: Hurrek (6-16 urte) 13 euro eta helduek 22 euro ordaindu beharko dituzte. Afarietarako zopa, entsalada, txekor saiheskia, postrea, kafea, pastak eta kopa izango dituzte. Txartelak erosteko azken eguna abuztuaren 6a izango da.

Abuztuaren 16ko herri bazkarira joateko txartelak ere abuztuaren 6rako erosi beharko dira. Aurtengoa ere, Sarayola



Entsaladak prestatzen. E. IRAOLA

kateringua arduratuko da. Helduek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta hurrek (3-12 urte) 13 euro. Bazkalondoan Alaia Martin eta Joanes Illarregi ariko dira bertsotan.



Xabier Olazabal eta Modesto Lasa txistulariak. E. IRAOLA

Herriko txistulariek izango dute festei hasiera emateko ardura

E. IRAOLA

Aurtengoa ere, herriarentzat bereziak diren pertsonak izango dira festei hasiera emango dietenak. Duela lau urte hasi ziren aukera hau eskaintzen. Orduan, adineko emakumeak izan ziren festei hasiera eman zietenak eta bi urtez festarik gabe egon ondoren, iaz herriko

kirolariak izan zuten ohorea. Aurtengoa ere, musikariak txanda izango da. Xabier Olazabal eta Modesto Lasa txistulariek izango dute festei hasiera emateko ardura. Urteak daramatzate herriko txistu doinuak zabaltzen: goizeko dianoan, Ingurutxoan... Horregatik, herritarren omenalditxoak jasoko dute festetan.

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad
www.kulturkari.com

Olanak, Roll-up PVC

Zuloekin izkinetan, errefortzu bikoitza, formatu handiak, mikroperforatuak...

«Ezin dugu galtzen utzi gure artean bortz mila urtez egon den zerbait»

ION DUFURRENA IÑARREA ERRATZUKO KAIKUGILEA

Artisautza hurbiletik ezagutu izan du Ion Dufurrena erratzuarrak ttikitatik, eta egurra lantzen du gaur egun. Zurgintzaz eta kaikuen sorkuntzaz solastatu da TTAPI-TTAPArekin

R. OSKARIZ ERRATZU

Eskuekin lan egiten duen erratzuarra da Ion Dufurrena Iñarrea. Abeltzaina ofizioz, zurgintza du afizio, eta Iriarte sortetxean duen tailerrean lantzen du egurra modu tradizionalan. Hainbat tresna sortzen ditu, baina batez ere kaikuak ditu espezialitate, Santi Oteiza maisuak erakutsi bezala egiten baititu gaztetatik.

Noiz hasi zinen egurra lantzen?

Etxean betitik aritu izan naiz egurrean lan ttiki batzuk egiten, ikastolan nintzelarik laurburuak eta horrelakoak egiten nituen. Baina 18 urte bete behar nituenean Santi Oteizarengana joaten hasi nintzen Erratzun, eta orduan ikasi nuen kaikuak egiten. Negu hartan larunbat goiz edo arratsaldetan joaten nintzen, eta zenbait lan egiten nituen. Ondotik nire kontu segitu nuen etxean eta gaur arte.

Praktika aunitz eskatzen du?

Oinarrizko zerbait egiteko ez, baina gauzak hobetzen joaten bazara, azkeneko xehetasunak eman eta fin-fin uzteko, praktika behar da. Orduak eta orduak pasatu behar dira, eta beti segitzen da ikasten. Joan den urtean egindako lanak ikusita akatsak ikusten ditut eta badakit zertan hobetu.

Gaur egun lantegia etxean duzu, ezta?

Bai, lehenagoko ukuilua zena da nire tailerra. Etxean beti izan dugu zurgintza presente,



Erratzuko sortetxean du zurgintza tailerra Dufurrenak. UTZITAKOIA

«ETXEAN BETI
IZAN DUGU
ZURGINTZA
PRESENTE»

«EUSKAL HERRI
GUZITIK DEITZEN
DIDATE KAIKUAK
ESKATZEKO»

eta lehen aita sabaian aritzen zen. Baina behiak ukuilutik atera nituenean, lantegia hemen paratu nuen.

Zein produktu egiten dituzu?

Kaikuak gehienbat, baina artzain munduko gainontzeko tresnak ere egiten ditut: zimitza, abatza, kartola, malatsa, oporra, iragazkia, koxetaren bat edo bertze, sega kiderrak... aldatzea gustatzen zait, beti berdina ez egiteko. Bertzelako tailu lanak ere egin izan ditut, kutxak eta etxeen izenak, adibidez. Hala ere, kaikua da dudarik gabe jendeak gehien nahi izaten duena, Euskal Herri guzitik deitzen didate kaikuak bakarrik eskatzeko.

Zenbat denbora behar izaten duzu kaiku bat egiteko?

Neurriaren arabera, 4-5 ordutatik 20-30 ordutara, edo gehiago. Gainera, ez da berdina kaiku ttiki bat egiteak duen lana, edo haundi batek pisu gehiago du eta dena eskuz egin behar denez, gehiago kostatzen da mugitzea edo erabiltzea. Litro eta erdi edo bi litroko kaikuak egiten gustura aritzen naiz, baina haundiek aunitzez ere esfortzu gehiago eskatzen dute.

Eta zein material erabiltzen duzu?

Kaikuak egiteko erabiltzen dudana egurra urkia da, eta taillaketak egiteko haritza edo gaztaina, inguruan dudana. Duela 25 urte hasi nintzen etxe bazterrean urkiak landatzen eta badituz parrasta bat. Gainera, auzolanean arbolaren bat botatzen badute, edo haizeak baten bat botatzen badu, aprobeztatzeko deitzen didate eta bila joaten naiz.

Saltzeaz gain, zuk ere erabiltzen dituzu?

Bakarren bat, etxean noizbait gaztanbera egiteko, baina guttitan. Lehenago zituzten zaintzeko teknikak galdu dira eta arras zaila da. Kaikua delikatua da esnearekin erabiltzeko, eta prestaketak eta hainbertze pauso eta prozesu ezagutu behar dira.

Gaur egun hainbarte ikusten ez den lana da. Uste duzu inportantea dela eskulangintzaren tradizioa mantentzea?

Dudarik gabe. Antropologo bat izan behin hemen, eta erran zidan kaikua dela euskararekin batera Euskal Herriko jatorrizko gauza bakarra, hemendik kanpo ez baita bertze inon aurkitu. Kristo aitizineko bi edo hiru mila urte lehenagotik ezagutzen da. Gure artean bortz mila urtez egon ondotik, hain gurea den zerbait galtzen uztea, arras larria iruditzen zait.

Zure lana erakusteko bisita gidatuak ere egiten dituzu, ez?

Bai, baina orokorrean etortzen direnak ez dira arratsaldea pasatu nahi duten turistak, gaian interesa dutenak baizik. Aunitz harritu naue-na da Euskal Herri guzitik etortzen dela jendea espresuki hau ikustera. Espainiatik ere etorri izan dira, liburu batean ikusi zutela eta kristoren interesa zutela. Etortzen direnak egiatan ikusi nahi dutelako etortzen dira, eta haiek ikasten dute baina nik ere bai, beraien esperientzia kontatzen baitute aunitzetan.

Artisautzaz gain abeltzaintzan ere aritzen zara...

Bai, izatez nekazaria naiz, zurgintza zaletasun bezala hasi nuen. Orain dela hiruzpalau urte jakin nuen dibertsifikazio laguntza batzuk bazeudela, eta tailerra mun-



Kaikuez gain, artzaintzarako bertze hainbat tresna egiten ditu Dufurrenak egurrekin. UTZITAKOIA

tatzeko erabili nuen. Orain profesionalki aritzen naiz egurrekin lanean. Hala ere, eskulangintzatik bizitzea ez da posible. Gainera, jendeak ez du ulertzen kaikuak ezin direla bakoitzak nahi duen neurria egin; neguan hustu ditudan arbolan arabera egiten dut lan. Neurri jakin bateko kaikua nahi dutenek hurrengo urtera arte esperatu behar izaten dute, halako arbola husteko.

Zein aziendarekin egiten duzu lan?

Haragitako behiak ditut gehienbat, baita ardi batzuk eta zaldiren bat edo bertze.

Abeltzaintza tradizionala ere gero eta guttiago ikusten da. Nola ikusten duzu Baztanen?

Arras gaizki, azken urteetan afera buruz beheiti doa arras, eta ez dakit zer gertatuko den. Gerra dela, idortea dela eta pandemia dela, pentsua-ren prezioak goiti egin du,

eta haragia zerbait goratu bada ere, ez proportzionalki. Faktore haundienak ez daude gure esku, eta arras zaila da konpontzeko.

Etorkizunera begira, abeltzaintzan eta eskulangintzan segitzeko asmoa duzu?

Bai, erretiratu arte behintzat bai, eta jubilatuta ondotik zaletasun gisa segituko dut zurgintzarekin. Aunitz gus-tatzen zait eta ez nuke gal-tzera utzi nahiko.

Padro Avular kamika, 2 Elizondo

BERTAKO IRAKASLEA

Matrikula irekita abuztuaren 31ra arte

**Lehen hezkuntza
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)**

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

ANZABAL

Inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Desgaituendako eguneko egoitzaren idazketa esleitura

Ornoz-Mugairiko Zunda etxean egiten dute proiektua eta 400.000 euro ingurukoa izanen da

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, Tokiko Gobernuko Batzordearen bidez, Oronoz-Mugairiko Zunda etxean egin nahi den proiektuaren idazketa esleitu du. Zehazki, adimen desgaitasun duten herritarrendako eguneko egoitza izanen da.

Bortz enpresari helarazi zitzaizkien prozeduran parte hartzeko gonbidapena eta bik aurkeztu zuten proposamena. Doneztebeko Apeztegui Elizalde Arkitekto Mikrokooperatibak aurkeztu zuen onena, eta bere esku gelditu da proiektuaren idazketa.

Udalak gogoratu duenez, «maiatzeko osoko bilkuran Udaltzako proiektuaren idazketarako esleitu ahal izateko aurrekontu moldaketa onartu zuen, eta orain 23.739 eurotan (BEZa kanpo) esleitu da proiektuaren idazketa. Horietatik 18.000 euro Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialen departamentuak esleitutako dirulaguntzari esker finantzatu dira».

Aurrekontu moldaketaz gain, «zentroa egin ahal izateko



Ornoz-Mugairiko Zunda etxea.

eskualdeko gainerako udalekin hitzarmena egitea onartu zuen Udaltzako maiatzeko osoko bilkuran. Izan ere, hilabeteak dira eskualdeko udalak elkarlanean ari direla eguneko egoitza egiteko eta Oronoz-Mugairiko Zunda etxean egitea erabaki dute. Baztanen egiten denez, Baztango Udalak eskatuko du dirulaguntza eta baita proiektua idatzi, zuzendu eta gauzatu ere».

Egoitzaren memoria teknikoaren arabera, proiektu osoa 400.000 euro ingurukoa izanen da; memoria, idazketa, zuzendaritza eta lanak barne. Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko du, eta BEZa udalek bere gain hartuko dute.



NAIARA ARIZTIA

Giro ederra Azpilkuetako bestetan

Urtero bezala, sanferminak bikainak izan dira Azpilkuetan. Antolatzaileen erranetan, «egun arras politak izan dira, mahai inguruan denak elkartuak eta goxotasunean egon garelako. Haur, heldu eta gazteak denak batera elkarrekin disfrutatzen ikustea da egun hauetako gauzarik hoberena!».

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jarzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)


Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, SL
BESTEEN ENBROGIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

II. Liburu Mikro Azoka abuztuaren 6an Txokoton

Joan den urteko azokaren arrakasta ikusita, Txokoto tabernak bigarren edizioa egitea erabaki du aurten. Egun osoko egitasmoa izanen da, 20 liburu denda eta argitaletxe parte hartuko dute eta liburu aurkezpenak eta musika karrikan ere izanen dira.



Finisher taldean aritu da orain arte txirrindulari gaztea. EQUIPO KERN PHARMA

Diego Uriarte erratzuarra profesionaletara

Finisher taldeko Sub-23 kategoriatik Kern Pharma elite taldera eginen du salto ziklistak hurrengo denboraldian

TTIPI-TTAPA

Barañainen bizi den erratzuarra Finisher taldearekin hasi zen jubencil mailan, eta Sub-23 kategorian aritu da azken aldian. Erreferentziatzko txirrindulari, hiru garaipen lortu ditu: San Juan Sari Nagusia 2022an; LXIX. Gran Premio de Primavera Ontur 2023an eta V. Trofeo Electricidad Robert Inno-va aurten ere. Orain bertze pauso bat eman du bere ibilbidean, eta Kern Pharma elite taldean hasiko da hurrengo denboraldian.

Juanjo Oroz taldeko manager orokorrak adierazi duenez,

«taldearengan pentsatzen du bere buruan baino lehen, eta taldekideen alde lan egiten du beti. Baina gehien erakarri gaituena denboraldi bakoitzean eman dituen aurrerapausoak izan dira, jubenilekin ailegatu zen taldera eta bila-kaera arras ona izan du. Jarra-eraredugarria dauka, taldearen interesak lehenesten ditu eta ausarta da. Sub-23ko etapa erakustaldi ederrak eginez bukatu du, eta gurekin urte aunitzez egotea gustatuko litzaiguke». Oraingoz, taldean bere lekua izanen du 2025era arte. Zorionak!



Giro ederra izanen dute Zigan abuztuko bigarren astean. ARTXIBOTIK

Zigako San Lorenzo bestak ospatuko dituzte abuztuaren 9tik 12ra

TTIPI-TTAPA

Herriko gazteek egitarau oparoa antolatu dute lau egunetarako:

Abuztuak 9, asteazkena

20:00etan txupinazoa eta ez-kilajotzea izanen da. 20:15ean trikitalariak herrian barna ibiliko dira eta 21:00etan baztan zopak janen dituzte. 00:00etan dantzaldia izanen da Bixenterekin.

Abuztuak 10, ortzeguna

10:00etan dianak eta 11:00etan meza nagusia izanen dira. 12:00etan luntxa eginen dute plazan aizkora erakustaldiarekin. 18:30ean kantaldia izanen da Erramun Martikorena eta Joxe Angelen eskutik. 20:00etan joaldunak ibiliko dira Hauspolariek taldearekin eta 22:00etan zingar jatea eginen dute.

Abuztuak 11, ortziralea

10:00etan dianak eta 11:00etan haur jokoak izanen dituzte. 14:00etan haur eta herri bazkariak eginen dira. 17:00etan puzgarriak izanen dira eta 17:30ean mus txapelketa. 18:30ean pala txapelketako finala jokatuko dute. 19:00etan txokolatada izanen da eta 20:00etan dantzaldia Andonirekin. 22:00etan paella janen dute eta 00:00etan dantzaldia izanen da Andonirekin.

Abuztuak 12, larunbata

10:00etan dianak izanen dira. 11:30ean haurren frontenis txapelketa jokatuko dute eta 14:00etan zikiro jatea izanen da Andonikalaiturik. 20:00etan dantzaldia izanen da Joselu Anaiak taldearekin, 22:00etan zingar jatea eta 00:00etan dantzaldia berriz Joselu Anaiak taldearekin.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean






Azken urteetan antolakuntzan aritutakoek ireki zuten desfilea. VALLEDEBAZTAN.COM



Gartzaindarrek artoaren erabilera prozesua irudikatu zuten. VALLEDEBAZTAN.COM

60. Baztandarren Biltzarra arrakastatsua

Orgen desfilean Gartzain izan zen garaile, Ziga bigarren eta Elbete hirugarren. Iruritik ezin izan zuen parte hartu

TTIPI-TTAPA

Baztandarren Biltzarrak 60. edizioa ospatu zuen uztailaren 16an Elizondon, eta giro ederra izan zen herriko karriketan egun osoan. Eguraldi ezin hobearekin, ohiko egitaraua izan zuen bestak: goizean orgen desfilea eta artisauen azoka, ondotik bazkaria eta sari banaketa Merkatuko zelaian, eta eguna borobiltzeko kontzertuak eta besta pilotalekuan. Baztandarren Biltzarra elkarteko kideek antolatua eta baztandarrek auzolanean aitzinera eramandako besta izan zen bertze behin.

Orga apainduen desfilea

Iturengo joaldunek ireki zuten desfilea, eta orain arte Baztandarren Biltzarra elkarteko kide izandakoak arduratu ziren banderak eramateaz, azken urteetan egindako lana aitortu eta eskertzeko. Orgei dago-kionez, 14 bakarrik atera ziren, ohiko 15ak izan beharrean. Izan ere, dena prestatzeko lan handia egin ondotik, karroaren ardatza hautsi zitzaizen iruritarrei azken orduan, eta ezin izan zuten parte hartu.

Gainerako herriek ordezkaritza izan zuten desfilean, eta orga ikusgarriak eta antzerki umoretsuak aurkeztu zituzten. Musika eta dantza ere ez ziren faltatu: Euskal Herriko txoko guztietako dantza taldeak izan ziren herriko karriketan, baita Baztango eta eskualdeko musikari eta dantzariak ere.

Bazkalondoan sari banaketa egin zuten, eta joan den urteko hiru herriek osatu zuten podiuma berriz, ordena aldatuta: Gartzain irabazle, Ziga bigarren eta Elbete hirugarren.

Gartzaindarrek XX. mendera arte etxalde gehienetan artoari ematen zitzaion erabilera irudikatu zuten orga ikusgarriarekin; ereite eta bilketatik, irin eta taloen prestatetaraino. Zigatarrek txondorraren funtzionamendua, ikazkinen lana eta ikatzaren salerosketa erakutsi zuten organ, antzerki bikainarekin. Elbetearek 38 urte bete dituen Autxitxia gasnategia eta aurten erretiratu den Ramon gasnagilea omendu nahi izan zuten, gasna egiteko prozesu osoa erakutsiz orga eder batean.



Zigako ikazkin gazteak lan eta lan aritu ziren. VALLEDEBAZTAN.COM



Elbetearek gasnagile bihurtu ziren Autxitxiaren omenez. VALLEDEBAZTAN.COM



Eskualdeko dantzariak ere desfilean parte hartu zuten. VALLEDEBAZTAN.COM

Balkoi eta leihoak lorez apaintzeko sariketa martxan

Abuztuaren 4ra arte izanen da izena emateko epea eta abuztuaren 12an emanen dituzte sariak


TTIPI-TTAPA

Arras Baztan fundazioak balkoiak eta leihoak apaintzeko Baztan mailako III. Loraldia sariketa antolatu du. Herrietako «ingurumen kalitatea eta irudia hobetzea» da lehiaketaren helburua, «landareek eta loreek bizitzeko herri eder eta gozagarriagoak egitera laguntzen dutelako».

Baztandar guztiak parte hartzen ahalko dute lehiaketan eta izen ematea abuztuaren 4ko 12:00ak arte egonen da irekia. Interesa dutenek baztan@arrasbaztan.eus helbide-

ra idatzi, 948 580 006 telefono zenbakira deitu, edo udaltxerak hurbildu beharko dute (astelehenetik ortziratera 09:00etatik 14:00etara). Izen abizenak, helbidea, telefonoa eta e-maila eman beharko dira.

Sari banaketa abuztuaren 12an izanen da, Bertan egunean, Elizondoko plazan 12:00etan. Guztira sei sari emanen dituzte, guztiak maila berekoak; Arras Baztani atxikitutako ekoizle, saltoki eta zerbitzuetan erabiltzeko 50 euroko bonua.



Diana Iniestaren eta Tomas Sobrinoren lanak ikusteko aukera izanen da abuztuan.

Diana Iniestaren eta Tomas Sobrinoren erakusketak Erratzun eta Elizondon

TTIPI-TTAPA

Artea gustuko dutenek bi hitzordu dituzte Baztanen uda honetan. Alde batetik, Diana Iniestak *Allegro vivace* margo erakusketa aurkeztu zuen uztailearen 19an bere Erratzuko pintura eskolan. Ikusgai egonen da hilaren 29tik 31ra, baita abuztuaren 1etik 4ra,

9tik 15era, 19tik 25era, 30ean eta 31n ere, 18:30etik 20:30era.

Bertzalde, Tomas Sobrinoren *Lau urtaroak* erakusketa ikusgai egonen da Arizkunenean uztailearen 29tik irailaren 3ra. Astelehenetik ortziratera 18:00etatik 21:00etara eta asteburuetan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara.



Urtero bezala, argazkia egin zuten udaletxearen aitzinean. MAITE URIARTE

Saharako haurrei ongi etorria egin die Baztango Udalak

TTIPI-TTAPA

Baztango alkateak harrera egin die Saharaztanen Oporrak bakean egitasmoarekin uda pasatzera etorri diren haur sahararrei, haien harrera familiei eta Saharako herriaren ordezkariari. Bertan izan zen Mohamed Abdalahi Ragani, Saharar Errepublika Arabiar

Demokratikoak Nafarroan duen ordezkaria.

Talde argazkia egin zuten udaletxearen aitzinean eta gero bilkura aretoan izan zen ekitaldia. Anbustegik, Raganik eta Saharaztaneko Arantxa Gamiok hartu zuten hitza, eta akitzeko alkateak opari bana eman zien bederatzi haurrei.



BLANCA JIMENEZ

Joxe Joakin Azkarateri omenaldia

Duela bi urte hildako Joxe Joakin Azkarate aniztarra oroitu zuten uztailearen 6an, lore eta kanta artean, bere familiak, lagunek eta Gaztelu Taldeak. Musika eta lorezaintza zituen zaletasun Azkaratek, Lorategi Auzolanean taldeko kide zen eta Elizondoko Abesbatzan nahiz Amaiurren abesten zuen.

MARMOLÉS
SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

ZUGARRAMURDI



Ezkila-dorrea usoetatik babesteko sarea paratu dute. MARIFA ETA KORO

Usorik ez sartzeko sarea eman dute ezkila-dorrean

Uztailaren 8an egin zuten malobra, hegaztiak itaxurak sortu dituztelako elizan eta argiteria ere moldatu dute

MARIFA ETA KORO

Malobra polita egin zuten uztailaren 8an herritar kuadrilla batek elizako ezkila-dorrean. Usoak pausatzeko tokia bihurtua zen, eta horrek arazo handia sortzen zuen, batez ere, beraien zikinekin ura ateratzeko bidea tratatzen zutelako, eta horrek eliza barnera itaxurak sortzen zituelako.

Orain ezkilen barneko aldeetik sare bat eman dute, usoek barnera sartzeko aukerarik izan ez dezaten. Horrek ezkilen mugimendua oztopatzen duela egia da, baina ez du garrantzirik izanen, gaur egun

elektronikoki jotzen dutelako, ezkilak mugitu beharrik gabe. Edozein maneretan, sarea kendu eta berriz paratzeko maneretan emana da. Gisa horretara, noizbait ezkilak eskuz jo nahi baldin badira, aukera hori ere posible da.

Argiteria eta eskailerak ere konponduko dituzte

Ondarea babesteko beharrezkoa zen lan hau egiteaz gain, ezkila-dorrera doan argiteria ere konpondu dute. Eskailerak ere franko hondatuak dira, eta hori konpontzeko lana zurgin bati eman zaio.



Salmenta politik egin omen zituzten parte-hartzaileek. MARIFA ETA KORO

Bigarren eskuko merkatua egin dute uztailaren 15ean frontoian

Uztailaren 15ean bigarren eskuko merkatua egin zen. Hasieran Elizargietetan egitekoa zen, baina euri arriskua izanik, frontoian egin zen. Bistan da toki gorde eta itxi batean eginez, ez zuela arrakasta handirik izan. Hala ere parte hartzaileak salmentekin kontent gelditu omen ziren.



Jubilotekakoak taloak saltzen.

Ahate jokorik ez da izanen bestetan, bildots ile mozte eta mus txapelketak bai

MARIFA ETA KORO

Herriko Andre Mariko bestak ate joka ditugu, eta programa ia-ia egina dago. Horren berri, luze eta zabal, agorrileko aldirian izanen dugu. Jakin dugunez, eta zerbait aitzineratzeko, aurrean aldaketa zenbaitzuk badaude: ahate-jokoa

ez da egingen, baina bertze gisako aziendak ikusiko ditugu. Izan ere, bildots ile mozte txapelketa bat antolatu baita abuztuaren 16rako, asteazkerako. Bertze berrikuntza bat mus txapelketa dugu, abuztuaren 17an egingen dena, ortzegunarekin.

JOSENEA ZONE AUTO

GARBIKETA ZENTRO BERRIA AUTOZERBITZUA DANTXARINEAN

Merkatuko Makinariak Berrienak

- * 2 garbigailu 8 kilona arte
- * 2 garbigailu 14 kilona arte
- * 4 lehorgailu 14 kilona arte

Ordainketa: **Speed @ween** app-aren bidez egin daiteke

+34 948 599 236 • www.josenea.es • centrauto@josenea.es

Egunero 7/7 irekita, 08.00 - 20.00

Josenea Zone Auto (Dantxarineko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarinea Nafarroa.

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Ikaburuko lezearen egunean parte hartu zutenetako batzuk. ARANTXA ETA IRAIA



Iñaki Libano, sua lehengo erara pizten. ARANTXA ETA IRAIA

Ikaburuko lezearen eguna giro ederrean ospatu dute

Bederatzigarren edizioan sua aitzinako erara piztu zuen Iñaki Libanok, Edestiaurre Elkarteko presidentek

ARANTXA ETA IRAIA

Uztail erdialdera urteroko hitzordugarrantzitsua hurbiltzen zaigu: Ikaburuko lezearen eguna. Aurten ere, bederatzigarren edizioan, programa oparoarekin hartu zuten uztailaren 15ean hurbildu zen jendea. Artisauak, tailerrak, lezeetako bisita bereziak, magia ikuskizunak eta artisauen produktuez betetako saski baten zozketa izan ziren eguneko protagonistak. Aipatzekoa da aurten ere eguerdi aldera, lezeetako bisita berezia izan zela. Kanpoan historiaurreko tekniken tailerretan

Iñaki Libanok, Edestiaurre Arkeologia Elkarteko presidentek, egindako suak argiturik sartu ziren lezeetar, lehengo usaiak ekarritik. Zehazki, duela 400.000 urte bezala egin zuten sua. Behin lezearen barnean, su ttipi horiek emandako argitasunarekin bakarrik, gure herrian hain ezaguna den bisonte bat marraztu zuten. Esperientzia berriez gozaturik, heldu den urtearen zain geldituko gara!

Goio Hualde, lezeko arduradunak aipatu zuenez, «urtean 35.000 bat lagunek bisitatzen eta ezagutzen dute lezea, bai-



Kanpoan piztutako su horrekin argitu zuten leze barnea. ARANTXA ETA IRAIA

na udan, sanferminak pasatu arte ez da egiazko martxa hasiten». Beraz, hemendik iraileira espero dituzte bisitari gehienak.

XV. Burdinaren Eguna agorrilaren 5ean

Udako bertze hitzordu garrantzitsua, agorrilaren 5eko Burdinaren Eguna izanen da. Aurtengoan hamabosgarren edizioa beteko du, ohiko egitarauarekin.

Goizeko ekitaldiaz eta egun osoan izanen den artisauen azokaz gain, bazkaria ere izanen da herriko plazan, zikiro jatea. Eguerdian, ohi bezala, burdin mineralez kargatutako idiak ailegatuko dira Axular baserritik plaza ingurura eta urtero bezala, burdina urrezko txanponengatik trukatzeko ekitaldia egingen dute, Bizkaiako benakeroek eta Salvatore monasterioko abadeak tratua egiten dutenean.

Ongietorria egin zioten uztailaren 18an Euskarabentura ekimenari herrian

ARANTXA ETA IRAIA

Gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko eta euskal kultura ezagutzera emateko Euskarabentura ekimen honek aurten bere geldialdia Urdazubin egin zuen uztailaren 18an. Gazte kuadrilla ederra etorri zen haien udako

abenturarekin batera Axularren herrirat, Lesakatik abiatutako etapan, euskal kulturaren eta euskararen aldeko aldarria eginez.

Aurten lehen urtea izaki, espero dezagun bertze urteetan ere gazte hauek berriz ikusteko aukera izatea!





Gazte Komitea biziki kontent gelditu da besten ondotik. JL BESSONART

Bestetako bilana baikorra egin du Gazte Komiteak

Hainbat ekitaldi ederren artean, ortziraleko zikiroan 420 lagun bildu ziren eta igandeko senpenterren bazkarian 310

JL BESSONART

Eneko Lamothe, Gazte komiteko burua, biziki baikor agertu da iragan diren beste buruz. Ortziraleko zikiroan 420 kide izan ziren, gehienik gazteak; igandeko senpenterren bazkarian 310 pertsona sekulako giro onean, belaunaldi guztiak nahasiak. Larunbateko euriak, deuseztatu ditu futbol lehiaketako finalak, haatik gaueko kontzertuan Dupla taldeak sekulako giroa sortu du herriko plazan. Igande goizeko euriak ez ditu debekatu iragarriak ziren animazioak eta ahate joko jendetsuak ekarri

du zeruaren garbitzea. Publiko handiak gozaldia hartu du ondoko kantaldi eta txarangen musika entzutearekin. Astelehenean, Erdi-Aroko jantziz mozorrotuak ziren zombait gazte, betiko egun atsegina eta herrikoa. Belaunaldi arteko ahotsak nahasiz sortutako melodiekin lokartu zen herria. Asteartean, azken uztarrak eman dira pilota plazan bildurik. Oro har, aitortu digu bestak izigarri ederrak iragan direla, baina orain ikusi behar zer balorazio egingen ote duen Herriko-etxeak, begiradan izanik datorren urtea.

Adur Larrearen Lurbintoko ohoinak

Lapurdi 1609 elkarteak antolaturik Adur Larreak *Lurbintoko Ohoinak* komikia aurkeztu zuen Mediatekan. Frantziako iraultza ondoko garai nahasian sortu zen ohoinen taldea Itsasu inguruan.



JL BESSONART



UTZITAKOA

Askona eta Jauregi txapeldun

Gure herrian memento honetan trinketea esku-huska trebezi guti erakusten da, aldiz pilota plazan loriatzeko emaitzak lortzen dituzte. Hori frogatu da Kanboko plazan Amaiur Jauregik eta Peio Askonak 30-20 garaitu dituzte Amikuzeko Mendiburu/Thicoipe, Euskal Herriko finalean.

Donostiako Musika Hamabostaldiaren kari bi kontzertu izanen dira abuztuan

Donostiako Musika Hamabostaldiaren kari bi kontzertu handi izanen dira Jondoni Petri elizan. Gomeni da erre-serba egitea aski goiz Euskal Herriko Turismo bulegotan edo *cultureetpatrimoinesen-pere.fr* gunean. **Abuztuaren 5ean**, 21:00etan, Easo Ema-

kumeen abesbatzak emanaldi bikaina eta gozagarria eskaini behar luke, gehienik elizako musika obra ezagunak. **Abuztuaren 27an**, 21:00etan, Judith Jauregui donostiar pianistak *Lilura magikoa* errezitala eskainiko du, musika klasikoaren inguruan.

Txirindulariei ongietorri berezia Elbarrunen

Tourreko txirindulariek gure herria zeharkatu dute sekulako ziztu bizian. Lorentso Dolosor bizikletazale ezagunak, usaia duen bezala, ongi etorri koloretsua eskaini du, Elbarrun auzoan.



JL BESSONART

«Bertan lan egitea eta bizitzea ezinezkoa bilakatzen ari zaigu»

DABID GRAMONT SENPEREKO KOLEKTIBOKO KIDEA

Etxebizitzaren eta lurraren espekulazioaren kontra lanean ari den Senpereko Kolektiboko kidea da Gramont. Ekainaren 27an Olha etxaldea okupatu zuten eta hori izan du hizpide TTIPI-TTAPAREKIN

G. PIKABEA

Kexu dira Senperen, etxebizitza eta lurra espekulaziorako tresna bihurtuak dira eta «prezioen etengabeko emendatzearekin, bertan lan egitea eta bizitzea ezinezkoa bilakatzen» ari dela diote. Berriki bertze adibide bat izan dute: 1,3 milioi eurotan saldu nahi duten jabetza, 50 hektareako lurra eta etxebizitza. Gaiaz eztabaidatu eta aterabideak atzemateko negoziatioak ere egin dituzte, baina hutsean gelditu direla ikusita, ekainaren 27an Olha etxaldea okupatzea erabaki zuten ELB laborarien sindikatuak, Lurzaindia elkar-teak, Ostia sareak eta senper-tarren kolektiboak. Azken talde horretako kidea da Dabid Gramont herritarra. «Diru truk gure ingurumena xehatzeko prest diren interes suntsitzaileak» arbuiaitu ditu.

Noiz izan zenuten azken kasu honen berri?

Maiatz hasieran ukan genuen salmenta horren berri. Alta, Herriko Etxean otsailaren 17tik jakinaren gainean ziren. Jakin eta berehala mobilizaziora jo genuen, herriko azoka egunean *trakta* banaketa, hedabideetara idazkiak bidali eta Senperen bertan banderak ezarri ditugu egoera hori salatzen. Ondotik, ELB laborarien sindikatuarekin eta Lurzaindia elkartearekin harremanetan jarri ginen. Segidan, Senpereko Herriko Etxean bi bilkura antolatuak izan ziren; saltzailearekin eta eroslearekin alde batetik, eta



Ekainaren 27az geroztik egunez eta gauez okupatua da Olha etxea. IHIINTZA ARRIETA

laborarien sindikatuarekin eta Safer erakundearekin bertzetik [Laborantza lurra kudeatzen dituen egitura da Safer]. Hasiatik, saltzaileak eta erosleak Saferrek proposatutakoari uko egin diote. Saferrek lur eremu hori balioztatzen prezio bat eman zuen, 400.000 euro ingurukoa.

Eta azkenean adostasunik ez eta hitzetatik ekintzetara pasatzea erabaki duzue. Ekainaren 27an Olha etxea okupatzea erabaki zenuten...

Hilabete bateko epea gairatu, eta saltzaileak eta erosleak bertikoki ukazioan zirela ikusirik, elkarteen eta sindikatuen artean okupaziora jo behar genuela erabaki genuen.

Gaur egun zer martxa duzue?

Gaur egun, okupazioa ongi doa. Txandakatu da, herri batek egun bat egiten du. Inguruko herrietako herritarrak eta Euskal Herriko bertze txokoetako jendea parte hartzen ari da. Egunez eta gauez okupatua da Olha etxea eta azken asteotan hitzaldiak, kontzertuak eta jardunaldiak antolatuak dira.

Irabazi arte segituko duzuela erranda duzue...

Honelako desmartxa bat abiatzen delarik, irabazteko da, noski! Guk proposamenak egiten segitzen dugu gizarteari begira, beti ere, kolektibotasun ikuspuntutik. Arbuiaitzen duguna norberaren interes suntsitzaile hau da, diru truk gure ingurumena xehatzeko prest dena.

Zer giro sumatzen duzue herrian?

Haserrea eta kezka, bietarik, ulergaitza egiten zaigulako. Azken urte hauetan gero eta agerikoagoak dira etxebizitzari eta lurren salmentari lotutako arazoak. Sosa aintz izatea lagunartearen interesen gainetik da?

Espekulazioarekin Senperen duzuen arazoa ez da oraingoa...

Espekulazioa ez da Senpereko arazoa bakarrik, Iparralde osoari dagokiona baizik, eta Euskal Herri osoan hedatzen ari dena. Lurren eta etxebizitzaren prezioa etengabe emendatzeko joera horrekin bertan lan egitea eta bizitzea ezinezkoa bilakatzen ari zaigu.

Zer ondorio sortzen ari da herrian?

Ondorio zuzenak agerikoak dira. Senperen bertan lana duten bizilagun multzo batek duela urte batzuetatik honat autoetan lo egiten du...

Erosleak ez dira beti kanpokoak...

Afera honetan Adam opilgintza enpresaren jabea den Teilleria familia dago [Donibane Lohizuneko enpresa]. Bertan sortu eta bertan hazi da, baina kanpoko portaera zital batekin ibiltzen den horietakoa. Herria bihotzean bai, baina sosaren truk, noski.

Herriko Etxearekin baduzue harremanik?

Herriko Etxearekin harremanik ez. Gaur egungo auzapeza desagertua da interes kolektiboak defendatzerako momentuan. Hala ere, behartua izan da Euskal Hirigune Elkargoaren bilkuran gai hori aipatzea. Erran gabe doa, herritarrok bultzatu dugula, gure mobilizazioekin, eta lortu arte segituko dugu.

Zer erranen zenieke herritarrei?

Herritar orori engaiamendua eskatuko nioke. Gaur egun jokoan dena gure etorkizuna da, herriaren etorkizuna. Mobiliza gaitzen iruzurgile hauen aitzinean!

Zein da aterabidea zure ustez?

Aterabidea kolektibitateari egitasmo emankor bat eskaintzea da, izadia miresten duena eta bertan, bizitzeko, lan egiteko eta garatzeko aukera ematen duena.



Inazio Etxebesteren irudia, Lur Berri gelaren parean. GANEX

Herriko pilotarien irudiak ezarri dituzte paretetan

Iparraldeko Pilota Batzordearen mendeurrenean, Lemoine, Fagoaga anaien eta Etxebesteren argazkiak eman dituzte

GANEX

Iparraldeko Pilota Batzordeak 100 urte bete ditu aurten antolatua izan zela eta, lehen mendeurrenaren karia horretara, manifestazioe ainitz eginen ditu elkarteak. Herri ainitzek onartu dute beraien laguntza ekartzea eta beraien pilotari famatuena afitzak eman dituzte zenbait etxeetako paretetan. Saran, erraterako, plazako Etxeberriko paretan, alde batean, Jean Lemoineren eta bertzean Paul eta Jean Fagoaga anaien irudiak ezarri dituzte, hiruak txisteraka arituak. Lur Berri gelaren paretan, berriz, Inazio Etxebesteren ageri da, esku huska aritu zen pilotaria.

Erran gabe doa, Saran izan direla ainitz pilotari, partikulazki txisteraz aritutakoak. Badira oraino ere, bainan lau horiek fenomenak ziren eta oraino ere ainitz jende oroitzuten da horien balentriaz eta zein joko ederra zuten!

Liburuan ere

Bertzalde, Iparraldeko Pilota Batzordeak liburu bat ere egin du, ehun pilotari famatu bai-



Jean Lemoine, Etxeberriko paretan.



Paul eta Jean Fagoaga anaiak. GANEX

no gehiagoren argazkiak biltzen dituen. 15 eurotan salgai da. Interesatuak erreserba egin behar dute 05 59 29 59 40 telefonora deituz edo info@ipp-ctpb.eus helbide elektronikora idatziz.

Gure herriko ondarean garrantzia duen pilota ezagutzeko lan ederra da, zinez.

Etxebizitzak deklaratzeko epea uztailearen 30a arte

Kontseiluko diruzain lehendakariak jakinarazi du etxe edo apartamenduren bat duten jabeek behar dituztela deklaratu inposetan uztailearen 30a aitzin. Bertzenaz 150 euroko berbala izanen dute. Nola egin ez dakienak Herriko etxerat joan eta lagunduko diote.

Erromeria eta merkatua abuztuko lehen asteburuan

Abuztuaren 5ean, larunbatez, erromeria izanen da egun guziaz plazan, elkarteek antolatuturik. Abuztuaren 6an, igandez, ilunabarrean plazan merkatua herriko ekozleekin. Eurria baldin bada kiroldegian eginen dute, San Josepe eskolako burasoek antolatuturik.



GANEX

Borondatezko lanean ari direnei eskertza

Gizarte lanetan aritzen diren elkarteak eskertzeko elkarretaratzea egin zuten uztailearen 13an. Sozialeko elkarteak eskertu du jende horrek borondatez jende ainitzentzat ematen duen laguntza. Horretarako aperitif eder bat pintxoekin eskaini die Herriko etxeak.

Furfurietan musika zikloak agorrilean izanen du segida

Sarako Usopop elkarteak eta Plekak elkarlanean, Furfurietan izeneko hiru kontzertuko musika zikloa antolatu dute. Plekako baratzean izaten ari dira, urririk. Estreinako kontzertua uztailearen 13an Amoranterekin eta Rukula rock taldearekin egin zuten. **Agorrilaren 6an** eginen dute hurrengo hitzordua: Haira eta Bretainiako La Houle taldeekin. Azkenik, **agorrilaren 13an**, Dame Area tekno punk taldearen eta Nakar taldearen elektro-pop doinuak aditzeko aukera izanen da.

Gauenaren nazioarteko gaua ortziralean lezean

Lezearen oroimena mintzaldi zikloaren barrenean, Gaunenaren Nazioarteko gaua izanen dute **uztailearen 28an**, ortziralean, 19:30ean hasita lezean. Ingurumen Naturalen Kontserbatorioa (CEN) elkarteak kideek ugaztun honen aurkezpena eginen dute eta ondotik, sarrerako ataripean gauenarak adituko dituzte *batbox* tresnari esker. **Agorrilaren 11n**, CPIE Euskal Itsasbatterako Imanol Amestoik gidatutako txangoa eginen dute leze inguruan, 09:00etan abiatuta.



Hemezortzi aizkolari lehian ariko dira Sunbillako jaialdian. ONDIKOL

Hogeigarren edizioa beteko du Ramon Latasa Sariak

22 kirolari bilduko dira Sunbillan abuztuaren 13ko jaialdian eta omenaldia egingen zaio Donato Larretxeari

TTIPI-TTAPA SUNBILLA

Ramon Latasa Sariaren hogeigarren edizioa jokatu da abuztuaren 13an, 19:00etan hasita Sunbillako pilotalekuan. Aurtengoa jaialdi handia eta berezia izanen da, eta bertan 22 kirolari arituko dira lehian. Aurtengoan antolatzailerekin ahalegin berezia egin dute eta lehengo, oraingo eta etorkizuneko kirolariak lehiatuko dira. Ramon Latasa, aizkolari handia izandakoaren oroimenez antolatzen den lehiaketan lau bikote hauek arituko dira: Iker Vicente eta Hodei Ezpeleta *Bihurri*, Mikel

Larrañaga eta Ugaitz Muger-tza, Julen Alberdi *Txikia* eta Jokin Urretabizkaia *Basozabal* eta Eneko Otaño eta Ibai Soroa. Bikote bakoitzak hamar kanaerdiko eta sei 60 ontzako ebaki beharko ditu.

Erakustaldi moduan, jendeak aukera izanen du aizkolariarik zaharrena eta gazteena aizko-

LATASA SARIKO 20 EDIZIOETAN PARTE HARTU DU DONATO LARRETXEAK

ran ikusteko: Patxi Astibia (80 urte) kana-erdiko enbor bat moztuko du eta Jakes Iruretagoiena *Izeta Va* (15 urte) 45 ontzako enbor bat. Ekitaldi berean aizkolari beteranoren arteko desafio berezia izanen da. Alde batetik, Donato Larretxea eta Antonio Jaunarena; bertetik, Jose Ugarteburu eta Juan Jose Lopezek neurtuko dituzte indarrak. Bikote bakoitzak seina enbor moztu beharko ditu: lau kanaerdiko eta bi 45 ontzako.

Ikusleek emakumeen arteko aizkora lehia ikusteko aukera ere izanen dute, aurtengoa bigarren edizioa izanen da. Nerea Sorondo eta Uxue Anzorregi, Nerea Arruti eta Maika Ariztegiren aurka ariko dira. Bikote bakoitzak 45 ontzako borts enbor moztu beharko ditu.

Aizkoran ez ezik, harri-jasotzean ere izanen da lehia, punta-puntako harri-jasotzaileak nor baino nor arituko dira bikoteka. Alde batetik, Mikel Lopetegi *Urra* eta Hodei Iruretagoiena *Izeta IVa*, eta bertetik, Jokin Eizmendi eta Paulo Azpiazu. Hiru minutuko bi txanda egingen dituzte bi harri erabiliz; 113 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola.

Omenaldia

Azkenik, omenaldi txiki bat egingen zaio Donato Larretxea aizkolari handiari, Ramon Latasa Sariko hogeigarren jaialdian parte hartu duelako, urte bakar bat ere galdu gabe.



Lesakarra bizikletako zatian

Bere hogeita hamargarren ironmana bukatu du Igarzabalek

TTIPI-TTAPA LESAKA

Ez bat eta ez bi. 2008an bere lehen ironman proba Nizan (Frantzia) osatu zuen Beti Gazteko Bixente Igarzabal kirolari lesakarrak eta hama-borts urte beranduago bere hogeita hamargarren ironmana osatzea lortu zuen uztailearen 16an Gasteizen.

3,8 kilometro igerian, 180 km. bizikletan eta maratoia lasterka egiteko hamar ordu, 11 minutu eta 59 segundo behar izan zituen. Proba burutzea lortu zuten 1.139 kirolarien artean 218garrena izan zen. 50 eta 54 urte artekoen bere kategorian, 157 kirolarien artean hamazazpigarrena izan zen. Aipatzekoa da bizikletako zatian bere kategoriako onena izan zela.

Hirugarren mailako txapelketako finalean ez da eskualdeko aizkolariarik izanen

TTIPI-TTAPA ARANTZA

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketako kanporaketa jokatu zuten uztailearen 14an Iruñeko sanferminetan. Abuztuaren 16an Arantzako jokatu den finalerako borts txartel zuten jokoan 13 aizkolariak. Eskualde-

ko bi aizkolariak, Zubietako Mikel Santesteban (zazpigarren izan zen) eta Beintza-Labaiengo Jazinto Etxekonanea (hamargarren) finalerako kanporatu ziren. Victor Suarez, Jon Erdozia, Patxi Igoa eta Iker Goldarazena izanen dira Arantzako finalean.



Arantzako finalean izanen den boskotea. UTZITAKOA

Iruñeko plazatik herri kirol txapel uzta dator aurten ere

Maika Ariztegi ingude altxatzen Nafarroako hamahirugarren txapelketa irabazi du, bertzeak bertze

TTIPI-TTAPA IRUÑEA

Nafarroako hainbat herri kirol txapelketa jokatu dituzte aurten ere Iruñeko sanferminetan. Eskualdeko kirolariek txapel uzta polita ekarri dute.

Uztailaren 8an Nafarroako emakumezkoen aizkora eta arpana txapelketak jokatu zituzten. Aizkoran Nerea Sorondo beratarrak hiru minutu baino gehiagoko aldea atera zion Maika Ariztegi iturendarrari eta hirugarren izan zen Xanta Souza lesakarra. Arpanan, bigarren postua eskuratu zuten Ainhoa Etxegarai beratarrak eta Arantzako Naiara Manzanok eta Arraiozko Xabier Urrutiak eta Dani Saldiasek. Lucia Etxeberria goizuetarra, berriz, hirugarren izan zen, Iruñe Biurrunekin bikote eginez. **Uztailaren 9an**, gizonezkoen binakako aizkora eta gurdi altxatze txapelketak jokatu zituzten. Gurdiarekin Unai Bertiz sunbildarra bigarren izan zen eta aizkoran Joxean Etxeberria zigatarra, Ibai Soroarekin, bigarren eta Asier Pellejero aresoarra, Eneko Saralegiarekin, hirugarren.

Uztailaren 10eko kadete mailako arpana txapelketan Mattin Eugi eta Unax Etxarte igantziarrak nagusitu ziren.

Maika Ariztegi 13 txapel

Uztailaren 11ko ingude txapelketan, Maika Ariztegi iturendarrak hamahirugarren txapela jantzi zuen (94 altxaldi) eta Naroa Erbiti leitzarra laugarren izan zen (79 altxaldi). Gizonezkoetan bigarren izan zen Josetxo Urrutia leitzarra (81 altxaldi). **Uztailaren 12an**, San Fermin Lauko Sokatira Torneo Mistoa irabazi zuen Lesakako Beti Gaztek. Amaiur, berriz, bosgarren izan zen. **Uztailaren 13an**, lasto altxatze txapelketan, Amaiurko Iñigo eta Igor Goienetxe amaiurtarrek parte hartu zuten eta Iñigo nagusitu zen (19 altxaldi). Igorrek 15 egin zituen. Harri-jasotze txapelketan laugarren izan zen Josetxo Urrutia leitzarra. **Uztailaren 14ko** txinga eramate txapelketetan, iaz bezala, Dani Saldias arraioztarra (12 plaza) eta Esti Gastearena sunbildarra (25 plaza, 2,84 m) erraz nagusitu ziren.



Sorondo txapeldun, Ariztegi bigarren, Souza hirugarren. NHKF



Maika Ariztegi hamahirugarren aldiz irabazi du ingude txapelketa. NHKF



Lasto altxatzen, Iñigo Goienetxe txapeldun eta Igor txapeldunorde. NHKF



Esti Gastearena eta Dani Saldias nagusi txinga eramate txapelketan. NHKF



Arpanan, Etxegarai-Manzano bigarren eta Etxeberria hirugarren. NHKF



Plazaz ^laza txapelketaren aurkezpena Leitzako Peru Harrin. UTZITAKOA

Leitzako Peru Harrin aurkeztu dute III. Plazaz Plaza

Lehen partida Iturenen jokatu zuten uztailaren 15ean eta finala irailaren 30ean jokatu dute Azkoitiko Goiko Losa pilotalekuan

TTIPI-TTAPA

Haria, herria, pilota. Leitzako Peru Harri paraje ezin hobea izan zen aurtengo Plazaz Plaza txapelketa aurkezteko. Pilotak harritik ugari dauka eta plazek zer esanik ez.

Txapelketa honekin iragenera salto egin eta Euskal Herriko plaza ederretara iristeko

aukera ezin hobea izango dute 16 pilotarik, bi hilabete pasako txapelketan.

Iaz bezala, bi taldetan banatu dituzte pilotariak eta aurrelariak beraien taldeko atzelari guztiekin jokatu dute. A taldean Arrieta, Naroa Etxekolonea zubietarra, Ibarrola eta Iera Iturriaga izanen

dira aurrelari eta Mendiburu, Ruiz de Larramendi, Orbegozo eta Oskoz atzelari. B taldean, berriz, Aldaregia, Barrocal, Ruiz de Infante eta Goiuri Zabaleta leitzarra aurrelari eta Agirre, Irantzu Etxebeste beratarra, Mujika eta Zabala atzelari. Guztira 16 jaialdi jokatu dira hainbat udalerri finalerdiak erabakita gelditu arte. Finalerdiak Etxaurin eta Getarian jokatu dituzte, irailaren 16an eta 23an. Final handia berriz, Azkoitiko Goiko Losa pilotalekuan izanen da irailaren 30ean.

Lehenbiziko jaialdia uztailaren 15ean jokatu dute Iturenen. Etxekolonea zubietarrak eta Oskozek 17-22 galdu dute Arrieta eta Orbegozoren kontra. Eskualdean bigarren geldialdia abuztuaren 15ean egingen du, Areson. Etxekolonea eta Ruiz de Larramendi, Iera Iturriaga leitzararen eta Orbegozoren kontra ariko dira.

Aipagarria da, aldi berean, Ados Pilotak atzetik datozen pilotari gazteei aukerak emateko egiten duen lana, horregatik oraingo honetan Plazaz-Plazaren 3. edizioan jokatu dute Goiuri Zabaletak, Aizane Ibarrolak eta Leire Oskozek.

Lau herrietako taldeak sartu dira laxoa txapelketako finaletan

TTIPI-TTAPA OIZ

Baztan-Errekako 43. Laxoa txapelketa ezagun ditu dagoeneko aurtengo finalistak. Abuztuaren 5ean, Oizko plazan jokatu den final handian Doneztebe The Moment eta Arraioz Sagardia izanen dira aurrez aurre. Astebete lehenago, uztailaren 29an, plaza berean jokatu den final ttikian, berriz, etxeko taldeak, Oizek, eta Irurita Migelenek neurtuko dituzte indarrak. Beraz, lau herrietako ordezkariak izanen da finaletan.

Final handiko afarira begira ere hasia da Laxoa Ekartea. Abuztuaren 5ean jokatu dute Oizen eta egun horretan egitekoa duten afarirako txartelak dagoeneko salgai daude Iruritan, Arraiozen, Oizen eta Donezteben.

Bertzalde, Laxoa elkarteak txapelketan babesle izan diren Mariezkurrena Eraikuntzak enpresari eta Laboral Kutxari eskerrak eman nahi izan dizkie.



UTZITAKOA

Goiuri Zabaleta txapeldun sanferminetan

Emakume Master Cupek antolatutako San Fermin esku pilota torneoan txapeldun suertatu ziren Goiuri Zabaleta leitzarra eta Enara Gaminde. Uztailaren 8ko Labriteko final ederrean, markagailua irauli eta 22-17 irabazi zieten faborito ziren Oses eta Agirreabalari, 600 ikusleren aurrean.



MAIALEN ANDRES

Aritz Juaneneak hirugarren txapela

Sagardoaren eta Erremontari herriz herri txapelketen ondotik, Jai Alai Summer Season txapelketa ere irabazi du Aritz Juanenea saldiastarrak. Barrenetxea IV. arekin batera, 2-0 irabazi zien Azpiroz eta Larrañagari (13-15 eta 14-15) uztailaren 15ean Galarretan jokatu den final estuan.

AGENDA

UZTAILAK 27 - IRAILAK 7

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARESO Aresoko XIV. Mendi Itzulia

21 kilometro eta 1.200 metroko malda.
Plazatik, irailaren 3an, 08:00etan abiatuta.

IBILALDIAK

ETXALAR

Kontrabandoa ezagutzeko ibilaldiak

Plazatik, larunbatetan,
21:00etan. Erreserbak 10 eurotan.

SARA

Txangoa leze inguruan

CPIE Euskal Itsasbazterako
Imanol Amestoik gidatua.
Lezean, abuztuaren 11n,
09:00etan.

ARESO

Aresoko XIV. Mendi Itzulia

Plazatik, irailaren 3an,
08:00etan.

BERTZELAKOAK

LEITZA

XI. Film Laburren Lehiaketako bideoen proiektzioa

Atekabeltzen, uztailaren 28an,
22:00etan.

SARA

Gauenaren Nazioarteko Gaua

Lezean, uztailaren 28an,
19:30ean.

ELIZONDO

Riart Company dantza taldearen ikuskizuna

Plazan, abuztuaren 31n,
19:30ean.

MUSIKA

ARANTZA

Joseba Irazoki eta Agara

Aterpean, uztailaren 29an,
20:00etan.

Arima Soul System eta DJ Makala

Aterpean, abuztuaren 5ean,
19:30ean.

Janus Lester

Aterpean, abuztuaren 11n,
19:30ean.

Keu Agirretxea eta Mikel Arakistain

Aterpean, abuztuaren 26an,
19:30ean.

Dingshaw

Aterpean, irailaren 2an,
22:30ean.

SENERE

Easo emakumeen abesbatza

Elizan, abuztuaren 5ean,
21:00etan.

'Lilura magikoa' piano errezitaldia

Judith Jauregiren eskutik.
Elizan, abuztuaren 27an,
21:00etan.

SARA

Haira eta Britainiako La Houle

Plekako baratzean, abuztuaren
6an. Urririk.

Dame Area eta Nakar

Plekako baratzean, abuztuaren
13an. Urririk.

LESAKA

Burutik

Plaza Zaharrea, abuztuaren
25ean, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

ERRATZU

Allegro vivace

Diana Iniestaren margolanak.
Pintura eskolan, uztailaren 29tik
abuztuaren 4ra, 9tik 15era, 19tik
25era eta 30etik 31ra, 18:30etik
20:30era.

ELIZONDO

Lau urtaroak

Tomas Sobrinoren margo
erakusketa.
Arizkuneko 1. solairuan,
uztailaren 29tik irailaren 3ra.
Aste tarte 18:00etatik
21:00etara eta asteburuetan
11:30etik 13:30era eta
18:00etatik 21:00etara.

AZOKAK

SARA

Herriko ekoizleen merkatua

Plazan, abuztuaren 6an,
ilunabarrean.

ELIZONDO

II. Liburu Mikro Azoka

Txokoton, abuztuaren 6an.

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, uztailaren 29an,
abuztuaren 5ean, 12an, 19an
eta 26an eta irailaren 2an,
goizez.

Nire aukera

«Herria herritarrona den heinean, gure parte hartzea beharrezkoa da»

NAIARA AIZPURU SAGASETA DONAMARIAKO ALKATEORDEA



Donamariako 28 urteko gaztea da Naiara Aizpuru, Antsoainen gizarte hezitzaile gisa lan egiten duena. Mendia eta bertan egin daitezkeen kirolak ditu gustuko, baita denbora liburu artean pasatzea eta lagunekin elkartzea ere. Eta «nahiz eta errespetu dezenterekin», udalean sartzera animatu da hurrengo lau urteetarako.

Udal taldean

Azaldu duenez, «beti izan dut burutan noizbait udalean sartuko nintzela, herritar bezala hortik pasa behar edo nahi nuela. Ez dut hagitz argi bien artean zein den erantzuna: behar edo nahi».

Hala ere, aurtan aukera sortu zaio «eta nahiz eta nire momentua ez zela sentitu, banekien behin ere ez zela momentu guztiz egokia izanen

eta aitzinera egitea erabaki nuen. Herrian, behar izan denean, parte hartu dudala sentitzen dut, eta hau hurrengo pauso bat bezala ikusi dut beti».

Izan ere, «herria herritarro-na den heinean, gure parte hartzea beharrezkoa da. Modu batean edo bertzean parte hartzean, ekintzei bertze bulkada bat ematen zaie. Herritarrok inplikatzek eta egiten ditugun gauzetan sinesteak, lortu nahi ditugun helburuak modu erraz eta eraginkorrago batean lortzea eramaten gaituzte».

«HERRIA BIZIRIK MANTENTZEN SAIATU NAHI DUGU»

Alkateorde

Bi hilabete pasatu dira udal berria sortu zenetik, «beraz, martxa hartzen hasi bertzerik ez dugu egin. Oraingo bi udalbatza egin ditugu, eta hiru hilabetetik behin elkartzea adostu dugu. Bitartean, erantzuna eman behar zaizkien kontuak lotzeko beharrezko bilerak eginen ditugu, herriko bestetako egitaraua eta lan banaketa egiteko, adibidez». Honez gain, «korreoz eta mugikorrez ere harremanetan gaude, beharren arabera eta ahal dugun moduan».

Zinegotzi ez ezik, Donamariako alkateorde izendatu dute: «hitzak berak dioen moduan, alkatea ez dagoenean aitzinera eraman beharreko pape-ra da, baina oraingo ez zaidanaz bera gabe egotea tokatu, ezin dut izendapen horrek daukan egiazko lanaz solastatu». Hala ere, «ikusiak ikusirik, kargua aitzinera eramatea tokatzen bazait, seguru nago lan eta erantzukizun gehiago inplikatu duela. Baina taldean jende gehiago egonik, ez dut dudarik ahalik eta modu hoberean eramannen dela».

Herria hobetu nahian

«Herria mugimenduaren falta» nabaritu du Donamarian denbora batetik honat, «behar denean hor gaude, baina hortik haratago, herrian gauzak egiteko grina falta dela sumatzen dut, ni barne. Presaka eta martxa automatikoa sartuta bizi gara, gure kontuetan sarturik, eta horrek gure egunerokotasunetik edo erosotasunetik kanpo dauden ekin-tzak egitea zailtzen du».

«BESTETAN SORTZEN DEN GIROA ARRONT BEREZIA DA»

Hala ere, «aitzineko udal taldea mugitua ikusi dut, eta gauza berriak egin dituzte. Kultura aldetik aunitz mugitu da afera, bertze hainbertze gaiez aparte, eta herritarrak biltzeko aukera eman du».

Agintaldi berriari begira, «ildotik segitzea» dute helburu, «herritarrak aditu eta herriari behar den aldetik bulkada ematea. Herriko kontuak txukun eraman nahi ditugu eta herria bizirik mantentzen saiatu».

Bestetarako prestatzen

Donamariako eta Gazteluko bestak antolatzeko ardura ere taldearen gain dago. «Taldea funtsezkoa da, eta udalaz gain herritarrak ere inplikatzeko badira, denon artean lana banatzeak eta komisioka aritzeak antolakuntza aunitz errazten du, denbora aurrezteaz gain». Horretarako, denborarekin hasten dute antolakuntza: «otsailerako, aunitz jota, musika taldeak bilatzen saiatzen gara eta hori izanda, aitzineko urtetik hurrengora lotuak uzten diren gauzak ditugu, baita lasaitasun gehiagorekin egiten ditugunak ere».

Lana egiteko ez ezik, ospatzeko egunak dira bestak. Hala ere, bereziki bestazalea ez dela aitortu du Aizpuruk; «badaude galdu nahi ez ditudan besta puntualak, baina hortik kanpo, bestaz barraren gibelean pasatu dut denbora gehiago bezero bezala baino».

Dena den, «herriko bestak beti dira momentu seinalatua eta gustura hartzen da herriko lagunekin aste berezi bat pasatzeko aukera». Azaldu duenez, «gazte egunari gero eta gustu gehiago hartzen ari naiz; denon artean otordua prestatu, gazte jokoak egin... hala ere, herri bazkaria da gustukoan dudana eguna, adin guzietako jendea elkartu eta sortzen den giroa arront berezia izaten delako».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

BERA. Neska arduratsu eta langile batek apartamentua errentan hartu nahi du. ☎669 33 61 88.

BAZTAN. Irailetik aurrera etxebizitza bat errentan hartu nahi dute. ☎667 31 14 29 / 946 03 08 05.

ERRENTAN EMATEKO

BAZTAN. Irailetik ekainera pisua errentan emateko. ☎630 22 26 81.

IRUÑEA. 4 logelako pisua errentan emateko Iruñeko Unibertsitate ondoan, ikasle edo irakasleendako prestatua. Informazio gehiago posta elektronikoz (alquilo.piso.pamplona@gmail.com). ☎667 63 36 56.

SALGAI

BERA. Kanttonberri karrikan 81 m²ko pisua salgai. 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Prezioa 144.000 euro. ☎619 63 98 78.

LEGASA. 81 m²ko pisua salgai. Eguzkitsua, 3 logela, bainugela eta sukalde-egongela beheko suarekin; berogailua. Bizitzera sartzeko prest. 22 m²ko lokala. 150.000 euro. ☎606 58 96 36.

ELIZONDO. Giltxaurdi karrikan pisu eguzkitsua salgai: 3 logela, egongela, balkoia, hall, bainugela (berritua) eta sukaldea (berritua). Bizitzera sartzeko prest. 105.000 euro. ☎676 88 83 35.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

ARANTZA. 3.700 metro koadroko lur eremua salgai. ☎648 01 67 29.

LANAK

ESKAINTZAK

BERA. Botxo ostatuan sukaldaria behar dute. ☎617 72 34 75.

BERA. Adineko emakumea zaintzeko langilea behar dute, 17:30etik 21:30era. ☎628 00 15 57.

BERA. Data zehatzetan etxea garbitzeko emakume arduratsu nahi dute. ☎669 33 61 88.

LESACA. Iturbena kafetegian irailetik aurrera ostiral, larunbat eta igande gauetan afariak emateko sukaldaria behar dute. Orduetgia: 19:00-etatik 23:00:00etara. Bokatak, hanburgesak, razioak... Kozinatze-ko. Interesatuak bertatik pasa edo telefonoz deitu: ☎620 70 09 64.

ZUGARRAMURDI. Sorginen Museo Lezean langilea behar dute egun osoz

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

aritzeko. Deitu edo idatzi. zugarramurdikogarapena@gmail.com. ☎676 73 21 98.

LESACA. Andra Mari Zahar Etxean erizain eta laguntzaile bila. Bidali curriculum andramari@lesaka.eus edo tsocial@lesaka.eus helbidera.

BERA. Ibardingo tabako denda batean 18 urtetik gorako langilea behar dute udan aritzeko. Astean 40 ordu. Baldintza onekin. Bidali curriculum beolaetxea@gmail.com helbidera.

SUNBILLA. Ariztagain kanpinean irail bukaera arte 2 sukaldari laguntzaile behar dituzte lanaldi osoan aritzeko. Hobe esperientzia pixka bat baldin badute. ☎948 45 05 40.

ESKARIAK

Eskualdean lan egiteko prest dagoen mutila. Arduratsua eta langilea. Esperientzia lan anitzetan: mantentze lanetan, igeltsero... ☎634 29 47 41.

BAZTAN. Neska batek lan eginen luke: sukaldari laguntzaile, adinekoak zaintzen, etxeko lanak egiten, garbiketan... ☎637 72 85 00.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Katakume bixiak opari. Ama harrapakaria, eskuetan ibiltzera ohituak. ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.

Hiru katakumek etxea behar dute. Bi ar eta eme bat dira. ☎650 79 76 69.



Zakurkumeak oparitzeko. ☎680 88 77 56.



LEITZA. Hilabeteko bi txakurkume oparitzeko. Ama artzain txakurra eta aita artzain txakurra eta collie arrazen arteko nahasketa. ☎948 51 02 24.

SALGAI

Ehiza txakurkumeak salgai. Ama grifoi vendeano arraza eta aita sabueso, biak ehiztari oso onak. ☎654 77 36 49.

GALDU-AURKITUAK



SUNBILLA. Ekainaren 23an zakur hau agertu zen. Arra eta gaztea da, lepo-koarekin. ☎687 27 58 08.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



2 koltxoi eta 3 kajoiko ohatzea salgai. Egoera hagitz onean. Armazoa: 204x88x116. Ohatzeak: 105x195 eta 90x180. ☎699 10 77 29.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aratxe gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,30 €
- 1.koa 5,18 €
- 2.koa 5,06 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,41 €
- 1.koa 5,27 €
- 2.koa 5,16 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aratxe tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aratxe mestizoak

- Urruxak 210,00 €
- Idixkoak 125,00 €

Aratxe nabarrak

- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 140,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,90/9,00 €
- 8-10 kilokoak: 7,00/7,00 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 85 €

Zerri gizona 2,025 €

Zerramak 1,410€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua uztailaren 7tik 14ra bitarteko prezioak)

URTEBETETZEAK



Urtea martxa ederrean pasatu zaigu!
Zorionak eta aunitz urtez **Aroa, Ekaitz, Ander** eta **Iñakiri** familia guziaren partetik!
Ongi ospatu!!



Doneztebeko **Elaia Telletxea Juaneneak** 5 urte bete ditu uztailaren 16an. Zorionak printzesa familiakoena eta bereziki Juneren partetik!! 5 muxu haundi!



Arantzako **Izaro Landa Iparragirrek** 9 urte beteko ditu abuztuaren 4an. Aunitz urtez familia guziaren partetik, maite zaitugu!



Tiane Larretxea de Mateo beratarak 20 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Aunitz urtez familiaren partetik eta disfrutatu herriko bestak!!

SORTZEAK

- **Jokin Nesprias**, Sarakoa, ekainaren 25ean.
- **Eva Costea Lamareus**, Sarakoa, uztailaren 2an.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera edo Whatsapppe 744 48 43 61 idatzi beharko du.

KONTATU KONTUAK

**Baztango Udalaren gonbidatu bereziak Baztandarren**

Biltzarrean. Erran beharrik ez dago Baztandarren Biltzarra egun handia izaten dela baztandarrendako. Eta Baztango Udalak «ospakizuna ahalbidetzen duten ehunka lagunak, bai antolakuntzan aritzen direnak eta bai egunean parte hartzen» dutenak «zoriondu eta eskertu» nahi izan zituen. Gonbidatu bereziak ere izan zituzten ondoan. Tartean, alde batetik, Baztandarra Txirindularitza Taldeko ordezkariak gonbidatu zuten, aurtan 40 urte bete baititu kirol taldeak. Azken urteetan indarberrituta heldu den taldea zoriondu eta oroigarria eman zioten. Bertzetik, Jon Pacheco Dozagarat futbolari elbetearra ere gonbidatu zuten, baina oporretan izaki, ezin izan zuen joan. Udalaren hitzetan, «umiltasuna bidelagun hartuta bide ederra osatzen ari da Jon, eta Baztango jendearen erreferente bilakatu da dagoeneko, batez ere ttikiendako».



Zirku jaialdia Beran. Urruñako, Biriutuko eta Berako Udalen laguntzarekin Muga Gabe Zirku Festibala antolatu zuen EASAC Urruñako Arte eta Zirku Eszenaren Akrobazia eskolak. Uztailaren 14an Beran clown eta zirku tailerra, eta Hands some Feet konpainiaren emanaldiak izan zituzten. Jende aunitz bildu zen.



Euskarabentura eskualdean barna. Uztailaren 17an Lesakara ailegatu ziren Euskarabentura espedizioko kideak, eta biharamunean Urdazubira –irudian– joan ziren. Uztailaren 19an Amaiur bisitatu zuten eta hala utzi zuten eskualdea.

URTEURRENA

**Gurutze
IPARRAGIRRE OSKOZ**
Arantzan, 2014ko uztailaren 15ean
IX. URTEURRENA

*Eta aurtengoan bederlatzi urte,
atzoko kontua dela iruditzen zaigu oraintxe,
zure oroitzapen eta hainbat pasarte
egoten gara beti bezalaxe kontatzen
zure falta sumatzen dugula ere
aunitzetan dugu pentsatzen
Ahazten ez dena
ez baita inoiz ere hiltzen
Ilargiraino eta buelta jarraitzen baitzaitugu
inoiz baino gehiago maitatzen.*



GOIZANE LEHENGUSINA

OROIGARRIA

**Iñaki
GOÑI OYON**
Sunbilla sortua, 2023ko uztailaren 6an
Zaragozan hil zen, 75 urte zituela

Maite zaitugu.



HILBERRIAK

- **Ines Dendarieta Aristizabal**, Zugarramurdikoa, uztailaren 5ean, 74 urte.
- **Carlos Urdanpilleta Irazu**, Lesakakoa, uztailaren 6an, 66 urte.
- **Jose Mari Arroabarren Bulman**, Elizondokoa, uztailaren 8an, 84 urte.
- **Gabriel Goñi Gameotxipi**, Iruritikoa, uztailaren 10ean, 82 urte.
- **Santiago Santidrian Alegre**, Lesakakoa, uztailaren 11n, 72 urte.
- **Xole Agirre Arregi**, Narbartekoa, uztailaren 12an, 92 urte.
- **Sagrario Mutuberria Oteiza**, Iturengoa, uztailaren 15ean, 60 urte.
- **Jose M^a Ordoki Almandoz**, Arantzakoa, uztailaren 17an, 99 urte.

OROIGARRIA

**Xole
AGIRRE ARREGI**
Narbarten hil zen, 2023ko uztailaren 12an,
92 urte zituela

Eskerrik asko etorritako jende guztiari.

*Zorionekoak izan gara
zu gure ama eta amabai izateagatik,
eta bizitza guztia gurekin egoteagatik.*

ZURE FAMILIA



Oroigarriak

- Personalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moidaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



 **KULTURKARI**
Diseño gráfico | Publicidad
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58


IZARRA
HERRI, ZURE ONDOAN
ANIMA ETORRADO

Gure harra,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

 24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es


**BAZTAN
BIDASOA**
Heriotza Zerbitzua


BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com


Betiko taldea zu laguntzeka

HITZ GEZIDUNAK

	Bales arrantzeak	Kasmen oheak	Egokin mota	Hegaztien gonotz	Inudi ortodoxak
	Labesak	Batek eta beste batek	Haur hizkera, taakura	Inatza	Ez eme
	Landare mota			Ibar	
	Ume orotan			Karraskari mota	
Gibeko ikidua	Bekatu egile				Nitrogenoa
◆ Izena	Automatak				Dei eghez
			◆ Deitura		
			Bokai zehaia		
Hotzak eragindako ikara					Bidaiako udalerria
Hegaztien babesgunea					Etor hadi!
			Lehenengo letra	Bokala	Heuk
			Trebe, abil	Internet Protokoloa	Tema
Emepikatu, txori mota	Lohiak, zikinak				
Sala	Kontso-nantza				Suari daria
			Olerkariak		
			Bokai emepikatu		
Sodioa	Gipuzkoako udalerria			Armas ezak hil	Bokala
Pl., bimino mota	Bokala			Potasioa	Galgenoa
				Garaia, sasola	

◆ Aizkolari beratarra

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gubxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Harroina. [2] Idi parek lotzeko, lepo gainean jartzen zaien pieza.
- [3] Lurra harrotzeko lanabes.
- [4] Pertsoez mintzatuz, faltsua.
- [5] Zimur. [6] Arantzako mendia (829 m). [7] Arabako udalerria, Gorbeialdean. [8] Epaileak ebatzi beharreko arazo eztabaidatua.
- [9] Arkua. [10] Apaiz bihurtu. [11] Mendean ezarri, menderatu.

ERANTZUNAK



ZUTARRIA
 ZUTARRI
 AITZUR
 ZURIA
 IZUR
 IZU
 ZUIA
 AUZIA
 UZTARIA
 APAIZTU
 AZPIRATU

PLAZAN BAZAN

SUDOKUA

Osa ezazu sudokua BELATZ osatzen duten hizkiekin (B, E, L, A, T, Z). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



ZORIONAK!

ENEKO IRAZOKI

834. aleko irabazlea zara!



Marrakizak: Garbiñe Ubeda (Alurri)



HITZ ATSEGINAK

Loguntzailerak:

ibaizabal

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin abuztuak 28a baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whatsappera: (0034) 774 48 43 61 zure izen abizenak jarrita. Ondoa duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



INTERNETEN ERE BAI!



<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

MEZUA

Marrakitxook ezkututzen duten esaera ezin hobeto doakio mutiko honi. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta osatu esaera. Erabili irudi-alfabetoa.

Bide batez,
irudia
margotu.



ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H
J	K	L	M	N	O	P	Q
S	T	U	V	W	X	Y	Z
.	:	,	!	?	"	+	=

Ttipi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipe-txartela

834 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Avelina Petrirena Elizalde | ITUREN

Onddo ta punto - Kamiseta bat
M^a Teresa Lucas Casas | ERRATZU

Ez kexa - Kamiseta bat
Fernando Etxegarai Lopez | LESAKA

BKZ Abentura - Sarrera bat
Sonia Agirre Pegguy | ZUGARRAMURDI

WOW Park - Sarrera bat
Dorleta Peña Santiago | BERA

Mendukilo - Bi sarrera
Bittori Martin Irigoien | LIZARRA

Mugarki - Sarrera bikoitza
Itziar Goñi Sanzberro | ELIZONDO

EDR Gunea - Lote bat
Mikeli Iturralde Vildarraz | LEITZA

Ibaizabal - Bi liburu
Jaione Otxandorena Andiaarena | SUNBILLA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariums.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Poltsa bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

IRRISARRI LAND
www.irisariland.com



Sarrera bat

WOW PARK
www.wowpark.fr



Sarrera bat

LA RHUNE
www.rhune.com



Sarrera bat

KIMETZ
www.kimetzbelardenda.com



Lote bat

ARKUPE
www.arkupegozotegia.com



Lote bat

Sartu

ttipi.eus/ttipe-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipe Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttipe Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

MUSIKA

Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttipe-Ttapa aldizkari
guztietan Ttipe Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketa eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

MAUKA
MUSIKAGINTZA

www.maukamusik.com/eu/